BESTELAKO XEDAPENAK

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

3755

EBAZPENA, 34/2012, maiatzaren 18koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Eusko Jaurlaritzak egindako zenbait hitzarmen, beherago zehaztutakoak, argitaratzea xedatzen duena.

Eusko Jaurlaritzak zenbait hitzarmen sinatu dituenez gero, zabalkunde egokia izan dezaten, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Honako hitzarmen hauen testua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea:

– Jiangsu Probintziaren (Txina) eta Euskadiren artean adiskidetasunezko harremanak izateko hitzarmena, I. eranskina.

– Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren eta Ortuellako Udalaren arteko hitzarmena, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4.b) artikuluan ezarritakoa betetzeko (euskal autonomia erkidegoko administrazioari zuzendutako idazkiak udal erregistroetan aurkezteko lankidetza), II. eranskina.

– Lankidetza-hitzarmena Espainiako erlijio aniztasunaren behatokiarekin, erlijio aniztasunaren kudeaketa publikoa hobetzeko, III. eranskina.

– Red.es enpresa-erakunde publikoaren eta eusko jaurlaritzaren artean Avanza Planean jasotako «Erregistro Zibila Sarean» Programa garatzeko egindako lankidetza-hitzarmenaren eranskina, IV. eranskina.

– Nikaragua eta Costa Ricako Errepubliketako Botere Judizialen eta Eusko Jaurlaritzaren ordezkari-erakundeen arteko lankidetzarako hitzarmen-markoa, V. eranskina.

– Europako Batzordearekin «Grant Agrement» hitzarmenak; helburua: «+Innova Creativity» eta «Reina» proiektuak abian jartzea eta finantzatzea, VI. eranskina.

– Estatuko Administrazio Orokorrak, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren eta Carlos III Osasun Institutuaren bitartez, eta Euskal Autonomia Erkidegoak, Osasun eta Kontsumo Sailaren bitartez, zahartzeari buruzko ikerketa eta berrikuntzarako plataforma bat sortzeko eta garatzeko sinatutako lankidetza-hitzarmena, VII. eranskina.

– Lankidetza-hitzarmena, Sustapen Ministerioaren eta Eusko Jaurlaritzaren artekoa, hiri-informaziorako sistema garatzeko, VIII. eranskina.

– Akordioa: Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Kudeaketari eta Garapen Jasangarriari Laguntzeko Ingurumen, Landa Ingurune eta Itsas Ingurune Ministerioak, Eusko Jaurlaritzak, eta Gautegiz Arteaga, Kortezubi, Sukarrieta, Ibarrangelu eta Gernika-Lumoko Udalek duten hitzarmena aldatu eta luzatzekoa, IX. eranskina.

– Euskal Estatistika Erakundearen eta Kanarietako Estatistika Erakundearen arteko lankidetza hitzarmena, erregistroak bat egiteko asmoz elkarlanean aritzeko, X. eranskina.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 18a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
M.ª JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ.

I. ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN MAIATZAREN 18KO 34/2012 EBAZPENARENA

JIANGSU PROBINTZIAREN ETA EUSKADIREN ARTEAN ADISKIDETASUNEZKO HARREMANAK IZATEKO HITZARMENA

Euskadik, Jiangsu Probintziarekin batera, Txina eta Espainiaren artean Harreman Diplomatikoak Ezartzeari buruzko Baterako Adierazpenari jarraikiz –2005eko uztailaren 21ean izenpetu eta 2005eko azaroaren 15ean argitaratu zen adierazpen hori–, bi herrien arteko adiskidetasuna sustatu eta zenbait arlotan lankidetza garatzeko, nor bere esparru juridikoan eta adiskidetasunezko kontsulten bitartez, honako hitzarmen hau izenpetzea adostu dute:

I.– Berdintasunari eta elkarren onurari buruzko printzipioak errespetatuz, bi aldeek erabaki dute trukeak eta lankidetzak burutzea, baterako garapen joria bilatzeko hainbat arlotan –hala nola, merkataritzan, zientzia eta teknologian, energian, nekazaritzan, kulturan, hezkuntzan, turismoan, ingurumenean, enpleguan eta gizarte gaietan–, bi aldeek erabakitako beste zenbait lankidetza arlo gehitzeari kalterik egin gabe.

• Merkataritza: plataformak ezartzea, bi eskualdeetako enpresen arteko trukea eta lankidetza sustatzeko inbertsio arloan eta merkataritzan. Plataforma horiek informazioa eta ordezkaritzak trukatzea erraztuko dute eta laguntza eskainiko diete beste aldeko enpresei tokiko merkataritza jardueretan parte hartzeko, hala nola, azoka, mintegi, aurkezpen eta negoziazioetan.

• Zientzia eta Teknologia: ikerketa zientifikoaren arloko emaitzak eta jardunbide egokiak trukatzea, baita I+G+b proiektuei buruzko informazioa ere. Pertsonal zientifiko eta teknikoa trukatzea erakunde eta enpresen artean, bi eskualdeen ikerketa zientifikorako.

• Energia: energiaren erabilpen eraginkorra areagotzeko esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzea eta elkarlanean aritzea energia berriztagarrien garapenean.

• Nekazaritza: pertsonal teknikoa, jardunbide egokiak eta profesionalen prestakuntza trukatzea nekazaritza zientziaren alorrean. Nekazaritzako elikagaien sektoreko enpresak elkarlanean aritzea, nekazaritzako elikagaien industrian garapen jasangarria eta nekazaritzako produktuen alde biko merkataritza sustatzeko.

• Kultura: kulturaren industria garatzea bi kulturak trukatu eta hedatuz.

• Hezkuntza: Goi mailako hezkuntza erakundeen artean lankidetzan aritzea eta bi eskualdeetako ikasle eta irakasleak trukatzea. Titulazio bikoitza lortzeko programak garatzea (graduondoan batez ere). Batera parte hartzea unibertsitate lankidetzarako nazioarteko programetan.

• Turismoa: Turismo-sektoreko agintari, elkarte eta enpresen artean lankidetzan aritzea, merkatuak ustiatzeko eta produktu turistikoak garatzeko. Bi eskualdeak abangoardiako helmuga turistiko gisa sustatzea.

• Ingurumena: esperientziak eta jarduera egokiak trukatzea eko-diseinuan, klima aldaketaren aurkako borrokan, uraren kudeaketan eta garapen jasangarrirako estrategien lanketan.

• Enplegua eta Gizarte Gaiak: pertsonal teknikoa trukatzea eta trebatzea osasunaren alorrean, langabeziarenean, lan istripuen prebentzioarenean, enplegurako politikak garatzearen alorrean, laneratzearen alorrean eta lan esparruko eztabaidetan bitartekotza egitearen alorrean. Lankidetza eremuak identifikatzea, gizarteratze alorrean, mendekotasunen bat duten taldeenean, bazterketa

arriskuan edota baztertuta daudenen alorrean elkarrekin betetzeko programak eginez eta informazioa, ezagutza, esperientzia eta jarduera egokiak trukatzen lagunduz.

II.– Bi aldeetako agintari eskudunek sarri izango dituzte harremanak eta trukeak eta epe luzean elkarrekin lan egiteko mekanismo bat ezarriko dute. Jiangsuko Gobernuko Kanpo Harremanetarako Bulegoa eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia izango dira eskumena duten organoak hitzarmenean ezarritako jarduerak antolatzeko eta koordinatzeko, baita hitzarmena ezartzeak eragiten dituen gorabehera guztiak argitzeko ere.

III.– Hitzarmen hau betetzerakoan alde bakoitzak jarduera zehatzak finantzatzeari, antolatzeari eta gauzatzeari buruzko baldintza bereziak eta betebeharrak hartzen baditu bere gain, berariazko hitzarmen batean jasoko dira horiek kasu berezi bakoitzerako. Aipatutako hitzarmen horiek bi aldeek ados jarrita sinatuko dituzte eta sinatu ahala hitzarmen honi atxikiko zaizkio eranskin gisa; hitzarmen honen zati banaezina izango dira eta hitzarmen horietan ezarritako indarraldia izango dute. Hitzarmen honetan zein hitzarmen honen babesean etorkizunean izenpetzen diren berariazko hitzarmenetan aurreikusitakoari jarraipena egiteko, bi aldeek informazioa trukatuko dute eta emaitzak ebaluatzeko eta baloratzeko txostenak egingo dituzte.

IV.– Lankidetza hitzarmen hau sinatzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean eta 5 urteko indarraldia izango du; indarraldi hori iraupen bereko aldietan luza daiteke, bi aldeak ados egonez gero.

Aldeetako batek hitzarmen hau bukatutzat eman ahalko du edozein momentutan, beste aldeari zuzendutako idatzizko jakinarazpen bat igorriz 6 hilabete lehenago.

Hitzarmen hau behar baino lehenago bukatzeak ez dio eragingo hitzarmenaren indarraldian formalizatutako lankidetza jarduerak burutzeari.

Hitzarmen hau interpretatu edo ezartzetik sor daitekeen edozein gorabehera edo desadostasuni adiskidetasunez emango diote irtenbidea aldeek elkarren artean kontsultatu edota negoziatuz.

Testu hau Vitoria-Gasteizen bi mila eta hamabiko apirilaren 27an espainieraz eta txineraz izenpetutako jatorrizko bi aleen euskarazko kopia fidagarria da.

XU MING jauna.

Jiangsuko Probintziaren gobernadoreordea, Txinako Herri Errepublika.

PATXI LÓPEZ jauna,

Eusko Jaurlaritzaren lehendakaria. Espainiako Erresuma.

II. ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN MAIATZAREN 18KO 34/2012 EBAZPENARENA

HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ADMINISTRAZIOAREN ETA ORTUELLAKO UDALAREN ARTEKOA, HERRI ADMINISTRAZIOEN ARAUBIDE JURIDIKOAREN ETA ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 30/1992 LEGEAREN 38.4.B) ARTIKULUAN EZARRITAKOA BETETZEKO (EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOARI ZUZENDUTAKO IDAZKIAK UDAL ERREGISTROETAN AURKEZTEKO LANKIDETZA)

Vitoria-Gasteizen, 2012ko apirilaren 19an.

BILDU DIRA:

Batetik, Idoia Mendia Cueva andrea, Justizia eta Herri Administrazioko sailburua dena, EAEren ordezkari gisa, eta bestetik,

Oskar Martínez Zamora, Ortuellako Udaleko alkate-presidente jauna, esandako udalaren ordezkari gisa.

Bi ordezkariok, ondorengo manu hauek emandako eskumenak erabiliz dihardute: batetik, Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen abenduaren 28ko 472/2009 Dekretua nahiz Jaurlaritzaren Kontseiluak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4.b artikuluan aurreikusitako hitzarmenak gauzatzeko, 1996ko urriaren 29an hartutako Erabakia; eta bestetik, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea nahiz, Toki Araubide arloko indarrean dauden xedapenen Testu Bategina onartu zuen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzazko Errege Dekretua.

Bi aldeek elkar onartzen dute eta elkarri aitortzen diote honako hitzarmen hau gauzatzeko legezko gaitasuna. Horretarako, hau

ADIERAZTEN DUTE:

30/1992 Legearen 38.4.b) artikuluaren arabera, Administrazio Publikoei zuzendutako eskaera, idazki eta jakinarazpenak aurkez daitezke edozein administrazio-organotako erregistroan, dela Estatuko Administrazio Orokorrekoa, dela autonomia-erkidegoetako administraziokoa, dela probintzietako diputazioen, kabildoen eta uharteetako kontseiluen administraziotakoak, dela Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 121. artikuluak aurreikusten dituen udalerrietako udaletakoak, dela gainerako Toki Administrazioko erakundetakoak, beti ere, azken kasu honetan, dagokion hitzarmena sinatu bada.

Aipatutako manu hori betetzea eta herritarren eta administrazio publikoen arteko harremanak erraztea da gaur sinatzen den hitzarmen honen helburua; izan ere, administrazio sinatzaileek lehendik zuten asmoa, hots, herritarrek, EAEko Administrazioaren edozein organo edo erakunderi zuzendu nahi dizkioten agiriak Ortuellako Udalaren erregistroetan, eraginkortasun osoz, aurkeztu ahal izatea, gauzatu egiten da honako hitzarmen hau dela medio.

Gauzak horrela, arestian aipatutako administrazioek hitzarmen hau sinatzen dute, hona hitzarmenaren.

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Hitzarmen honen helburua da, EAEko Administrazioari eta nortasun juridikoa duten Zuzenbide Publikoko Erakundeei herritarrek zuzentzen dizkioten eskaera, idazki eta jakinarazpenak Ortuellako Udalaren erregistroetan aurkeztu ahal izatea.

Bigarrena.– EAEko Administrazioari eta nortasun juridikoa duten Zuzenbide Publikoko Erakundeei herritarrek zuzentzen dizkieten eskaera, idazki eta jakinarazpenak Ortuellako Udalaren erregistroetan aurkezten direneko data hartuko da kontuan interesatuek epeak betetzeari dagokionean; ildo horretatik, 30/1992 Legearen 48. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

Hirugarrena.– Ortuellako Udalak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

a) EAEko Administrazioko Organoei edo administrazio horri atxikiriko Zuzenbide Publikoko Erakundeei herritarrek zuzentzen dizkieten eskaera, idazki eta jakinarazpenak bere erregistroetan onartzea.

b) EAEko Administrazioari zuzendutako eskaera, idazki eta jakinarazpenei bere erregistroetan sarrera ematea, eta honako hauek idatzita gordetzea: sarrera-zenbakia, izenburua, idazkia jaso zeneko eguna eta ordua, interesatuaren datuak, eta, hala dagokionean, idazkia bidali duen organoaren izena, edo bidaltzen zaion pertsona edo organoaren izena; behar denetan, idazki edo jakinarazpenaren laburpena ere jasoko da; hori guztia 30/1992 Legearen 38.3 artikulua eta bigarren xedapen gehigarriaren arabera.

c) Agiriok erregistroan jaso eta, beranduen, handik bi egunera, dagozkien organo edo erakundeei zuzenean bidaltzea, beti ere, irteera-data idatzita egongo delarik. Agiriok ahalik eta azkarren jaso daitezen, ahal delarik behintzat, egoki iritzitako teknika eta bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoak erabiliko dira; beti ere, 30/1992 Legearen 45. artikuluan eta horrekin bat datozen gainerako manu eta xedapenetan aurreikusten diren berme eta betebeharrak kontuan izanik.

Laugarrena.– EAEko Administrazioak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

a) Ortuellako Udalari administrazioa osatzen duten organo eta erakundeei buruzko informazioa ematea, bai eta informazio hori etengabe eguneratzea ere.

b) Ortuellako Udalari baliabide egokiak ematea, berorrek EAEko Administrazioari eta honi atxikitako zuzenbide publikoko erakundeei buruzko informazioa eman diezaien herritarrei.

c) Erregistroak informatizatzeko laguntza teknikoa eta behar den lankidetza eskaintzea.

Bosgarrena.– Baldin eta, hitzarmen hau sinatzen duten administrazioek euren Erregistroak informatizatzeko neurririk hartzen badute, elkarri jakinarazteko konpromisoa hartzen dute, beti ere, neurriok interkomunikazio sistemen bateragarritasuna eragiten badute; horrelakoetan, administrazio sinatzaileok, aipatutako bateragarritasuna eta euren erregistroen arteko koordinazioa bermatzeko hitzarmena sinatuko dute.

Seigarrena.– Hitzarmen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera, lau urtez egongo da indarrean. Baldin eta administrazio sinatzaileetako batek, hitzarmena amaitu baino, gutxienez, bi hilabete lehenago, espresuki, kontrakorik ez badio, hitzarmen hau, besterik gabe, beste lau urtetarako luzatuko da.

Hitzarmena, ondorengo arrazoi hauek direla kausa ere iraungi egingo da: administrazio sinatzaileek adostasunez hala erabakitzen badute; edota administrazioetako batek, beste administrazioak hitzarmenean ezarritako betebeharrak nabarmenki urratu dituelako, bere aldetik hala erabakitzen badu.

Hitzarmen honen formalizazioa nahiz iraungipena, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Ortuellako Udaleko iragarki taulan argitaratuko dira.

Zazpigarrena.– Hitzarmen honen interpretazioa eta aplikazioa direla eta sor daitezkeen zalantza eta eztabaiden inguruko erabakiak hartzea, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio; erabakiok betearazleak izango dira, eta haien kontra, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da.

Ados daudela adierazteko, hala jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, interesatuek jatorrizko bi aleak sinatu dituzte, idazpuruan esandako lekuan eta egunean.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

Ortuellako Udaleko alkate-lehendakaria,
OSKAR MARTÍNEZ ZAMORA.

III. ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN MAIATZAREN 18KO 34/2012 EBAZPENARENA

LANKIDETZAKO ESPARRU-HITZARMENA, ESPAINIAKO ERLIJIO ANIZTASUNAREN BEHATOKIAREKIN, ERLIJIO ANIZTASUNAREN KUDEAKETA PUBLIKOA HOBETZEKO

Madril, 2011ko azaroaren 30a.

BILDU DIRA:

Batetik, Francisco Caamaño Domínguez jauna, Justizia ministroa eta Espainiako Erlijio Aniztasunaren Behatokiaren lehendakaria, Ministerioaren ordezkari gisa diharduela, Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Jardueraren apirilaren 14ko 6/1997 Legeko 13.3 artikuluan jasotzen denaz bat.

Bestetik, Idoia Mendia Cueva andrea, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorreko Justizia eta Herri Administrazioko sailburua, administrazio horren izenean eta ordezkari gisa.

Biek ala biek dituzten karguen izenean parte hartzen dute, eman zaizkien ahalmenen barruan, eta honako hitzarmen hau sinatzeko behar den adinako gaitasuna aitortzen diote elkarri.

ADIERAZTEN DUTE:

Lehenengoa.– Espainiako Erlijio Aniztasunaren Behatokia (aurrerantzean «Behatokia») lankidetza-hitzarmen baten ondorioz sortu zen, Justizia Ministerioak, Espainiako Probintzien eta Udalerrien Federazioak eta Pluralismo y Convivencia Fundazioak sinatua, 2011ko maiatzaren 23an.

Bigarrena.– Behatoki hori aurrera eramaten ari den jardueren artean sartzen da Espainian erlijioak duen aniztasunaren berri ematea eta, bereziki, erlijio-aniztasunaren arloan Espainiako administrazio publikoek egindako kudeaketa-lana aztertzea.

Hirugarrena.– Ministroen Kontseiluak, 2008. urtean, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 60. urteurrena ospatzen zela kontuan izanda, «Giza Eskubideen Plan Nazionala» onartu zuen, eta 2012. urtera arte iraungo zuela adierazi. Plan horren IV. Jarduera-esparruaren barruan (barne-ekintzei buruzkoan), 4. zenbakian, hau da, erlijio-askatasunari buruzkoan, ondorengo neurria aipatzen da, 71. lekuan: Espainiako Erlijio Aniztasunaren Behatokia sortzea.

Laugarrena.– Behatokiaren asmoa tresna bat izatea da, erakunde publikoei erlijio-aniztasuna kudeatzeko ezagutza eman ahal izateko. Helburu nagusia administrazio publikoei nondik nora jo erakustea da, kudeaketa aurrera eramaterakoan Konstituzioko printzipioak eta arau-esparrua betetzeko, hau da, Espainian erlijio-askatasuna aldarrikatzen duen eskubidea arautzen duen arau-esparrua. Horrekin batera, Behatokiak erreferentzia-gune ere izan nahi du, bai ikertzaileentzat eta, orokorrean, baita erlijio-aniztasunaren dimentsio guztietara hurbildu beharra duen edo nahi duen edozein pertsonarentzat ere.

Bosgarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak dituen betebeharren artean, bere lurraldean oinarrizko eskubideak gauzatu ahal izatea bermatzea sartzen da, eta, zalantzarik gabe, erlijio-askatasuna horietako bat da. Hain zuzen ere horregatik du Behatokiaren garapenean parte hartzeko interesa.

Esandako guztiagatik, lankidetzak onurak ekarriko dituela jakinda, eta helburuak lortzen laguntzeko asmoa dutenez, parte hartzaileek honakoa

ERABAKI DUTE:

Lehenengoa.– Gaia.

Hitzarmen honen gaia elkarrekin lankidetzan aritzea da, aurreko paragrafoan aipatutako helburuak lortu ahal izateko, eta baita elkarri informazioa ematea eta beste edozein lankidetza-modu eskaintzea, Behatokiaren kalitatea hobetzea baldin badakar horrek, eta hori guztia Espainiako administrazio publikoei erlijio-aniztasuna kudeatzeko orduan lagundu ahal izateko.

Bigarrena.– Edukiak.

Lankidetza Behatokiaren hiru jarduera-esparruetan eramango da aurrera:

– Erlijio-aniztasunaren berri izatea eta aniztasun hori eremu publikoan kudeatzea. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorreko gobernuak laguntza eskainiko du gurtza-tokien direktorioa eguneratzeko, eta baita erkidegoan erlijio-aniztasunak dituen askotariko dimentsioei buruzko ikerketak aurrera eramateko. Horretarako, autonomia-erkidego horretako unibertsitateekin jardungo da.

– Erakunde publikoek erlijio-aniztasuna kudeatzeko eskuliburu eta gidak. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak aurrera eramango diren gida guztien balidazioan parte hartzeko aukera izango du, hain zuzen ere Behatokia sortzeko hitzarmenean jasotako balidazio-sisteman esaten denaz bat. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak aukera izango du Behatokiari gaiak proposatzeko, horren inguruko gidak ateratzeko. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak aukera izango du Behatokiko kide izan aurretik argitaratu ziren eskuliburu eta gidak balidatzeko, atzera indarrez.

– Web ataria. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak aukera izango du Behatokiaren web atariko guneetan administrazio horren ezaugarri bereziekin zerikusia duen informazioa sartzeko (legedia, berriak, hizkuntza...)

Hirugarrena.– Alderdien betebeharrak.

Hitzarmen hau oinarri hartuta, Behatokiak konpromisook hartuko ditu:

– Euskal Autonomia Erkidegoaren administrazio orokorraren logotipoa jartzea Behatokiaren web atariaren orrialde nagusiko goiko aldean. Logotipo hori Behatokiaren telematika kontuez arduratzen den autonomia-administrazioarekin harremanetan jartzeko link edo lotura izango da.

– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren logotipoa jartzea administrazio horrek ere balidatutako eskuliburu eta gida guztietan.

– Behatokiaren zuzendaritzaz eta euskarri teknikoa eskaintzeaz arduratzea, eta horrekin batera, finantziazioa ere bilatzea, erakunde hori sortzeak, martxan jartzeak eta landuko diren produktuek eragingo dituzten gastuei aurre egiteko.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak konpromisook izango ditu:

– Sortuko diren produktu eta argitalpenak berrikusi eta horien inguruko ekarpenak egitea, betiere erakunde bakoitzak dituen prozedurak jarraituta eta erabakitako epeak errespetaturik.

– Erlijio-aniztasunari eta kudeaketa publikoari buruzko ikerketak sustatzea, euskal autonomia-erkidegoan.

– Irudi korporatiboa jartzea bai web orrian bai hitzarmen honen baitan landuko diren produktuetan, bi aldeek zehaztuko dituzten baldintzetan.

– Emaitzen eta Behatokiaren nahiz horren produktuen edo gomendioen berri alde interesatu guztiei ematea.

– Behatokiaren linka sartzea administrazioaren web orrian.

– Euskarara itzultzea idatziko diren gidak.

Laugarrena.– Hitzarmen berezituak.

Hitzarmen honetan zehaztutakoen artetik akordio berezitu bat behar duten kasu guztietan, hitzarmen berezitua sinatu beharko da.

Bosgarrena.– Izaera Juridikoa eta eztabaidak ebaztea.

Hitzarmen honek izaera administratiboa dauka eta berau interpretatzerakoan, betetzerakoan, aldatzerakoan, bertan behera uzterakoan edo aplikatzerakoan sor litezkeen eztabaidak bi aldeak ados jarrita ebatzi beharko dira. Hori ezinezkoa denean, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrera eramango dira, Jurisdikzio hori arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoari jarraituz.

Seigarrena.– Indarrean sartzea eta indarraldia.

Hitzarmen honek izenpetzen den unetik bertatik izango du indarra, eta urtebetez egongo da indarrean, nahiz eta automatikoki berrituko den; dena den, sinatzaileek bertan behera utzi nahi dutela adierazteko aukera izango dute, baina bi hilabeteko tarteaz, gutxienez.

Azaldutako guztiarekin ados daudela adierazteko, alderdiek hitzarmen hau izenpetu dute, lau kopiatan, goian zehaztutako tokian eta egunean.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

Justizia ministroa,
FRANCISCO CAAMAÑO DOMÍNGUEZ.

IV. ERANSKINA, JAURLARITZAKO IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN MAIATZAREN 18KO 34/2012 EBAZPENARENA

RED.ES ENPRESA-ERAKUNDE PUBLIKOAREN ETA EUSKO JAURLARITZAREN ARTEAN AVANZA PLANEAN JASOTAKO «ERREGISTRO ZIBILA SAREAN» PROGRAMA GARATZEKO EGINDAKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN ERANSKINA

Madril, 2011ko abenduaren 28a.

BILDU DIRA:

Alde batetik, Idoia Mendia Cueva andrea, Justizia eta Herri Administrazioko sailburua. Lehendakariaren maiatzaren 8ko 8/2009 Dekretuaren bidez izendatu zuten sailburu (EHAAn, 86 zenbakian argitaratu zen dekretua, 2009ko maiatzaren 9an) eta Jaurlaritzaren Kontseiluaren baimenarekin dihardu.

Beste aldetik, Red.es Enpresa Erakunde Publikoaren zuzendari nagusia, Carlos Cano Domiguez jauna. Red.es Enpresa Erakunde Publikoaren Estatutua onartzen duen otsailaren 8ko 164/2002 Errege Dekretuarekin bat etorriz, Red.es-eko Administrazio Kontseiluak berari eskuordetu dio jarduteko ahalmena.

Eusko Jaurlaritza eta Red.es, banaka aipatzen direlarik, «aldea» esango dugu, eta biak aipatzen direlarik, «aldeak».

Aldeek eranskin hau izenpetzeko gaitasun juridiko nahikoa aitortzen diote elkarri, eta hauxe

ADIERAZTEN DUTE:

Lehenengoa.– Justizia Ministerioak eta Red.es Enpresa Erakunde Publikoak «Lankidetzarako Esparru Hitzarmena» onartu zuten 2006ko maiatzaren 17an, Avanza Planean jasotako «Erregistro Zibila Sarean» programa martxan jartzeko («Lankidetzarako Esparru Hitzarmena» esango diogu aurrerantzean).

Bigarrena.– Horrekin lotuta, aldeek «Red.es Enpresa Erakunde Publikoaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko aldebiko lankidetza-hitzarmena» onartu zuten 2010eko urriaren 29an, «Avanza Planean jasotako “Erregistro Zibila Sarean” programa garatzeko» («Aldebiko Lankidetza Hitzarmena» esango diogu aurrerantzean).

Hirugarrena.– Aldebiko lankidetza-hitzarmeneko hamaikagarren klausulak hauxe ezartzen du «Aldebiko hitzarmen honen indarraldia» izenburupean:

«Hitzarmen hau sinatzen den unetik hasiko da eragina izaten eta 2010eko abenduaren 31ra arte izango da indarrean, eta, data horretatik aurrera, urtez urte luzatu ahal izango da urtebeteko aldietarako, aldeek horrela adostuz gero».

Laugarrena.– Hitzarmenaren indarraldia 2011ko abenduaren 11 arte luzatzea erabaki zuten aldeek 2010eko azaroaren 10ean egindako Jarraipen Batzordeko bileran.

Bosgarrena.– Proiektuen egoera ikusita eta digitalizazioa eguneratzeko plangintzak oraingo hitzarmenarena baino indarraldi luzeagoa eskatzen duenez, Jarraipen Batzordeak hitzarmena 2012ko abenduaren 31 arte luzatzea erabaki zuen 2011ko irailaren 12an egindako bileran.

Adierazitako guztia kontuan hartuz, aldeek hitzarmenaren eranskin hau sinatzea erabaki dute, ondorengo klausulei men eginez:

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Indarraldiaren luzapena.

Aldebiko lankidetza-hitzarmenaren indarraldia 2012ko abenduaren 31 arte luzatzen da.

Eta, ados daudela adierazteko, aldeek hitzarmenaren eranskin honen bi ale sinatzen dituzte ondorio bakarrerako, goian adierazitako leku eta egunean.

Red.es Enpresa Erakunde Publikoko zuzendari nagusia,
CARLOS CANO DOMÍNGUEZ.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

V. ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN MAIATZAREN 18KO 34/2012 EBAZPENARENA

NIKARAGUA ETA COSTA RICAKO ERREPUBLIKETAKO BOTERE JUDIZIALEN ETA EUSKO JAURLARITZAREN ORDEZKARI-ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZARAKO HITZARMEN-MARKOA

Costa Ricako Botere Judiziala, ekitaldi honetan Justiziako Gorte Gorenaren Presidente Luis Paulino Mora Mora jaunak ordezkatuta –Costa Rica Errepublikako San José hiriko I. zirkuitu judizialeko eraikin nagusian egoitzatua–; Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Justizia eta Herri Administrazio Saileko Sailburu Idoia Media Cueva andrea –Espainiako Euskal Autonomia Erkidegoko Gasteizko hirian Donostia kaleko 1. zenbakian dagoen Eusko Jaurlaritzan egoitzatua–; eta Nikaraguako Justiziako Gorte Gorenaren Presidente Alba Luz Ramos Vanegas doktorea ados jarri dira honako hitzarmen hau sinatzeko jarraian zehazten diren honako klausula hauek onartuta:

Lehenengoa.– hitzarmen-marko honek Costa Ricako Botere Judizialaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Nikaraguako Justiziako Gorte Gorenaren arteko erakundeen arteko lankidetzarako gida-lerro nagusiak eta mekanismoak ezartzea du xedea.

Bigarrena.– Horretarako, ekintza eremu bat ezartzen dute, berdintasunean oinarrituta, lankidetzarako ekimenak eta ekintzak diseinatzeko eta kudeaketa judizialaren arloan informazioa trukatzeko.

Hirugarrena.– Hitzarmenak aldeen helburu instituzionalak betetzen lagundu beharko du eta komunikazio-, koordinazio- eta jarraipen-mekanismo bizkorrak eta iraunkorrak sustatu.

Laugarrena.– Lankidetza-eskaerak posta elektronikoz egingo dituzte bigarren klausulan aipatzen diren gaiez arduratzen diren funtzionarioek, nagusiak jakinaren gainean daudela. Eskaeran berariaz aipatuko da eskatzen den laguntzaren izaera.

Bosgarrena.– Erakundeen arteko lankidetza-hitzarmena denez, eta kudeaketa judizialaren arloan informazioa trukatzeko den heinean, nagusiki posta elektronikoa erabilita, hitzarmenarekin bat egiteak ez dakar inolako aurrekontu-konpromisorik hartu beharrik.

Seigarrena.– Aldeek hitza emanez ziurtatzen dute egiten dituzten kudeaketa judizialari buruzko argitalpenak eta proiektuak posta elektronikoz zabalduko dituztela denak jakinaren gainean egoteko eta informazioa hedatzeko, hau da, Costa Ricako Errepublikako Justizia Administrazioko magistratu, funtzionario eta enplegatuen artean, Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen Justizia Administrazioan, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailburuordetzan eta Nikaraguako Errepublikako Botere Judizialaren magistratu, funtzionario eta enplegatuen artean. Betiere argi jarri beharko da argitalpen eta proiektu horien egilea nor den edota non sortu diren.

Zazpigarrena.– Aldeek ekintza bateratuak, guztientzako interesgarriak diren proiektuak edo kudeaketa judizialari buruzko edozein beste ekimen egin nahi izanez gero, aukera izango dute berariazko hitzarmenak sinatzeko, landu nahi den jardun-eremua bertan zehaztuz. Bestalde, aldeek beren funtzionarioei eskuordetu ahal izango diete berariazko hitzarmenak sinatzeko eginkizuna.

Zortzigarrena.– Sinatzen den egunean bertan sartuko da indarrean hitzarmena, bi (2) urteko iraupena izango du eta automatikoki berriztatuko da bi (2) urterako, baldin eta alderen batek ez badie besteei jakinarazten, modu frogagarrian eta gutxienez hirurogei (60) eguneko aurretiaz, ez

duela hitzarmena berriztatu nahi. Orobat, aldeek eskubidea dute alde batez hitzarmena bertan behera uzteko, eta inongo erantzukizunik hartu beharrik gabe; betiere, modu frogagarrian eta gutxienez laurogeita hamar (90) eguneko aurretiaz.

Bederatzigarrena.– Beste alde batzuk ere atxiki daitezke hitzarmen honetara, kide sinatzaileek ez badute berariaz horren kontrako eragozpenik adierazten. Gerora atxikitzen diren alde berriak hitzarmenari lotutako eranskin batean jasoko dira eta, printzipioz, hitzarmenaren agertuko dira.

Hamargarrena.– Hitzarmen honen legezko eta legez kanpoko ondorioak direla-eta, goiburuan zehaztu ditu alde bakoitzak bere egoitza.

Hiru alde berdin-berdinak sinatu dituzte.

1) Buenos Airesen, 2012ko apirilaren 27an.

ALBA LUZ RAMOS VANEGAS.

Magistratu Lehendakaria.

C.S.J., Nikaraguako Errepublika.

2) Buenos Airesen, 2012ko apirilaren 27an.

LUIS PAULINO MORA MORA.

Magistratu Lehendakaria

C.S.J., Costa Ricako Errepublika.

3) Gasteizen, 2012ko maiatzaren 14an.

IDOIA MENDIA CUEVA.

Justizia eta Herri Administrazio sailburua. Eusko Jaurlaritza.

VI. ERANSKINA, 34/2012 EBAZPENARI (MAIATZAREN 18KOA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIARENA) EGINIKOA

EUROPAKO BATZORDEAREKIN «GRANT AGREMENT» HITZARMENAK; HELBURUA: «+INNOVA CREATIVITY» ETA «REINA» PROIEKTUAK ABIAN JARTZEA ETA FINANTZATZEA

ONURADUN UGARIRENTZAKO EKINTZA BATERAKO LAGUNTZEI BURUZKO AKORDIOA

AKORDIO ZENBAKIA – SI2.612640 - 3/G/ENT /CIP /11/CIN04CO 11

Europar Batasunak (aurrerantzean «Batasuna» esango zaio aukeran), Europako Batzordeak (aurrerantzean «Batzordea» esango zaio aukeran) ordezkatzen duela, hura ere akordioa sinatzeari dagokionez DG Enterprise and Industry enpresako zuzendari nagusi Heinz Zourek jaunak ordezkatzen duela, alde batetik,

eta

Basque Government (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa).
Department of Industry, Innovation, Commerce and Tourism
Planning and Strategy Directorate
Donostia-San Sebastián, 1
Vitoria-Gasteiz 01010
Spain
VA T number: S-4833001-C

aurrerantzean «koordinatzailea» deiturikoak, akordioa sinatzeari dagokionez Plangintza eta Estrategiako zuzendari Inmaculada Freije Obregón andreak ordezkatzen duela

eta honako «baterako onuradun» hauek:

● Euskadiko Energia Kluster Elkartea, Espainian ezarritakoa (2. onuraduna),

● Oe.Energiesparverband, Austrian ezarritakoa (3. onuraduna),

● Merinova, Finlandian ezarritakoa (4. onuraduna),

eta guztiek ere ahalmenak eman dizkiote koordinatzailearen ordezkariari akordioa sinatzeko, kolektiboki «onuradunek» eta, bakoitzak indibidualki «onuradun» gisa identifikatuta akordio honetarako, bertan xedapen bat aplikatuta koordinatzaile edo beste alderdiaren baterako onuradun bat bereizi gabe,

Bestetik,

ADOSTU DUTE:

ondoren bilduriko Baldintza Bereziak, Baldintza Orokorrak eta eranskinak onartzea:

I. eranskina.– Jardueraren deskribapena.

II. eranskina.– Ekintzaren aurrekontu estimatua (bertsio kontsolidatu bat biltzen du, onuradun bakoitzaren arteko gastu eta kobrantzen banantze batekin batera).

III. eranskina.– Koordinatzaileari onuradunaren ahalmenak ematen dizkioten mandatuak, akordio honen («akordioa») zati oso direlarik.

Baldintza Berezietan ezarritakoak lehentasuna izango du akordioaren beste zatien gain.

Baldintza Orokorretan ezarritakoak lehentasuna izango du eranskinetan ezarritakoaren gain.

I.– BALDINTZA BEREZIAK

I.1 artikulua.– Diru-laguntzaren helburua.

I.1.1.– Batzordeak erabaki du diru-laguntza bat esleitzea akordioaren Baldintza Berezietan, Baldintza Orokorretan eta eranskinetan ezarritako baldintzen arabera, eta onuradunek adierazten dute horren jakitun direla eta onartzen dutela ekintza nagusia izango den 'World EU Cluster Initiative in Renewables and Sustainable Energy Intemational Project' ekintzarako («ekintza»).

I.1.2.– Onuradunek diru-laguntza onartzen dute eta konpromisoa hartzen dute beren esku dagoen guztia burutzeko, I. eranskinean deskribaturikoari jarraikiz, beren erantzukizunpean jardunez betiere.

I.2.– artikulua.– Iraupena.

I.2.1.– Azken alderdiak sinatzen duen egunean hasiko da indarrean akordioa.

I.2.2.– Ekintzak 24 hilabeteko iraunaldia izango du 2012-01-09tik aurrera. Beste sei hilabeteko zabalkuntza eman ahalko da behar bezala justifikatzen bada eta akordio amaitu baino gutxienez bi hilabete lehenago eskatzen bada.

I.3 artikulua.– Onuradunen egitekoa.

I.3.1.– Koordinatzaileak:

a) ekintza akordioaren arabera egikarituko dela ziurtatzeko erabateko erantzukizuna izango du;

b) baterako onuradunen eta Batzordearen artean izaten den komunikazio guztiaren bitartekaria izango da, I.8 artikuluaren arabera. Batzordeak akordioari buruz egiten duen edozein erreklamazio koordinatzaileari zuzendu beharko zaio eta hark erantzun beharko du, akordioan aurkakoa zehazki xedatzen ez bada;

c) akordioaren arabera eskatu ahalko diren dokumentu eta informazio guztia Batzordeari emateko arduradun izango da, ordainketa-eskariei dagokienez, bereziki. Koordinatzaileak ez die zeregin horren zatirik eskuordetzan emango baterako onuradunei edo alderdiei. Baterako onuradunei buruzko informazioa eskatzen denean, koordinatzailea izango da hura lortu, egiaztatu eta Batzordeari helarazteko arduraduna;

d) dakien eta ekintzaren egikaritzapenean funtsezko eragina izan dezakeen edozein gorabeheraren berri emango die baterako onuradunei;

e) gastu subentzionagarrien epigrafeen arteko transferentzien berri emango dio Batzordeari, I.4.4 artikuluaren arabera;

f) finantza-bermea edo ekintzan parte hartzen duten onuradunen baterako bermea behar bezala antolatzeaz arduratuko da, hala eskatzen zaionean, I.5 artikuluaren xedapenen arabera;

g) ordainketa-eskariak onuradunen izenean ezarriko ditu, ehuneko zehatza eta onuradun bakoitzari esleituriko diru-kopurua esleituta, akordioan xedaturikoaren arabera, baita II. eranskinaren

araberako kostu subentzionagarri estimatuak eta sorturiko benetako kostuak ere. Batzordearen ordainketa guztiak I.7 artikuluaren 1. paragrafoan adierazitako banku-kontuan/kontuetan egingo dira;

h) ordainketan hartzaile bakarra onuradun guztien izenean hautatzen bada, baterako onuradunei egin beharreko ordainketa guztiak justifikaziorik gabeko atzerapenik gabe egin daitezela ziurtatuko du, I.7 artikuluaren 3. paragrafoan xedaturikoaren arabera eta Batzordeari informazioa emango dio onuradunen arteko Batasunaren finantzaketa-kontribuzioaren banaketari eta transferentzia-datari buruz;

i) auditoriak, kontrola edo ebaluazioak izaten badira, II.20 eta II.6 artikuluetan deskribatutakoari jarraikiz, beharrezko dokumentu guztiak emateko arduradun izango da, baterako onuradunen kontabilitatea, jatorrizko kontabilitate-dokumentuak eta azpikontratuen sinaturiko kopiak barne, onuradunek azpikontraturen bat egin badute, II.9 artikuluan xedaturikoari jarraikiz.

I.3.2.– Onuradunkideek:

a) ekintza behar bezala egiteko xedapen egokiak adostuko dituzte euren artean. Onuradunak lankidetzako barne-akordio bat egin beharko dute aurretik, funtzionamenduari eta barne-koordinazioari buruzkoa. Onuradunak kudeatzeko eta ekintza egikaritzeko beharrezko alderdi guztiak bilduko ditu lankidetza-akordioak;

b) txostenak, egoera-orri finantzarioak eta akordioan emandako beste dokumentu batzuk lantzeko beharrezko datuak igorriko dizkiote koordinatzaileari, akordioaren eranskinak barne;

c) Batzordeari igortzen zaion informazio guztia koordinatzailearen bidez igortzen dela ziurtatuko dute, salbu eta akordioak zehazki kontrakoa xedatzen badu;

d) berehala emango diote koordinatzaileari edozein gorabeheraren berri, betiere ekintzaren egikaritzapenean eragina izan badezake edo hura atzera badezake;

e) gastu subentzionagarrien epigrafeen arteko transferentzien berri emango diote koordinatzaileari, I.4.4 artikuluaren arabera;

f) auditoriak, kontrolak edo ebaluazioak izenez gero beharrezko dokumentu guziak emango dizkiote koordinatzaileari, II.20 eta II.6 artikuluetan deskribaturikoari jarraikiz.

I.4 artikulua.– Kostuen banakapena – Ekintzaren finantziazioa.

I.4.1.– Ekintzaren guztizko kostua 664.792,21 euroan kalkulatu da, II. eranskinaren aurrekontu estimatuan erakusten denez. II.14 artikuluan xedaturikoari jarraikiz Batasunaren finantzaketaren bidez subentzionagarriak diren kostuen, ekintzak eragin dezakeen beste edozein kosturen eta kobrantza guztien banantze xehatua aurkeztuko du aurrekontu estimatuak, betiere kobrantzak eta kostuak konpentsatuta, truke-tasako aldakuntza posibleen disposizioak kanpo.

II. eranskinaren aurrekontu estimatuak taula bat bilduko du, onuradun bakoitzaren artean kalkulaturiko kostu eta kobrantza subentzionagarrien banantzea adieraziko duena. Onuradun guztiek elkarrekin adostuko dute taularen edukia eta akordioaren aurrekontu estimatuaren zati osotzat hartuko da.

I.4.2.– Ekintzaren guztizko kostu subentzionagarriak 664.792,21 euroan kalkulatzen dira, honako epigrafe/gastu-partida hauei dagozkienak, II. eranskineko aurrekontu estimatuan erakusten denez, II.14 artikuluan ezarritako subentzionagarritasun-baldintzak aplikatuta:

Zuzeneko guztizko kostu subentzionagarrien % 7ko gehieneko ehuneko finkoan dira subentzionagarriak zeharkako kostuak, II.14.3 artikuluan xedaturiko baldintzen mende.

I.4.3.– Batzordeak 531.788 euroko gehieneko kontribuzioa egingo du, 2 paragrafoan adierazitako guztizko kostu subentzionagarrien % 79,99aren baliokide Eusko Jaurlaritza koordinatzaileari esleituriko EBren finantza-ekarpenaren % 40ko gehienekoarekin, eta koordinatzailearen herrialde edo eskualde berean (Espainia) dauden beste onuradun batzuk, Euskadiko Energia Kluster Elkartea, gehienez ere 211.995,64 euroko diru-kopurura iritsita. Diru-laguntzaren azken kopurua II.17 artikuluan zehazturikoari jarraikiz zehaztuko da, II.19 artikulua bazter utzi gabe.

Batasunaren diru-laguntzak ezin ditu kostu guztiak finantzatu. Batasunaren funtsetatik aparteko baterako finantzaketako diru-kopuru eta iturriak 1. paragrafoan adierazitako aurrekontu estimatuan jaso beharko dira.

I.4.4.– II.13 artikuluan xedaturikoa gorabehera, ekintzak irauten duen bitartean, koordinatzaileak eskatu ahalko du, baterako onuradunekin adostuta, aurrekontu estimatua doitzeko kostu subentzionagarrien epigrafeen arteko transferentzia bidez, betiere gastu-doikuntza horrek ekintzaren egikaritzapena eraginpean hartzen ez badu eta epigrafeen arteko transferentziak 2. paragrafoan adierazitako kostu subentzionagarrien guztizkoaren % 10a gainditzen ez badu. Gutun ziurtatu bidez eskatuko du doikuntza hori koordinatzaileak, jaso izanaren agiriarekin edo baliokidearekin, Batzordeari zuzendurikoa, eta hark beretzat gordeko du eskaria jaso zen egunetik 20 eguneko epean atzera botatzeko eskubidea. 20 egun igarotakoan, onartutzat joko da eskaria.

I.5 artikulua.– Ordainketa modalitateak.

I.5.1.– Aurrefinantzaketa.

Azken alderdiak akordioa sinatu duen egunari dagozkion 45 egunen barruan 106.357,60 euroko aurrefinantzaketa-ordainketa egingo zaio koordinatzaileari. I.4.3 artikuluan zehazturiko diru-kopuruaren % 20a izango da ordainketa hori.

I.5.2.– Bitarteko ordainketa.

Txostenak aurkezteko aldi bakoitza amaitzean bitarteko ordainketa eskatzeko eskubidea du koordinatzaileak. Tarteko ordainketako edozein eskarirekin batera egikaritzapen teknikoaren tarteko txosten bat eta egoera-orriak aurkeztu beharko dira, egoera-orri kontsolidatu bat eta erabiltzaile bakoitzaren arteko banantzea barne, II.15 artikuluan zehazturikoari jarraikiz, baita erabiltzaile bakoitzeko ekintzaren egoera-orri finantzarioen auditoria-ziurtagiria ere.

Batzordeak 45 egun izango ditu egikaritzapen teknikoko txostena onartzeko edo atzera botatzeko edo justifikazio-dokumentuak edo informazio gehigarria eskatzeko, II.15.3 artikuluan ezarritako prozeduraren arabera. Kasu horretan, koordinatzaileak 30 egun izango ditu eskaturiko informazio osagarria edo beste txosten bat entregatzeko.

Tarteko ordainketaren diru-kopurua benetan egindako kostu subentzionagarrien gain egingo da, tarteko egoera-orrian erakusten denez, eta Batzordeak baliozkotuko du. I.4.3 artikuluan zehazturiko Batasunaren diru-laguntza ehunekoa aplikatuko zaio ordainketa horri.

Bitarteko ordainketak ez du inoiz ere onuradun bakoitzeko kostu subentzionagarrien 1.4.3 artikuluan zehazturiko diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoaren % 50a gainditukо. Azken tarteko ordainketaren koordinatzaileari aldez aurretik ordainduriko edozein aurrefinantzaketaren diru-kopuruaren % 50a deduzituko da.

Tarteko ordainketako eskariarekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak Batzordeak onartzen dituenetik 45 eguneko epearen barruan egin beharko zaio tarteko ordainketa hori koordinatzaileari.

Batzordeak ordainketaldia eten dezake II.16.2 artikuluaren prozeduran xedaturikoaren arabera.

I.5.3.– Saldoaren ordainketa.

Saldoaren ordainketa-eskariarekin batera egikaritzapen teknikoari buruzko azken txostena eta egoera-orri finantzarioak aurkeztu beharko dira, egoera-orri kontsolidatu bat eta erabiltzaile bakoitzaren arteko banantzea barne, II.15.4 artikuluan zehazturikoari jarraikiz.

Batzordeak 45 egun izango ditu egikaritzapen teknikoko txostena onartzeko edo atzera botatzeko edo justifikazio-dokumentuak edo informazio gehigarria eskatzeko, II.15.4 artikuluan ezarritako prozeduraren arabera. Kasu horretan, koordinatzaileak 30 egun izango ditu eskaturiko informazio osagarria edo beste txosten bat entregatzeko.

Diru-laguntzaren saldoa biltzen duen ordainketa egingo zaio koordinatzaileari II.17 artikuluan xedaturikoaren arabera zehazturikoa, saldoaren ordainketa-eskariarekin batera ordaindu beharreko egikaritzapen teknikoko txostena Batzordeak onartu eta hurrengo 45 egunen barruan betiere. Saldoaren azken ordainketaren koordinatzaileari aldez aurretik ordainduriko edozein aurrefinantzaketaren diru-kopuruaren % 50a deduzituko da.

Batzordeak ordainketaldia eten dezake II.16.2 artikuluaren prozeduran xedaturikoaren arabera.

I.6 artikulua.– Txostenak eta beste dokumentu batzuk entregatzea.

Egikaritzapen-txosten teknikoak, egoera-orri finantzarioak eta I.5 artikuluan aipaturiko beste dokumentu batzuk entregatu beharko ditu koordinatzaileak adosturiko hizkuntzak eginiko kopian honako data hauetan:

● Egikaritzapen teknikoaren tarteko lehen txostena eta egoera-orri finantzarioa, egoera-orri kontsolidatu bat eta erabiltzaile bakoitzaren arteko banantzea bilduta: txostenaren aldiaren amaieratik 45 egun, estalitako hilabeteak 1etik 12ra;

● Egikaritzapen teknikoaren tarteko bigarren txostena eta egoera-orri finantzarioa, egoera-orri kontsolidatu bat eta erabiltzaile bakoitzaren arteko banantzea bilduta: txostenaren aldiaren amaieratik 45 egun, estalitako hilabeteak 13tik 24ra;

● egikaritzapen teknikoaren tarteko bigarren txostena eta egoera-orri finantzarioa, egoera-orri kontsolidatu bat eta erabiltzaile bakoitzaren arteko banantzea bilduta: txostenaren aldiaren amaieratik 45 egun, estalitako hilabeteak 1etik 24ra.

I.7 artikulua.– Banku kontua.

I.7.1.– Ordainketa guztiak eurotan egingo dira, koordinatzailearen banku-kontuan edo -azpikontuan dagokion kopurua sartuta.

I.7.2.– Batzordeari eginiko ordainketak identifikatu behar ditu kontu edo azpikontu horrek. Gainera, kontu edo azpikontu horretara ordainduriko funtsek interes edo mozkin baliokideak sortuko dituzte kontuan ireki den lurraldea biltzen duen Estatuaren legeriaren arabera. Interes edo mozkin horiek deduzitu egingo dira, I.7.3 artikuluan xedaturiko atzerapenaren amaieran baterako onuradunei transferitu gabeko aurrefinantzaketako partaidetzaren edo II.16.4 artikuluan xedaturikoaren arabera Batzordeak berreskuratzearen ondorioz sortu badira betiere.

I.7.3.– I.7.1 artikuluan adierazitako banku-kontuan diru-sarrera egin den egunetik hasi eta 30 eguneko epean, koordinatzaileak onuradun bakoitzari transferitu beharko dizkio ekintzan izan duen partaidetzari dagozkion diru-kopuruak, kostu estimatuen proportzioan izan duten partaidetzaren arabera, II. eranskinaren banantzean definitutakoari jarraikiz, ordainketak egindakoan, eta benetan egindako baliozkotutako kostuetan izandako partaidetza beste ordainketa batzuk egiten direnean.

I.8 artikulua.– Administrazio xedapen orokorrak.

I.8.1.– Akordioari buruz Batzordeari zuzenduriko edozein komunikazio idazki bidez egingo da, akordioaren zenbakia adierazita, eta honako helbide honetara igorri beharko da:

European Commission
Directorate-General Enterprise and Industry
Direetorate Industrial Innovation and Mobility Industries
Unit D.2 Support for Industrial Innovation
1049 Brussels, Belgium
Helbide elektronikoa: INDUSTRIAL-INNOVATION.SUPPORT@ec.europa.eu

I.8.2.– Batzordeak mezu arrunt bat jaso duela Batzordearen unitatearen lehen adierazitako arduradunak formalki erregistratzen duen datan hartuko da kontuan. Mezu elektroniko bat jaso den datan hartuko da jasotakotzat. Dena den, onuradunak erantzuna jasotzen badu mezua beste helbide batera berriz bidali dezan eskatuz, ez da jasotakotzat kontuan hartuko mezua behar bezala jasotzen ez den bitartean.

I.8.3.– Batzordeak koordinatzaileari edota baterako onuradunei, eta alderantziz, egiten den edozein komunikazio idazki bidez egingo da koordinatzailearen eskutik, salbu eta akordioan aurkakoa zehazten bada. Komunikazioan akordioaren zenbakia adieraziko da eta honako helbide honetara igorriko da:

Inmaculada Freije Obregón andrea
Plangintza eta Estrategiako zuzendaria
Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila
Eusko Jaurlaritza (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioa)
Donostia-San Sebastián, 1
Vitoria-Gasteiz 01010
Espainia
E-mail: ifreije@ej-gv.es

I.8.4.– Onuradunaren edozein helbide-aldaketa Batzordeari jakinarazi behar zaio idazki bidez.

I.9 artikulua.– Legeria aplikagarria eta auzitegi eskuduna.

Akordioaren beraren, Batasunaren araudi aplikagarriaren eta, modu subsidiarioan, diru-laguntzei buruzko Belgikako legeriaren arabera eraenduko da akordioa.

Akordioaren xedapenen aplikazioari eta horiek aplikatzeko modalitateei buruzko Batzordearen erabakiei buruzko jardun judizialak jar ditzake onuradunak Europar Batasuneko Auzitegi Nagusian, eta apelazioa bada, Justizia Auzitegian.

I.10 artikulua.– Finantza erantzukizuna.

II.18 artikuluan xedaturikoa gorabehera, onuradunaren edozein erreklamaziok ez du gaindituko kontratuaren arabera gainditzeko eskubidea duen kontribuzioa.

I.11 artikulua.– Datuen babesa.

Akordioan bilduriko datu pertsonal guztiak, akordioaren egikaritzapena barne, edo akordioarekin loturikoak, Erkidegoko instituzio eta erakundeek egiten duten datu-tratamenduarekiko gizabanakoen babesari eta datu horiek zirkulazio askeari buruz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EC) 45/2001 zenbakiko Erregelamenduan xedaturikoaren arabera prozesatuko dira. ENTR/D2ren bidez tratatuko dira soilik datu horiek akordioa aplikatzeko eta haren jarraipena egiteko, aparte utzi gabe datuak barne-auditoretzako zerbitzuei, Auditoreen Epaimahaiari, Finantza Irregularlasunen Panelari edota Iruzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoari (OLAF) transmititzeko aukera, Batasunaren finantza-interesak zaintze aldera.

Onuradunek beren datu pertsonalak baliatu ahalko dituzte, aurretik idazki bidez eskatuta, eta okerrekoa edo osatu gabea den edozein informazio zuzendu. ENTR/D2ri zuzendu beharko diote beren datu pertsonalei buruzko edozein galdera. Beren datuen tratamenduaren aurkako erreklamazioa aurkez diezaiokete onuradunek datuak babesteko europar gainbegiratzaileari betiere.

I.12 artikulua.– Beste baldintza berezi batzuk.

Akordio honekiko osagarriak diren honako baldintza berezi hauek aplikatuko dira:

I.12.1.– Monetak eurotan aldatzeko aplikagarria den truke-tasa.

Koordinatzaileak ordainketa-eskariak eurotan igorri beharko ditu I.5 artikuluan xedaturikoari jarraikiz, azpiko egoera-orri finantzarioak barne. II.16.1 artikuluan xedaturikoa gorabehera, benetako gastuak eurotara aldatzeko Batzordeak ezarritako hileko kontabilitate-tasa erabiliko du betiere, Batzordearen beraren webgunean argitaraturikoa eta dagokion gastu-aitorpenak estalitako aldiaren hurrengo hilabeteko lehen lanegunetik indarrean dagoena. Ez da truke-tasaren irabazi edo galerarik kontuan hartuko gastu-aitorpena ezarri denetik dagokion ordainketa jaso artean igarotako denboran.

I.12.2.– Egikaritzapen-kontratuak.

Xedapen Orokorren II.9 artikuluaren xedapenei jarraikiz esleituriko eskuratze-kontratuaren balioak 60.000 euroko muga gainditzen badu, araudia bete beharko dute onuradunek, baita II.9 artikuluan bilduriko xedapenak ere, hau da, Europako Erkidegoen aurrekontu orokorrari aplika dakiokeen Finantza Erregelamenduan bilduriko eskuratzeei buruzko artikuluan bildurikoak.

I.12.3.– BEZa berreskuratzea.

II.16.4 artikuluari jarraikiz, onuradun batek BEZa ezin duela berreskuratu frogatu beharko du agintaritza fiskal eskudunak emandako dokumentu bidez, bertan argi eta garbi adierazita onuradunak ez duela BEZa berreskuratzeko eskubiderik.

I.12.4.– Komunikazioa eta kontribuzioak.

Ekintzaren jardueren onurak maximizatzeko, European Cluster Observatory erakundeak ezarritako European Cluster Collaboration Platform (ECCP) organoaren babesa baliatuko da. Ekintzaren aplikazioaldian, I.2.2 artikuluan definitutakoan, koordinatzaileak ziurtatuko du, halaber, onuradun guztiek ECCP logoa erabiliko dutela kontratu-betebeharrekin loturiko beren jardueretan. Gainera, ekintzaren emaitza guztiek Europako Batzordeak emandako baterako finantzaketa onetsiko dute eta haren erreferentzia bat bilduko dute, diru-laguntza akordioaren aldian zehar eta aldiaren ondoren.

I.3.1 artikuluaz gain, koordinatzaileak ziurtatu behar du ekintzak kontribuzio erregularra egin diola (gutxienez hilean behin) material egokiarekin eta dagozkion emaitza eta gomendioekin European Cluster Collaboration Platform (ECCP) organoari eta organo horrek antolaturiko ekitaldi eta tailerretako parte-hartzaileei, baita PRO INNO Europe® ekimenari ere. Ekintzak garaturiko dagokion informazio guztiak ECCPren irudia emango du eta ECCPri eskainitako atarietako orrien bidez zabalduko da.

I.12.5.– Tarteko berrikuspena.

Diru-laguntza honen helburuak lortzeko, eta II.6 artikuluaz gain, tarteko berrikuspen bat antolatuko du Batzordeak ekintzaren iraunaldiaren lehenengo erdiaren ondoren, ekintzaren erdian buruturiko lana ebaluatzeko. Batzordearen zerbitzuengatik edo Batzordeak hautaturiko kanpoko adituen laguntzarekin soilik burutuko ahalko da berrikuspena. Proiektuak igorritako material idatzian soilik (txostenak eta emaitzak) oinarri daiteke berrikuspena, edo proiektuaren ordezkariarekin entzunaldi- edota berrikuspen-prozedura bat ere inplika dezake. Proiektuaren errendimendu-adierazleak aztertuko ditu berrikuspenak eta proiektuaren lan-planaren betetze-maila ebaluatuko du. Berrikuspenaren emaitzak hurrengo aldiaren lanerako ekintzaren plangintzan kontuan hartu beharreko gomendio tekniko batzuk bil ditzake. Berrikuspenaren ondorioz proiektua adierazitako helburuetatik desbideratu dela uste izateko arrazoiren bat baldin badago edo, nolabait ere, beste helburuak lortzeko gai ez bada, berrikuspenaren emaitzak eragin dezake Batzordearen finantza-laguntzaren jarraitutasuna ekintzaren ikuspegi berri batek baldintzatzea aldaturiko helburuei dagokienez, edo ekintzaren zati bat edo ekintza bera osorik etetea gomenda dezake. Batzordea beretzat gordetzen du, halaber, diru-laguntza akordioa azkentzeko eskubidea, II.11.3 artikuluan xedaturikoari jarraikiz.

II.– BALDINTZA OROKORRAK

A ZATIA.– LEGE ETA ADMINISTRAZIO XEDAPENAK

II.1 artikulua.– Erantzukizuna.

II.1.1.– Eraginpean hartzen dituen edozein lege-betebehar betetzeko arduradun izango dira onuradunak.

II.1.2.– Batzordea ez da inoiz arduradun izango, edozein zirkunstantzia edo arrazoirengatik bada ere, erreklamazio bat izaten bada, ekintzaren egikaritzapenean eragindako edozein kalteri buruzko akordioaren arabera. Horrenbestez, Batzordeak ez du onartuko erreklamazio horrekin batera aurkezturiko kalte-ordaineko edo itzulketako eskaerarik.

II.1.3.– Ezinbesteko kasuetan izan ezik, Batzordeak ekintzaren egikaritzapenaren edo okerreko egikaritzapenaren ondorioz jasandako edozein kalte hartuko dute beren gain onuradunek.

II.1.4.– Onuradunek arduradun bakarrak izango dira hirugarren alderdiekiko, egikaritzen ari den ekintzan eurek jasako edozein motatako kalte ere barne.

II.2 artikulua.– Interes gatazka.

II.2.1.– Akordioaren errendimendu inpartzial eta objektiboa eraginpean har dezakeen interes-gatazkako edozein arrisku saihesteko beharrezko neurriak hartzeko konpromisoa hartzen dute onuradunek. Interes ekonomikoek, afinitate politiko edo nazionalak, familia-arrazoi edo arrazoi emozionalek edo beste edozein interes partekatuk bultzatuta sor daiteke interes-gatazka hori.

II.2.2.– Akordioaren egikaritzapenen gatazka bat izan daitekeen edo eragin dezakeen edozein egoeraren berri eman behar zaio Batzordeari, idazki bidez eta atzeratu gabe. Onuradunek egoera hori berehala zuzentzeko beharrezkoa den edozein neurri hartzeko konpromisoa hartzen dute.

II.3 artikulua.– Emaitzen jabetza/erabilera.

II.3.1.– Akordioan besterik xedatzen ez bada, onuradunei emango zaie ekintzaren emaitzen jabetza, jabetza intelektual eta industrialeko eskubideak, txostenetako edozein eta jabetzari buruzko beste dokumentu batzuk barne.

II.3.2.– 1 paragrafoa aparte utzi gabe, ekintzaren emaitzak nahi bezala erabiltzeko aukera ematen diote onuradunek Batzordeari egoki iritzitako moduan, betiere ez badituzte beren betebeharrak bete gabe uzten konfidentzialtasunari edo egungo jabetza intelektual eta industrialeko eskubideei dagokienez.

II.4 artikulua.– Konfidentzialtasuna.

Batzordeak eta onuradunek konfidentzialtasuna gordeko dute konfidentzial gisa sailkatutako agiri edo informazio ororen inguruan, baita, akordioaren xedearekin zuzenean lotuta egonik konfidentzialtzat jo izan den edozein materialen inguruan ere, baldin eta horren hedapena beste alderdiarentzat kaltegarri gerta badaiteke. Ekintza amaitu ondoren ere, betebehar hori loteslea izango da alderdientzat.

II.5 artikulua.– Publizitatea.

II.5.1.– Batzordeak aurkakoa eskatzen ez badu, ekintzari buruzko onuradunen edozein komunikazio edo argitalpen kolektibok edo onuradunen arteko edozeinek indibidualki egindakoak, hitzaldi edo mintegi batean emandakoak barne, ekintzak Batasunaren finantzaketa izan duela adieraziko du.

Onuradunen edozein komunikazio edo argitalpen kolektibok edo onuradunen arteko edozeinek indibidualki edozein formatan edo bitartekotan egindakoak erantzukizun guztia egilearena dela adieraziko du eta Batzordeak ez du bere gain hartzen horietan bilduriko informazioarekin egin daitekeen erabileraren erantzukizuna.

II.5.2.– Onuradunek Batzordeari baimena ematen diote honako informazio hau edozein formatutan edo bitartekotan argitaratzeko, Internet ere horien artean bilduta:

• onuradunen izenak eta helbideak,

• diru-laguntzaren gaia eta helburua,

• emandako diru-kopurua eta finantzaketan estalitako ekintzaren guztizko kostuaren proportzioa.

Koordinatzailearen arrazoizko eta behar bezala oinarrituriko eskaria tarteko, Batzordeak publikotasun hori onartzeari uko egin ahalko dio lehen adierazitako informazio horren zabalkuntzak onuradunen segurtasuna arriskuan jar badezake edo haien merkataritza-interesei kaltea eragin badiezaieke.

II.6 artikulua.– Ebaluazioa.

Batzordeak betiere Batasunaren dagokion programaren helburuekiko batez besteko ekintzaren inpaktuaren tarteko edo azken ebaluazio bat burutzen badu, koordinatzaileak, baterako onuradunen laguntzarekin, konpromisoa hartzen du Batzordeari edota Batzordeak berak baimenduriko pertsonei

dokumentu edo informazio hori guztia emateko, ebaluazioa burutzeko beharrezkoa den formatu elektronikoko informazioa barne, eta II.20 artikuluan zehazturiko sarbide-eskubideak emateko.

II.7 artikulua.– Etetea.

II.7.1.– Koordinatzaileak, baterako onuradunekin adostuta, ekintzaren egikaritzapena eten dezake ezohiko zirkunstantziek ezinezko edo oso zail egiten badute, batez ere ezinbesteko kasuetan. Atzeratu gabe emango dio informazioa koordinatzaileak Batzordeari, beharrezko arrazoi eta xehetasun guztiak emanda, baita berriz hasteko aurreikusitako data ere.

II.7.2.– Batzordeak akordioa II.11.3 artikuluari jarraikiz desegiten ez badu, hasiera batean planifikaturikoaren arabera ekingo diote berriz ere onuradunek ekintza egikaritzeari, zirkunstantziek ahalbidetzen dutenean, eta ondoren, horri buruzko informazioa emango dio Batzordeak koordinatzaileari. Etenaldiaren besteko denboraz zabal daiteke ekintzaren iraunaldia. II.13 artikuluan xedaturikoaren arabera, kontratu idatzi osagarri bat egingo da ekintzaren iraupena zabaltzeko eta ekintza egikaritzapenaren baldintza berrietara egokitzeko beharrezkoak izan daitezkeen zuzenketak egiteko.

II.8 artikulua.– Ezinbesteko kasuak.

II.8.1.– Ezinbestekotzat hartuko da ustekabeko edozein ezohiko egoera edo alderdien kontroletik haratago doan gertakizun bat euren betebeharrak betetzea saihesten badie akordioaren arabera, betiere alderdiei akatsa edo zabarkeria leporatu ezin bazaie eta egoera gaindiezina bada, behar bezalako arduraz jardunda ere. Ez-betetzean erortzen den alderdiak ezin ditu ekipoetako edo materialeko okerrak, horiek baliatzeko atzerapenak (salbu eta ezinbesteari zor bazaio), lan-eztabaidak, grebak eta finantza-zailtasunak argudiatu ezinbestetzat.

II.8.2.– Ezinbestean dagoen alderdiak beste alderdiari atzerapenik gabe emango dio egoeraren berri jaso izana frogatzen duen agiria edo baliokidea biltzen duen gutun ziurtatuarekin, izan dezakeen iraupena eta aurreikus daitezkeen ondorioak adierazita.

II.8.3.– Ezinbestean dagoen alderdiak ez ditu bere betebeharrak bete gabe utziko akordioaren arabera horiek betetzea ezinbestean ezinezkoa bazaio. Alderdiek ahal den guztia egingo dute ezinbesteak eragindako edozein kalte minimizatzeko.

II.8.4.– Ekintza eten ahalko da II.7 artikuluan xedaturikoaren arabera.

II.9 artikulua.– Kontratuen esleipena.

II.9.1.– Onuradunek ekintza burutzeko kontratuak egin behar badituzte eta horiek ekintzaren kostuen zati badira, eta kostu horiek aurrekontu estimatuaren zuzeneko kostu subentzionagarrien partida batean bilduta badaude, kalitate-kostu erlazioa onena eskaintzen duen eskaintzari esleituko diote kontratua[1]. Hori egitean, edozein interes-gatazka saihesteko ardura izan beharko dute.

II.9.2.– 1. paragrafoak aipatzen dituen kontratuak honako kasu hauetan soilik esleitu ahalko dira:

a) Ekintzaren zati mugatu bat soilik estali dezakete;

b) kontratuen esleipena baliatzea justifikatu egin behar da ekintzaren izaera eta ekintza bera abiarazteko beharrezko dena kontuan izanda;

1 Kontratuen balioak 60.000 euroko muga gainditzen duenez, sailek xedapenak sartu ahalko dituzte «Bestelako Baldintza Berezietan», aplikatzekoak diren berariazko prozedura-arauetan, Finantza Erregelamenduan agertzen direnetan oinarriturikoak, kontratuaren balio estimatua, Batasunaren kontribuzioaren tamaina erlatiboa eta kudeaketa-arriskua kontuan izanda.

c) dagozkion zereginak I. eranskinean aurreikusi behar dira eta dagozkion kostu estimatuak xehetasunez aurreikusi behar dira II. eranskinaren aurrekontuan;

d) ekintzaren egikaritzapenean kontratuen esleipenari jartzen zaion edozein errekurtso, horren inguruan hasierako diru-laguntza eskaeran ezer xedatu ez bada, Batzordearen aldez aurreko baimen idatziaren mende egongo da;

e) onuradunak izango dira ekintza burutzeko eta akordio honetako xedapenak betetzeko onuradun bakarrak. Onuradunek konpromisoa hartu behar dute dagozkion gestio guztiak egiteko kontratistak akordioaren arabera Batzordearekiko dituen eskubide guztiei uko egingo diela ziurtatzeko;

f) onuradunek konpromisoa hartu behar dute akordioaren II.1, II.2, II.3, II.4, II.5, II.6, II.10 eta II.20 artikuluetan xedaturikoaren arabera aplika dakizkiekeen baldintzak kontratistari ere aplikagarriak zaizkiola ziurtatzeko.

II.10 artikulua.– Lagapena.

II.10.1.– Batzordeak egiten dituen ordainketa-erreklamazioak ezin izango dira transferitu.

II.10.2.– Ezohiko zirkunstantzietan, egoerak justifikatzen duenean, akordioaren, edo akordioaren zati baten, lagapena baimendu ahalko du Batzordeak hirugarren zati bati, baita akordiotik eratorritako ordainketak ere, koordinatzailearen horretarako egindako eskari idatziaren ondoren, arrazoiak emanda eta betiere baterako onuradunekin adostuta. Batzordeak onartzen badu, koordinatzaileari jakinarazi beharko dio, idazki bidez, akordio hori proposaturiko lagapena gauzatu baino lehen. Lehen adierazitako baimenik ez badago, edo kontratuan bildurikoa betetzen ez bada, lagapena ez da aplikagarria izango, eta ez du eraginik izango Batzorderako.

II.10.3.– Lagapen horrek ez ditu onuradunak Batzordearekiko beren betebeharretatik libratuko ezein zirkunstantziatan ere.

II.11 artikulua.– Akordioa hutsaltzea.

II.11.1.– Koordinatzaileak eragindako hutsaltzea.

Behar bezala justifikaturiko kasuetan, koordinatzaileak, onuradunekin adostuta, onuradunen diru-laguntza eskaria atzera bota ahalko du eta akordioa edozein unetan hutsaldu, 60 eguneko aurreabisua biltzen duen idazki bidez jakinarazpena tarteko, arrazoiak azalduta, eta ez zaio inolako kalte-ordainik eskatuko.

Arrazoiak azaltzen ez badira edo Batzordeak arrazoiak onartzen ez baditu, akordioa irregularki hutsaldutzat joko da, 5 paragrafoaren bosgarren tartekian aurreikusitako ondorioekin.

II.11.2.– Onuradun baten partaidetza hutsaltzea.

Behar bezala justifikaturiko kasuetan, onuradun baten partaidetza hutsaltzeko eskatuko ahalko du koordinatzaileak 60 eguneko aurreabisua biltzen duten idazki bidezko jakinarazpena tarteko. Koordinatzaileak arrazoiak bilduko ditu partaidetza amaitutzat emateko, baita partaidetza eskatzen zaion onuradunaren iritzia ere. Batzordeari eginiko eskari horren bidez, lehen adierazitako onuradunaren zereginak berriz esleitzeko gainerako onuradunen proposamena bilduko da, edo, hala badagokio, ordezko bat izendatzekoa.

Behar bezala justifikaturiko datuetan, edozein onuradunek eska dezake akordioko bere partaidetza bertan behera uztea edo etetea. Koordinatzaileak Batzordeari igorriko dio bere eskaria arrazoiak azalduz, idazki bidez jakinarazpena tarteko, 60 eguneko aurreabisuarekin.

Arrazoiak azaltzen ez badira edo Batzordeak arrazoiak onartzen ez baditu, akordioa irregularki hutsaldutzat joko da, 5 paragrafoaren bosgarren tartekian aurreikusitako ondorioekin.

Dagokion onuradunaren partaidetzaren etetea Batzordeak onartzen duenetik hasiko da indarrean. Akordio idatzi gehigarri bat egingo da beharrezko zuzenketak gauzatzeko ekintza etete partzialetik eratorritako baldintza berrietara egokitzeko.

II.11.3.– Batzordeak eragindako hutsaltzea.

Batzordeak akordioa edo ekintzan parte hartzen duen onuradun baten edo parte hartzen duten hainbaten partaidetza hutsaltzeko eskatu ahalko du inola kalte-ordainik eman gabe, honako zirkunstantzia hauetan:

● onuradunaren legezko egoeran edo egoera finantzario, tekniko, antolamenduzko edo jabetzakoan aldaketa bat izaten bada, betiere akordioa funtsean eraginpean hartzen badu edo diru-laguntza esleitzeko erabakia zalantzan jartzen badu;

● onuradun bat funtsezko betebehar bat bete gabe uzten badu, akordioak bildurikoaren arabera bera eraginpean hartzen badu, akordioaren eranskinak barne;

● ezinbestean, II.8 artikuluan xedaturikoaren arabera jakinarazita, edo ekintza ezohiko zirkunstantzien ondorioz eten bada, betiere II.7 artikuluan xedaturikoaren arabera jakinarazitakoen ondorioz;

● onuraduna kiebra-egoeran badago, edo likidazio-egoeran, administrazio judizialean, hartzekodunen konkurtsoan, bere merkataritza-jarduerak eten baditu, gai horiek loturiko beste edozein prozeduraren pean badago eta nazio osorako erregelamendu edo legerietan aurreikusitako antzeko prozedura batetik eratorritako antzeko egoera batean badago;

● Batzordeak frogak edo susmo sendoak baditu onuradunak, erakundeak edo loturiko pertsonak egindako hutsegite profesional larrien inguruan;

● onuradunak bere betebeharrak bete ez baditu Gizarte Segurantzari egin beharreko bere kontribuzioen edo ordainketaren edo ezarrita dagoen herrialdearen legezko xedapenen araberako zergen ordainketaren inguruan;

● Batzordeak frogak edo susmo sendoak baditu onuraduna edo loturiko beste edozein erakunde edo pertsona iruzurrean, ustelkerian, erakunde kriminal batean edo Batasunerako finantza-interesak kaltetzen dituen legezkoa ez den beste edozein jardueratan sartuta dagoela;

● Batzordeak frogak edo susmo sendoak baditu onuradunak edo loturiko beste edozein erakunde edo pertsonak funtsezko akatsak, irregulartasunak edo iruzurra egin duela diru-laguntza esleitzeko edo egikaritzeko prozeduretan;

● onuradunak aitorpen faltsuak egin baditu edo errealitatearekin uztartzen ez diren txostenak aurkezten baditu akordioan emandako diru-laguntza lortzeko.

Aurreko (e), (g) eta (h) puntuetan aipatzen diren kasuetan, edozein pertsona fisikok esan nahi du onuradunarekiko ordezkaritzako, erabakiak hartzeko eta kontrolatzeko ahalmenak dituen edozein pertsona fisiko. Loturiko edozein erakundek esan nahi du 1983ko ekainaren 13ko 83/349/EEC zenbakiko Kontseiluaren Zazpigarren Zuzentarauaren 1. artikuluan aurreikusitako irizpideak betetzen dituen edozein erakunde.

II.11.4.– Hutsaltzeko prozedura.

Jaso izana frogatzen duen agiria edo baliokidea biltzen duen gutun ziurtatuekin hasten da prozesua. Onuradun guztiak behar bezala informatuta daudela ziurtatuko du koordinatzaileak.

Aurreko (a), (b), (d), (e), (g) eta (h) puntuetan bilduriko kasu guztietan, koordinatzaileak, onuradunekin kontsulta egin ondoren, 30 egun izango ditu oharrak aurkezteko eta akordioaren arabera onuradunen betebeharrak modu jarraituan betetzen direla ziurtatzeko beharrezko irizten duen edozein neurri hartzeko. Batzordeak ez badu ohar horiekin onarpena berresten oharrak jaso eta hurrengo 30 egunen barruan gauzaturiko onarpen idatziaren bidez, bere bidea jarraituko du hutsaltzeko prozedurak.

Aurreabisua eman bada, abisualdia amaitzean izango du eragina hutsalketak, eta aldi hori akordioa edo onuradun baten partaidetza hutsaltzeko Batzordeak hartuko erabakiaren jakinarazpena jartzen den datan hasiko da.

Aurreko (c), (f) eta (i) puntuetan bilduriko kasuetan aurreabisua ematen bada, akordio edo onuradun baten partaidetza hutsaltzeko Batzordeak harturiko erabakiaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik izango du eragina hutsalketak.

II.11.5.– Hutsalketaren ondorioak.

Akordioa hutsaltzen bada, hutsalketak eragina izan duen egunera arte onuradunek benetan egindako kostu subentzionagarrietara mugatuko dira Batzordearen ordainketak, II.17 artikuluan xedaturikoaren arabera. Akordioa hutsaldu ondoren arte egikaritu behar ez diren egungo konpromisoekin loturiko kostuak ez dira kontuan hartuko.

60 egun izango ditu koordinatzaileak akordioaren hutsalketak eragina izan duen datatik, Batzordeak jakinarazitakoaren arabera, azken ordainketako eskari bat egiteko II.15.4 artikuluan xedaturikoaren arabera. Denbora-muga horren barruan ez bada azken ordainketako eskaririk jasotzen, Batzordeak ez ditu onuradunek hutsalketa-datara arte egindako gastuak itzuliko eta zenbateko osoa berreskuratuko du, gastu horien erabilera ez bada justifikatzen Batzordeak onarturiko egikaritzapeneko txosten teknikoen eta egoera-orri finantzarioen bidez justifikatzen.

Hutsalketak onuradun baten partaidetza eraginpean hartzen duenean, onuradun horrek bere partaidetzaren hutsalketak eragina duen datara arte soilik benetan egindako kostu subentzionagarriak soilik hartuko dira subentzionagarritzat, betiere II.17 artikuluan xedaturikoaren arabera. Akordioa hutsaldu ondoren arte egikaritzapen-datarik ez zuten egungo konpromisoekin loturiko kostuak ez dira kontuan hartuko. Onuradunaren partaidetzaren hutsalketa gertatzen den datara arte egindako kostu subentzionagarrien ordainketa-eskaria hurrengo ordainketa-eskarian bilduko da, I.6 artikuluan aurreikusitako egutegian xedaturikoaren arabera.

Salbuespen gisa, 4. paragrafoak aipatzen duen aurreabisualdiaren amaieran, Batzordea bere akordioa hutsaltzen ari denean, koordinatzaileak ez dituelako egikaritzapen teknikoko azken txostena eta egoera-orri finantzarioak I.5 artikuluan xedaturiko dataren barruan landu, eta koordinatzaileak oraindik ez badu bere betebeharra bete bi hilabeteko epearen barruan jaso izana frogatzen duen agiria edo baliokidea biltzen duen bidalketa ziurtatu bidez Batzordeak bidalitako oroigarri idatziaren ondoren, Batzordeak ez du itzuliko ekintza amaitu zen datara arte onuradunek eginiko gastua eta zenbateko osoa berreskuratuko du horien erabilera justifikatzen ez bada Batzordeak onarturiko egikaritzapen teknikoko txostenen eta egoera-orri finantzarioen bidez.

Salbuespen gisa, koordinatzaileak eragindako akordioaren hutsalketa irregularra edo ekintzako onuradun baten partaidetzaren hutsalketa gertatzen bada, edo Batzordeak eragindako hutsalketa

aurreko (a), (e), (g), (h) edo (i) puntuetan azalduriko oinarrien gain, Batzordeak jada ordainduriko zenbatekoen ordainketa guztizko edo partziala eskatu ahalko du Batzordeak berak onarturiko egikaritzapen teknikoko txostenen eta egoera-orri finantzarioen gaineko akordioaren arabera, hutsegite horien larritasunaren proportzioan eta koordinatzaileari eta baterako onuradunei bere oharrak aurkeztea ahalbidetu ondoren.

II.12 artikulua.– Zehapen ekonomikoak.

II.12.1.– Europako Erkidegoen Aurrekontu Orokorrei aplika dakiekeen Finantza Erregelamenduaren arabera, akordioaren araberako bere betebeharrak bete gabe utzi dituen edozein onuradunek dagokion diru-laguntzaren bere partaidetzaren balioaren % 2tik % 10era bitarteko zehazpen ekonomikoak jaso ditzake.

II.12.2.– Lehenengo ez-betetzearen hurrengo bost urteetan beste ez-betetze bat geratzen bada % 4tik % 20ra bitartekoak izatera iritsi daitezke zehazpen horiek.

II.12.3.– Zehapen horiek aplikatzeari buruz Batzordeak hartzen duen erabakiari buruzko jakinarazpen idatzia emango zaio onuradunari.

II.13 artikulua.– Akordio gehigarriak.

II.13.1.– Diru-laguntzaren baldintzei egiten zaien edozein zuzenketak akordio idatzi gehigarria behar du. Ezein ahozko akordiok ez ditu alderdiak horretara behartuko.

II.13.2.– Akordio gehigarriak ezin izango du aldaketa-helbururik izan edo aldaketarik eragin aldaketa horiek diru-laguntzaren erabakia esleitzeko erabakia zalantzan jartzen badute, ezta erabiltzaileen tratamendu desberdina eragin ere.

II.13.3.– Koordinatzaileak zuzenketa-eskaria egiten duenean, onuradunekin adostuta, Batzordeari eskaria igorri beharko dio nahikoa denboraz eragina izan aurretik eta, ezein kasutan, ekintza ixten den data baino hilabete lehenago, koordinatzaileak behar bezala justifikaturiko eta Batzordeak onarturiko kasuetan izan ezik.

B ZATIA.– FINANTZA XEDAPENAK

II.14 artikulua.– Diruz laguntzeko moduko kostuak.

II.14.1.– Onuradunak benetan egindakoak dira ekintzaren kostu subentzionagarriak, honako irizpide hauei egokitu beharrekoak:

– ekintzaren aldian egin dira, akordioaren I.2.2 artikuluan zehazten denez, azken txostenei buruzko kostuak eta ekintzaren eta azpiko kontuen egoera-orri finantzarioen salbuespenarekin;

– akordioaren gaiarekin lotuta daude eta ekintzaren aurrekontu orokor estimatuan adierazita daude;

– beharrezko dira diru-laguntzaren ekintza abiarazteko;

– identifikagarriak eta egiaztagarriak dira, bereziki onuradun baten kontabilitate-liburuetan erregistratuta daudelako eta onuraduna ezarrita dagoen herrialdearen kontabilitate-arauen eta onuradunaren kostuen kontabilitateko ohiko praktiken arabera zehatuta;

– zerga aplikagarriaren eta lan-arloko legeriaren eskakizunak biltzen dituzte;

– arrazoizkoak dira, justifikatuak eta finantza-kudeaketa irmo baten eskakizunak betetzen dituzte, batez ere ekonomiari eta efizientziari dagokienez.

Onuradunen kontabilitatearen eta barne-auditoriaren prozedurek ekintzari dagokionez aitorturiko kostu eta diru-sarreren zuzeneko itzulketa ahalbidetu behar dute, dagozkion kontabilitate egoera-orri eta justifikazio-dokumentuekin.

II.14.2.– Ekintzarako zuzeneko kostu subentzionagarriak honako hauek dira, betiere II.14.1 artikuluan aurreikusitako subentziongarritasuna beteta: ekintzaren errendimenduaren zuzenean loturiko kostu espezifiko gisa subentzionagarriak direnak, eta horregatik ekintza horri zuzenean egotzi dakizkiokeenak. Bereziki, ondorengo zuzeneko kostu subentzionagarriak dira, betiere aurreko paragrafoan aurreikusitako irizpideak betetzen badituzte.

– ekintzari esleituriko langileen kostua, soldatak berak gehi Gizarte Segurantzaren kargak eta ordainsariak bilduriko beste estatutu-gastu batzuk biltzen dituena, betiere onuradunaren ohiko ordainsari-politikari dagokion batez besteko tipoa gainditzen ez badu.

Administratzaile nazionalen langileei dagozkien kostuak subentzionagarriak dira dagokion proiektu hori hartzen ez bada agintaritza publiko eskudunak burutuko ez dituen jardueren kostuarekin lotzen diren neurrian;

– ekintzan parte hartzen duten langileentzako bidaia- eta dieta-gastuak, betiere bidaia-gastuei buruz onuradunak dituen ohiko jardunbideekin uztartzen badira edo Batzordeak onarturiko baremoak gainditzen ez baditu;

– ekipoa (berria edo bigarren eskukoa) erosteko prezioa, betiere zerga-arau eta onuradunari aplikatzekoak zaizkion kontabilitate-arauen arabera kitatzen bada, normalki mota horretarako partidetarako. Ekintzaren iraunaldiari dagokion ekipoaren balio-galera proportzioa eta ekintzaren helburuetarako benetako erabilera mota soilik hartu ahalko ditu kontuan Batzordeak, ekipoaren erabileraren izaerak edota testuinguruak Batzordearen aldetik tratamendu desberdina ematea justifikatzen badute;

– material suntsigarrien eta hornigaien gastuak, betiere identifikagarriak eta ekintzari esleitutakoak badira;

– ekintza egiteko beste onuradun batek esleituriko beste kontratu batzuek eragindako gastuak, betiere II.9 artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen badira;

– akordioak ezarritako eskakizunetatik zuzenean eratorritako gastuak (informazioa zabaltzea, ekintzaren ebaluazio espezifikoa, auditoriak, itzulpenak, erreprodukzioa, eta abar), edozein finantza-zerbitzuren gastuak (bereziki finantza-bermeen gastua) barne. Bere erantzukizunen egikaritzapenean koordinatzaileak eginiko berariazko gastuak bildu ahalko dituzte gastu horiek, ekintzaren kudeaketa globalaren eta onuradunen koordinazioaren erakunde arduradun izateko ahalmena ere baduenez.

II.14.3.– Ekintzarako zeharkako gastu subentzionagarriak dira II.14.1 artikuluan deskribaturiko subentzionagarritasun-baldintzak errespetatuz dagokion egikaritzapenari zuzenean egotzi ahalko zaizkion ekintzaren egikaritzapenari zuzenean loturiko berariazko gastutzat identifikatu ezin direnak, baina koordinatzaileak edo baterako onuradun batek identifikatu edo justifikatu ditzakeenak beren kontabilitate-sistema erabilita ekintzarako zuzeneko kostu subentzionagarriekiko egin izan bazen bezala. Ezin izango dute zuzeneko kostu subentzionagarririk bildu.

II.14.1 artikuluan xedaturikoa gorabehera, ekintzaren egikaritzapenean eginiko zeharkako kostuak subentzionagarriak izan ahalko dira kostu subentzionagarrien guztizkoaren % 7a gainditzen ez duen finantzaketa-ehuneko finkoarekin[2]. Bai I.4.2 artikuluan zeharkako gastuekiko ehuneko finkoa duen finantzaketa biltzen bada, ez da zertan kontabilitate-dokumenturik aurkeztu izango.

2 % 7ko muga Batzordeak arrazoituriko erabaki bidez gainditu ahalko da. «Bestelako Baldintza Berezietan» hartu beharko da hori kontuan.

II.14.4.– Honako gastu hauek ez dira subentzionagarritzat hartuko:

• kapitalaren errendimendua;

• galerengatiko edo etorkizuneko zor posibleengatiko disposizioak;

• ordaintzeko interesak;

• zalantzazko zorrak;

• kanbio-galerak;

• BEZa, onuradunak frogatzen ez badu ezin duela berreskuratu nazio osorako legeria aplikagarrian xedaturikoaren arabera;

• onuradun batek aitorturiko eta Batasuneko diru-laguntza bat jaso duen beste ekintza edo lan-programa batek eskainitako kostuak;

• gehiegizko edo zuhurtziagabekeriazko gastuak.

II.14.5.– Gauzazko kontribuzioak ez dira kostu subentzionagarriak izango. Dena den, Batzordeak onartu ahalko du, beharrezkotzat eta egokitzat jotzen badu, I.4.3 artikuluan aipaturiko ekintzaren baterako finantzaketak osorik edo zati batean gauzazko kontribuzioak biltzea. Horrela bada, kontribuzio horien kalkulaturiko balioak ezin izango ditu honako hauek gaiditu:

• kontribuzio horiek onuradunari doan baina kostuak jasanda egin zituzten hirugarren zatien kontabilitate-dokumentuek benetan jasandako kostuak;

• dagokion kontribuzio motak dagokion merkatuan normalean onarturiko kostuak kosturik jasaten ez denean.

Posibilitate horrek ez ditu eraikinak biltzen dituen kontribuzioak estaliko.

Gauzazko baterako finantzaketaren kasuan, balio ekonomikoa emango zaie kontribuzioei eta diru-kopuru bera bilduko da ekintzaren gastuetan kostu ukiezin gisa eta ekintzaren kobrantzetan gauzazko baterako finantzaketa gisa. Onuradunek konpromisoa hartuko dute kontribuzio horiek akordioan xedaturikoaren arabera lortuko dituztela.

II.14.6.– 3. paragrafoan xedaturikoa gorabehera, zeharkako kostuak ez dira subentzionagarriak izango dagokion aldian Batzordearen diru-laguntza operatibo bat lehendik jasotzen duen onuradun bati esleituriko ekintzarako.

II.15 artikulua.– Ordainketa eskaria.

Baldintza Berezien I.5 artikuluan xedaturikoaren arabera egingo dira ordainketak.

II.15.1.– Aurrefinantzaketa.

Kutxa-hondo bat eman nahi die aurrefinantzaketak onuradunei.

Aurrefinantzaketari buruzko I.5 artikuluaren xedapenek hori eskatzen dutenean, Batasuneko Estatu kideetako batean ezarritako banku edo finantza-erakunde baimendu baten finantza-bermea ahalbidetuko du koordinatzaileak[3].

3 Onuraduna hirugarren herrialde batean ezarrita badago, ordenatzaile arduradunak onartu ahalko du hirugarren herrialde batean ezarritako banku edo finantza-erakunde batek bermea baimentzea irizten badio bankuak edo finantza-erakundeak Estatu kide batean ezarritako banku edo finantza-erakunde batek eskaintzen dituen segurtasun eta ezaugarri berak eskaintzen dituela.

Abal-emailea agertuko da bermatzaile nagusi gisa eta ez dio Batzordeari galdatuko zordun nagusiaren aurka jardun dezala.

Finantza-bermeak indarrean jarraituko du Batzordearen azken ordainketak aurrefinantzaketaren guztizko diru-laguntzaren proportziora egokitzen direnera arte. Data horretatik aurrerako 60 urteko epean bermea libratzeko konpromisoa hartzen du Batzordeak.

II.15.2.– Finantzaketa ordainketa gehigarriak.

Aurrefinantzaketa zenbait epetan zatitzen bada, beste aurrefinantzaketa-ordainketa bat eskatu ahalko du koordinatzaileak aurrefinantzkeari buruzko I.5 artikuluaren xedapenetan aurreikusitako aurreko ordainketaren ehunekoa agortutakoan. Honako dokumentu hauekin batera aurkeztu beharko da eskaria:

• benetan egindako kostu subentzionagarrien laburpen xehatua, laburpen kontsolidatua eta onuradun bakoitzaren arteko banantze bat barne;

• I.5 artikuluaren xedapenek eskatzen dutenean, finantza-berme bat 1. paragrafoan xedaturikoari jarraikiz;

• I.5 artikuluaren xedapenek eskatzen dutenean, ekintzaren eta azpiko kontuen egoera-orri finantzarioen ziurtagiri bat, auditore baimendu batek landutakoa, edo erakunde publikoen kasuan, funtzionario publiko eskudun eta independente bat, onuradun bakoitzeko betiere, I.5 artikuluan xedaturikoari jarraikiz;

• eskari hori babesten duen beste edozein dokumentu, aurrefinantzaketa-ordainketa gehigarrien eskaria babesten duen dokumentu gisa eskatu ahalko dena.

Ordainketa-eskariarekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak I.6 artikuluaren xedapenei eta eranskinei dagozkien xedapenei jarraikiz idatziko dira.

II.15.3.– Bitarteko ordainketak.

Egindako gastuen gaineko laburpen xehatu bat oinarritzat hartuta gastuarengatik onuradunenei dirua itzultzea da tarteko ordainketen helburua, ekintza bere azken etapara hurbildutakoan. Aurrefinantzaketa guztia edo zati bat agortu ahalko du.

I.6 artikuluan adierazitako data egokian, tarteko ordainketako eskari bat igorriko du koordinatzaileak honako dokumentu hauekin batera:

• ekintzaren egikaritzapenari buruzko tarteko txosten bat;

• benetan egindako gastu subentzionagarrien tarteko egoera-orri finantzario bat, ekintzaren eta azpiko kontuen egoera-orri finantzarioen ziurtagiri bat, auditore baimendu batek landutakoa, edo erakunde publikoen kasuan, funtzionario publiko eskudun eta independente bat, onuradun bakoitzeko betiere, I.5 artikuluan xedaturikoari jarraikiz; Ziurtagiriak ziurtatuko du, Batzordeak emandako metodologiari jarraikiz, ordainketa-eskariak oinarritzat hartzen dituen egoera-orri finantzarioetan aitorturiko gastuak benetakoak direla, zehazki erregistratu direla eta subentzionagarriak direla, eta kobrantza guztiak aitortu direla, akordioan xedaturikoari jarraikiz betiere.

Ordainketa-eskariarekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak I.6 artikuluaren xedapenei eta eranskinei dagozkien xedapenei jarraikiz idatziko dira. Koordinatzaileak ordainketa-eskari horretan emandako informazioa osoa, fidagarria eta benetakoa dela ziurtatuko du. Ziurtatuko du, halaber, egindako gastuak subentzionagarritzat jo daitezkeela akordioaren arabera, kobrantza

guztiak aitortuak izan direla eta ordainketa-eskaria egiazta daitezkeen justifikazio-dokumentuetan oinarritzen dela.

Dokumentu horiek jasotakoan, Batzordeak aldia zehaztuko du I.5 artikuluan, honako hauek lortzeko:

• ekintzaren aplikazioari buruzko azken txostena onartzea;

• koordinatzaileari justifikazio-dokumentuak edo txostena onartzeko beharrezkoa iritzitako beste edozein informazio gehigarri eskatzea;

• txostena atzera botatzea eta beste txosten baten aurkezpena eskatzea.

Batzordeak ez da erantzun idatzirik ematen arestian adierazitako denbora-mugaren barruan, onartutakotzat joko da txostena. Ordainketa-eskariarekin batera aurkeztu beharreko txostenaren onarpenak ez du esan nahi biltzen dituen aitorpenen eta informazioaren egokitasuna edo benetakotasuna, zehaztasuna eta zuzentasuna onesten direnik.

Onuradunarentzako informazio gehigarri baten edo beste txosten baten eskariak idazki bidez jakinaraziko dira.

Informazio gehigarria edo beste txosten bat eskatzen bada, informazioa lortzeko adina denboraz zabalduko da aztertzeko denbora-muga. Informazio horren eta aztertzeko denbora-mugaren zabalkuntzaren berri emango zaio koordinatzaileari dokumentu formal batean. Informazioa edo I.5 artikuluan eskaturiko dokumentuak emateko aldia ezarria izango du koordinatzaileak.

Txostena onartzeko denbora-muga zabaltzeak denboraldi baliokiderako atzeratu ahalko du ordainketa.

Txosten bat atzera bota eta beste txosten bat eskatzen bada, artikulu honetan deskribaturiko onarpen prozedura aplikatuko da.

Berriz ere atzera botatzen bada, Batzordeak beretzat gordeko du akordioa hutsaltzeko eskubidea, horretarako II.11.3 (b) artikulua alegatuta.

II.16 artikulua.– Ordainketei buruzko xedapen orokorrak.

II.16.1.– Eurotan egingo ditu ordainketak Batzordeak. Benetako kostuen eurotarako edozein bihurketa Europako Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaraturiko truke-tasan oinarritzen da edo, halakorik ezean, Batzordeak ezarritako eta haren webgunean aplikaturiko hileko kontabilitate-tasa erreferentzia gisa hartuta, Batzordeak ordainketa-agindua igortzen duen egunean aplikaturikoa, hain zuzen ere, non eta akordioaren Baldintza Bereziak ez dituzten horri buruzko berariazko xedapenak biltzen.

Batzordearen ordainketak kostuak Batzordearen kontura kargatzen diren joko dira egindakotzat.

II.16.2.– Batzordeak edozein unetan eten ahalko du I.5 artikuluan ezarritako ordainketaldia egiaztapen gehigarriak egiteko koordinatzaileari jakinarazita bere ordainketa-eskaria ezin daitekeela egin, akordioaren xedapenak betetzen ez dituelako edo justifikazio-dokumentuak entregatu ez direlako edo susmoa dagoelako egoera-orri finantzarioen zenbait gastu ez direla subentzionagarriak.

Batzordeak edozein unetan eten ahalko ditu bere ordainketak susmoa badago edo egiaztatzen bada onuradun batek akordioaren xedapenak urratu dituela, bereziki II.20 artikuluan xedaturiko auditorien eta egiaztapenen ondorioz.

Honako kasu hauetan ere eten ahalko ditu bere ordainketak Batzordeak:

– onuradun batek diru-laguntza akordioaren egikaritzapenean egindako irregulartasun baten susmorik baldin badago;

– onuradun batek egindako ustezko edo egiaztaturiko irregulartasun bat badago Batasunaren Aurrekontu Orokorrak finantzaturiko beste diru-laguntza akordio baten edo diru-laguntza erabaki baten egikaritzapenean, edo Batasunak kudeaturiko beste edozein aurrekontuk finantzaturikoarenean. Kasu horietan, ustezko edo egiaztaturiko irregulartasunak egungo diru-laguntza akordioaren egikaritzapena eraginpean hartzen duenean soilik etengo dira ordainketak.

Batzordeak ahal bezain laster emango dio informazioa koordinatzaileari horrelako edozein eteteri buruz jaso izana frogatzen duen agiria edo baliokidea biltzen duen bidalketa ziurtatu bidez, etetearen arrazoiak azalduta.

Batzordeak jakinarazpena igortzen duen datan izango du eragina eteteak. Gainerako ordainketaldia indarrean hasiko da berriz ere behar bezala eraturiko eskari bat erregistratzen den datatik, justifikazio-dokumentuak jasotzen direnean edo etenaldiaren amaieran, Batzordeak jakinarazten duenari jarraikiz.

II.16.3.– I.5 artikuluan zehazturiko ordainketaldia amaitzen denean, eta artikulu honen 2. paragrafoan xedaturikoa aparte utzi gabe, Europako Banku Zentralak eurotako bere birfinantzaketa-eragiketa nagusietarako aplikaturiko tasarako ordainketa berankorraren gaineko interesak jasotzeko eskubidea dute onuradunek, gehi hiru puntu eta erdi. Gehikuntza aplikatzen zaion erreferentzia-tasa ordainketako azken dataren hilabetearen lehenengo egunean indarrean dagoen tasa izango da, Europako Batzordeko Aldizkari Ofizialaren C seriean argitaraturikoari jarraikiz. Xedapen hori ez zaie aplikatuko Batasuneko Estatu kideetako agintari publikoak diren diru-laguntza baten hartzaileei.

Ordainketa berankorreko interesek ordainketaren azken datatik (hori kanpoan utzita) ordainketa-datara arteko aldia estaliko dute, 1. paragrafoan definitutakoari jarraikiz (azken data hori barnean hartuta). Interesa ez da ekintzaren kobrantza gisa tratatuko azken diru-laguntza zehazteari begira II.17.4 artikuluaren arabera. Batzordearen ordainketa-etetea ezin izango da ordainketa berankortzat hartu.

Salbuespen gisa, lehenengo eta bigarren paragrafoko xedapenen arabera kalkulaturiko interesak 200 eurotik beherakoak edo kopuru horren baliokideak direnean, ordainketa berankorra jaso eta hurrengo bi hilabeteen barruan igorritako eskari bidez soilik ordainduko zaio koordinatzaileari.

II.16.4.– Batzordeak 50.000 euroko kopurua gainditzen duen aurrefinantzaketak sorturiko interesa deduzituko du[4], onuradunei ordaintzekoa zaien diru-kopuruaren saldoaren ordainketan I.5 artikuluan xedaturikoaren arabera. Interesa ez da ekintzaren kobrantza gisa tratatuko, II.17.4 artikuluaren arabera.

Aurrefinantzaketa-ordainketek adosturiko 750.000 euroko muga gainditzen badute finantza-urte bakoitzaren amaieran, aldi bakoitzaren interesa berreskuratuko da. Kudeaketaren inguruari loturiko arriskuak eta finantzaturiko ekintzen izaera kontuan izanda, Batzordeak gutxienez urtean behin berreskuratu ahalko du 750.000 eurotik beherako aurrefinantzaketak sorturiko interesa.

4 Kanpo-ekintzen kasuan, 250.000 euroan finkatu da dagokion muga. Krisiak edo laguntza humanitarioa kudeatu beharreko kasuetan, interesa berreskuratuko da aurrefinantzaketak, adostuta, 750.000 euroko muga gainditzen badu ekitaldi bakoitzaren amaiera eta 12 hilabete baino gehiagoko aldirako bada.

Sorturiko interesak onuradunei ordaintzekoa zaien diru-kopuruaren saldoa gainditzen badu, II.15.4 artikuluan xedaturikoaren arabera, edo aurreko paragrafoan deskribaturiko aurrefinantzaketa bidez sortzen bada, Batzordeak berreskuratu egingo du, II.19 artikuluan xedaturikoari jarraikiz.

Estatu kideei ordainduriko aurrefinantzaketak sorturiko interesa ez da Batzordearen erantzukizuna.

Koordinatzaileak bi hilabete izango ditu II.17 artikuluan xedaturikoaren arabera saldoaren ordainketaren diru-kopurua edo berreskuratze-agindua zehazten duen diru-laguntzaren azken diru-kopurua Batzordeak jakinarazten duen datatik aurrera, edo, bestela, saldoaren ordainketa jaso den datatik aurrera, idazki bidez informazioa eskatzeko azken diru-laguntzaren erabakiari buruz, edozein desadostasunen arrazoiak emanda. Aldi horren ondoren, ez dira kontuan hartuko eskari horiek. Batzordeak konpromisoa hartzen du idazki bidez erantzuteko informazio-eskaria jasotzen den datatik hasi eta bi hilabeteko epean, erantzun horren arrazoiak emanda.

I.9 artikuluan xedaturikoaren arabera onuradunek Batzordearen erabaki horren aurka apelatzeko dituzten eskubideak aparte utzi gabe hartzen da kontuan prozedura hori. Horri dagokionez Batasunak duen legeriaren esparruan, apelazio horiek bi hilabeteko epean aurkeztu beharko dira eskatzailearen erabakia jakinarazi zaionetik edo, bestela, eskatzaileak erabakiaren berri izan duen dataren ondoren.

II.17 artikulua.– Azken diru-laguntzaren inguruko erabakia.

II.17.1.– Ondoren lorturiko informazioa aparte utzi gabe, II.20 artikuluan xedaturikoari jarraikiz, onarturiko II.15.4 artikuluan aipaturiko dokumentuen oinarriaren gain onuradunei esleitzen zaien azken ordainketaren diru-kopurua hartuko du Batzordeak.

II.17.2.– Batzordeak ordainduriko guztizko diru-kopuruak ezin izango du, inoiz ere ez, I.4.3 artikuluan xedaturiko diru-laguntzaren gehieneko diru-kopurua gainditu, benetako guztizko kostu subentzionagarriek I.4.2 artikuluan zehazturiko guztizko kostu estimatu subentzionagarriak gainditzen badituzte ere.

II.17.3.– Ekintza amaitzen deneko benetako kostu subentzionagarriak guztizko kostu estimatu subentzionagarriak baino txikiagoa badira, Batzordearen kontribuzioa lorturiko diru-kopurura mugatuko da I.4.3 artikuluan zehazturiko Batasunaren diru-laguntzaren ehunekoa Batzordeak onarturiko benetako kostu subentzionagarriei aplikatuta.

II.17.4.– Honen bidez, onuradunek adosten dute diru-laguntza mugatuko dela ekintzaren kobrantzak eta gastuak estaltzeko beharrezkoa den diru-kopurura, eta ezin izango duela, inoiz ere ez, eurentzako diru-sarrerarik sortu.

Ekintzari egotzi ahalko zaizkion benetako guztizko kobrantzen ekintzaren guztizko benetako kostuekiko edozein gaineratiko izango da diru-sarrera bat. Kontuan hartu beharreko benetako kobrantzak Batasunerako diru-laguntza ez den finantzaketarako saldoaren ordainketa-eskaria koordinatzaileak idazten duen datan ezarri, sortu edo berretsitakoak izango dira, eta horri artikulu honen 2. eta 3. paragrafoetan xedaturiko printzipioak aplikatuta zehazturiko diru-laguntzaren kopurua gehituko zaio. Artikulu honi dagokionez, I.4.1 artikuluan biltzen eta II. eranskinean ageri diren aurrekontu estimatuan ezarritako kategorien barruan dauden benetako gastuak soilik hartuko dira kontuan. Batasunetik ez datozen baliabideek estaliko dituzte betiere gastu ez-subentzionagarriak.

Horrela izandako edozein gaineratikok diru-laguntzaren kopuruaren dagokion murrizketa eragingo du.

II.17.5.– II.11 artikuluan xedaturikoaren arabera akordioa hutsaltzeko eskubidea aparte utzi gabe, eta II.12 artikuluan adierazitako zigorrak aplikatzeko Batzordeak duen eskubidea aparte utzi gabe, ekintza egikaritzen ez bada, edo oker, partzialki edo berandu egikaritzen bada, Batzordeak

hasiera batean aurreikusitako diru-laguntza murriztu ahalko du akordioan xedaturikoaren arabera ekintzak izaten duen benetako egikaritzapenari jarraikiz.

II.17.6.– Horrela zehazturiko azken ordainketaren diru-kopurua eta akordioan bildurikoaren arabera jada egindako guztizko zenbatekoan oinarrituta, onuradunei oraindik zor zaien diru-kopurua balitz bezala ezarriko du Batzordeak saldoaren ordainketaren diru-kopurua. Jada egindako ordainketen zenbateko globalak azken diru-laguntzaren diru-kopurua gainditzen duenean, gaineratikoarengatiko berreskuratze-agindu bat emango du Batzordeak.

II.18 artikulua.– Finantza erantzukizuna.

II.18.1.– Onuradunek adosten dute modu ezeztaezinean eta baldintza gabekoan, baterakoan eta solidarioan direla onuradun batek aurre egin ezin diolako Batzordeari zor dion edozein diru-kopuruen erantzule. Batzordeari zor zaion diru-kopuruak ez du gainditukо I.43 artikuluan xedaturikoaren arabera onuradunei esleitu ahalko litzaiekeen kontribuzioa, dagokion puntuan ordainketa berankorreko interesak gehituta.

II.18.2.– Onuradunek ez dute baterako erantzukizunik II.12 artikuluan xedaturikoaren arabera edozein onuradun arau-hausleri aplikatu ahalko zaizkio zehapen ekonomikoak direla-eta.

II.19 artikulua.– Berreskuratzea.

II.19.1.– Zenbateko bat berreskuratu behar denean, Batzordeak koordinatzaileari ordaindutakoa ordainketa guztien jasotzaile delako, akordioan bildurikoaren arabera, koordinatzaileak Batzordeari zenbateko hori itzultzeko konpromisoa hartzen du, dagokionaren arabera eta zehazten den datan, zor den diru-kopuruaren azken hartzailea bera izan ez bada ere. Azken kasu horretan, ordainketa adierazitako datan egin ez bada, diru-kopurua zuzenean azken hartzailearengatik berreskuratzeko eskubidea beretzat gordetzen du Batzordeak.

Akordio honetan xedaturikoaren arabera Batzordeak onuradunari diru-kopuru hori zuzenean ordaindu badio berreskuratzeko, onuradunak konpromisoa hartzen du Batzordeari dagokion zenbatekoa ordaintzeko, artikulu horretan bildurikoaren arabera eta bertan zehazturiko datan.

II.19.2.– Zor den diru-kopurua ordaintzeko betebeharrari ez bazaio erantzuten Batzordeak ezarritako datara arte, zor den diru-kopuruak interesak eragingo ditu II.16.3 artikuluan adierazitako tasaren oinarriaren gain. Ordainketa berankorragatiko interesak ordainketarako finkaturiko dataren (hori kanpoan utzita) eta Batzordeak zor den diru-kopuruaren ordainketa osoa jasotzen duen dataren arteko aldia estaliko du (azken data hori barne).

Edozein ordainketa partzial gastuekiko eta ordainketa berankorreko interesekiko egin beharko da, eta ondoren tronkoarekiko.

II.19.3.– Ordainketa mugaegunerako egiten ez bada, Batzordeari zor zaizkion zenbatekoak berreskuratu ahalko dira dagokion onuradunari zor zaion edozein zenbatekorekin konpentsatuta, onuradunari berari behar bezala informatu ondoren jaso izana frogatzen duen agiria edo baliokidea biltzen duen bidalketa ziurtatu bidez edo, Baldintza Berezietan bildutakoaren baitan, II.15.1 artikuluan xedaturikoaren arabera emandako finantza-bermea alegatuta. Ezohiko zirkunstantzietan, Batasunaren finantza-interesak zaintzeko premiak justifikaturiko zirkunstantzietan, Batzordeak zenbatekoa berreskuratu ahalko du konpentsazio bidez ordaintzeko mugaeguna baino lehen. Onuradunaren aldez aurreko baimena ez da beharrezkoa izango. Berreskuratzeak alferrekoa izaten jarraitzen badu, aurrekoari jarraikiz, onuradunak egingo ditu kolektiboki eta batera zor den diru-kopuruaren arduradun Batzordeak, II.18 artikuluaren arabera.

II.19.4.– Batzordeari zor zaizkion zenbatekoen berreskuratzeak eragindako banku-komisioak onuradunak ordaindu beharko ditu.

II.19.5.– Onuradunen ustez, betiere Europar Batasunaren funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 299. artikuluan xedaturikoaren arabera, Batzordeak nahitaez bete beharreko erabaki bat hartu beharko du, Estatuez beste pertsonei kobratu beharreko diru-kopuru bat formalki ezarrita. Erabaki horren aurkako errekurtsoa jarri ahalko da Europar Batasuneko Auzitegi Nagusian.

II.20 artikulua.– Kontrolak eta auditoretzak.

II.20.1.– Ekintza eta akordioaren xedapenak behar bezalako egikaritzapena izaten ari direla kontrolatzeko Batzordeak edo baimenduriko beste edozein erakundek eskaturiko edozein informazio zehatz emateko konpromisoa hartzen du koordinatzaileak, formatu elektronikoko informazioa barne. Batzordeak nahi badu, informazio hori zuzenean baterako onuradun batek aurkezteko eska dezake.

II.20.2.– Onuradunek Batzordearen eskura izango dituzte jatorrizko dokumentuak, bereziki, kontabilitate- eta zerga-erregistroak edo, behar bezala justifikaturiko ezohiko kasuetan, akordioari buruzko jatorrizko dokumentuen kopia ziurtatuak, edozein bitarteko egokitan gordeta, haien segurtasuna ziurtatuz aplikatzekoa den nazio osorako legeriaren arabera, bost urteko aldirako I.5 artikuluan zehazturiko saldoaren ordainketa-datatik aurrera.

II.20.3.– Onuradunek adosten dute Batzordeak auditoria bat agindu ahalko duela diru-laguntzari ematen zaion erabilera aztertzeko. Zuzenean egin ahalko du edo bere langile propioen bidez, edo bere izenean egiteko baimenduriko beste edozein erakunderen bidez. Auditoria horiek akordioaren egikaritzapenaldi guztian burutu ahalko dira saldoa ordaindu arte, bost urteko aldian saldoaren ordainketaren datatik aurrera. Dagokionean, Batzordeak funtsak berreskuratzeari ekitea eragin dezakete auditoriaren emaitzek.

II.20.4.– Onuradunek konpromisoa hartzen dute Batzordearen langileek eta Batzordeak baimenduriko kanpoko langileek eskubidea izan dezaten ekintza burutzen ari den leku eta instalaziotara sartzeko eskubidea izan dezaten, baita auditoria horiek egiteko beharrezkoa den informazioa baliatzeko ere.

II.20.5.– Kontseiluaren 2185/96 zenbakiko Erregelamenduaren (Euratom, EC) eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1073/1999 zenbakiko Erregelamenduaren (EC) arabera, Iruzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak (OLAF) kontrolak eta ikuskapenak ere burutu ahalko ditu lekuan bertan, iruzurraren eta beste irregulartasun batzuen aurka Batasunaren finantza-interesak babesteko Batasunaren legeriak xedaturiko prozeduren arabera betiere. Batzordeak funtsak berreskuratzeari ekitea eragin dezakete ikuskapenaren emaitzek.

II.20.6.– Auditoreen Epaimahaiak Batzordearen eskubide berak izango ditu, batez ere sarbide-eskubidea, kontrol eta auditoriei dagokienez.

SINADURAK

Koordinatzailearentzat

Inmaculada Freije Obregón
Plangintza eta Estrategiako zuzendaria
Gasteizen egindakoa, 2011-12-20

Batzordearentzat

Heinz Zourek
Zuzendari nagusia
Bruselan egindakoa, 2011-12-20

ONURADUN UGARIRENTZAKO EKINTZA BATERAKO LAGUNTZEI BURUZKO AKORDIOA

AKORDIO ZENBAKIA – SI2.609234- 2/G/ENT/CIP/11/11/C/N03C011

Europar Batasunaren (hemendik aurrera «Batasuna») Europako Batzordeak (hemendik aurrera «Batzordea»), akordioa sinatzeko Ekimen eta Industriako zuzendari nagusi Heinz Zourek jaunak ordezkatu duenak

Alde batetik,

Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila
Donostia 1
01010 Vitoria-Gasteiz
Espainia
IFK: S4833001C

Hemendik aurrera «koordinatzailea» deituko diogu (1. onuraduna), eta Berrikuntzaren eta Informazio Gizartearen zuzendari Xabier Zabalza jaunak ordezkatu du akordioa sinatzeko.

Bestetik,

ADOSTU DUTE:

Jarraian adierazitako baldintza bereziak, baldintza orokorrak eta eranskinak:

I. eranskina.– Ekintzaren deskribapena.

II. eranskina.– Ekintzaren behin-behineko aurrekontua (bertsio bateratu bat eta onuradun bakoitzaren kostu eta egiaztagirien banakapena).

III. eranskina.– Onuradunkideen ahalmen-emateak, koordinatzaileari botereak ematekoak.

Goian adierazitako eranskinak akordio honen («akordioa») parte dira.

Baldintza berezietan ezarritako baldintza eta epeei lehentasuna emango zaie akordioan barrena zehaztutakoen aurretik.

Baldintza berezietan ezarritako baldintza eta epeei lehentasuna emango zaie eranskinetan zehaztutakoen aurretik.

I.– BALDINTZA BEREZIAK

I.1 artikulua.– Laguntzaren xedea.

I.1.1.– Akordioaren baldintza berezietan, baldintza orokorretan eta eranskinetan ezarritako baldintzekin bat etorriz, Batzordeak erabaki du laguntza bat ematea, eta onuradunei laguntza hori jakinarazi die eta onuradunek hura onartu dute, «Euskadiren berrikuntza-alorreko emaitzen birdefinizioa, bikaintasuneko industria-zerbitzu sortzaileen bitartez» - + Innova Sormena izeneko ekintzarako («ekintza»).

I.1.2.– Onuradunek laguntza onartu dute, eta ekintza I. eranskinean jasotakoari jarraikiz egiteko beren esku dagoen guztia egiteko konpromisoa hartu dute, beren erantzukizuna betez jardunez.

I.2 artikulua.– Iraupena.

I.2.1.– Bi alderdiek akordioa sinatzen duten egunean hasiko da indarrean akordioa.

I.2.2.– Ekintza 24 hilabetez gauzatuko da, 2011ko abenduaren 1etik hasita. Baldin eta dagokion eskaera idazki bidez aurkezten bada, behar bezala justifikatua eta akordioaren mugaeguna baino gutxienez bi hilabete lehenago, sei hilabete gehiagoko luzapena emateko aukera izango da.

I.3 artikulua.– Onuradunen zeregina.

I.3.1.– Koordinatzaileak:

a) Bere gain hartuko du ekintza akordioan jasotakoari jarraikiz egiten dela ziurtatzeko erantzukizun osoa.

b) Bitartekari gisa jardungo du onuradunkideen eta Batzordearen arteko komunikazio guztietan, I.8 artikuluari jarraikiz. Batzordeak akordioari dagokionez erreklamazio bat egin nahi badu, koordinatzaileari bidaliko dio, eta koordinatzaileak dagokion erantzuna emango dio, akordioan besterik zehaztu ez bada behintzat;

c) Batzordearen esku jarriko ditu akordioari jarraikiz eskatuko dizkion agiri eta informazio guztiak, ordainketa-eskaerei dagokienez bereziki. Koordinatzaileak ez du betebehar horietako bat ere onuradunkideen edo hirugarrenen esku utziko. Onuradunkideen informazioa behar denean, koordinatzaileak informazio hori lortu eta egiaztatuko du, eta Batzordeari helaraziko dio;

d) Onuradunkideei emango die ekintza abiaraztean funtsezko eragina izan dezakeen edozein gertakariren berri;

e) Diruz laguntzeko moduko kostuen epigrafeen artean transferentziarik gertatzen bada, Batzordeari emango dio horren berri, I.4.4 artikuluan ezarritakoaren arabera;

f) Eskatzen diotenean, ekintzan parte hartzen duten onuradunen baterako bermea edo finantza bermeak lortzeko beharrezko izapideak egingo ditu, I.5 artikuluan jasotakoari jarraikiz.

g) Onuradunen izenean dauden ordainketa-eskaerak kudeatuko ditu, akordioan jasotakoaren arabera onuradun bakoitzari dagokion zati eta kopuru zehatzak, II. eranskinean jasotako aurreikuspenen arabera diruz laguntzeko modukoak diren behin-behineko kostuak eta benetan egindako kostuak zehaztuz. Batzordeak egin beharreko ordainketa guztiak 1.7 artikuluko 1. atalean aipatutako banku-kontu(et)an sartuko dira;

h) Onuradun guztiek ordainketen hartzaile bakar izendatzen badute, onuradunkideei egin beharreko ordainketa guztiak behar bezala eta garaiz egiten direla egiaztatuko du, tartean justifikatzeko moduko arrazoirik ez bada behintzat, I.7 artikuluko 3. paragrafoari jarraikiz, eta Batzordeari jakinaraziko dio Batasunaren finantza-ekarpena onuradunkideen artean nola banatu den eta transferentzia zer egunetan gauzatu den;

i) Auditoretzei, egiaztapenei edo ebaluazioei dagokienez, II.20 eta II.6 artikuluetan deskribatutakoari jarraikiz, beharrezko agiri guztiak aurkeztu beharko ditu, onuradunkideen kontuak, jatorrizko kontabilitate-agiriak eta sinatutako azpikontratuen kopiak barne, baldin eta onuradunek horietako bat formalizatu badute II.9 artikuluari jarraikiz.

I.3.2.– Onuradunkideek:

a) Ekintza ahalik eta ondoen gauzatzeko modua adostuko dute; beren barneko koordinazio eta eragiketei dagokienez onuradunek lankidetzazko barne-akordio bat lortu dutela hartzen da aintzat.

Ekintza abiarazteko eta onuradunen kudeaketarako beharrezko alderdi guztiak jaso beharko dira lankidetza-akordioan;

b) Koordinatzaileari txostenak, finantzetako egoera-orriak eta akordioan jasotako bestelako agiriak (eranskinak barne) osatzeko beharrezko datuak bidaliko dizkiote;

c) Batzordeari eman beharreko informazio guztia koordinatzailearen bitartez bidaltzen dela egiaztatuko dute, besterik zehaztu ez bada;

d) Ekintza abiaraztea berandutu behar duen edo abiarazte horretan funtsean eragin behar duen gertakari baten berri badute, koordinatzaileari emango diote, lehenbailehen, horren berri;

e) Diruz laguntzeko moduko kostuen epigrafeen arteko transferentziak koordinatzaileari jakinaraziko dizkiote, I.4.4 artikuluan zehaztutakoari jarraikiz;

f) Koordinatzailearen esku auditoretzei, kontrolei eta ebaluazioei dagokienez beharrezkoak diren agiri guztiak jarriko dituzte, II.20 eta II.6 artikuluetan jasotakoari jarraikiz.

I.4 artikulua.– Kostuen banakapena – Ekintzaren finantziazioa.

I.4.1.– Ekintzak guztira 371.973,69 euroko kostua izango duela uste da, II. eranskinaren behin-behineko aurrekontuan jasotakoaren arabera. Behin-behineko aurrekontuaren bornean, II.14 artikuluan jasotako baldintzen arabera Batasunak diruz lagun ditzakeen kostuak zehatz-mehatz banakatuko dira, baita ekintzak eragin ditzakeen gainerako kostuak eta egiaztagiriak ere, kostuak eta diru-sarrerak koadratzeko moduan, horniduren eraginpean daudenak kanbio-tasetan gerta daitezkeen aldaketetarako.

II. eranskinaren behin-behineko aurrekontuaren barnean taula bat hartu da, onuradun bakoitzarentzat diruz laguntzeko modukoak diren kostu eta diru-sarreren banakapena adierazten duena. Onuradunek amankomunean adostuko dute taula, eta akordioaren behin-behineko aurrekontura bilduko dute jarraian.

I.4.2.– Ekintzaren diruz laguntzeko moduko kostuak guztira 271.973,69 euro direla uste da, II. eranskinaren behin-behineko aurrekontuan jasota geratu diren gastu-epigrafe eta -partidei dagozkienak, II.14 artikuluan ezarritako diru-laguntza jasotzeko baldintzei aplikatu beharrekoak.

Zeharkako kostuak diruz lagun daitezke, diruz laguntzeko moduko guztizko zuzeneko kostuen gehienez % 7 oroharreko prezioan finantzatzeko, II.14.3 artikuluan ezarritako baldintzak betez.

I.4.3.– Batzordeak gehienez 203.750 euro jarriko ditu, hain zuzen ere 2. atalean adierazitako diruz laguntzeko moduko guztizko kostuen % 74,92. Diru-laguntzaren behin betiko zenbatekoa ebazteko, II.17 artikuluan zehaztutakoa hartuko da aintzat, II.19 artikuluan ezarritakoa alde batera utzi gabe.

Batasunaren diru-laguntza ezin izango da ekintzaren guztizko kostuak finantzatzeko erabili. 1. atalean aipatutako behin-behineko aurrekontuan, Batasunaren funtsetatik ez datozen baterako finantziazioko iturriak eta kopuruak adierazi beharko dira.

I.4.4.– II.13 artikuluan jasotakoa gorabehera, ekintza aurrera eramateko garaian, koordinatzaileak, onuradunkideen oniritziarekin, behin-behineko aurrekontuaren doikuntza –diruz laguntzeko moduko kostuen epigrafeen artean transferentziak eginez– eskatzeko aukera izango du, betiere goian aipatutako gastuen doikuntzak ekintza abiaraztean eragiten ez badu, eta epigrafeen arteko transferentzia 2. atalean adierazitako diruz laguntzeko moduko guztizko kostuen % 10 gainditzen ez badu. Doikuntza hori eskatzeko koordinatzaileak gutun ziurtatua bidali beharko dio Batzordeari,

jaso izanaren berri emateko eskatuta edo antzeko sistema bat erabiliz, eta Batzordeak eskaera ezesteko eskubidea izango du, 20 eguneko epean gutuna jasotzen duen egunaz geroztik. 20 eguneko epe horretatik aurrera, eskaera onartutzat joko da.

I.5 artikulua.– Ordainketa sistemak.

I.5.1.– Aurrefinantzaketa:

45 eguneko epearen barruan alderdietako azkenak akordioa sinatzen duen egunaz geroztik, koordinatzaileari 61.125 euroko aurrefinantziazioa ordainduko zaio, hain zuzen ere I.4.3 artikuluan zehaztutako zenbatekoaren % 30.

I.5.2.– Bitarteko ordainketa:

Koordinatzaileak bitarteko ordainketa eska dezake txosten bakoitzari dagokion aldiaren amaieran, azken txostenari dagokiona izan ezik Bitarteko ordainketa-eskaerarekin batera, abiarazteari buruzko bitarteko txosten tekniko bat eta finantzetako egoera-orria aurkeztu beharko da, onuradun bakoitzaren banakapena eta egoera-orri bateratua barne, II.15 artikuluan jasotakoari jarraikiz, eta, hori ez ezik, onuradun bakoitzari dagokion ekintzaren finantzetako egoera-orrien auditoretzari buruzko ziurtagiria ere aurkeztuko da.

Batzordeak 45 eguneko epea izango du abiarazteari buruzko txosten teknikoa onartu edo baztertzeko edo justifikatzeko agiri osagarriak edo informazioa eskatzeko II.15.3 artikuluan ezarritako prozedurari jarraikiz, eta, kasu horretan, koordinatzaileak 30 eguneko epea izango du eskatutako informazio osagarria edo txosten berri bat aurkezteko.

Bitarteko ordainketaren zenbatekoa ebazteko, de facto egindako diruz laguntzeko moduko kostuak hartuko dira aintzat, bitarteko egoera-orrian jasota egonik Batzordeak balidatu dituenak, eta horiei Batasunaren laguntzaren ehunekoa aplikatuko zaie, hain zuzen ere I.4.3 artikuluan zehaztutakoa.

Bitarteko ordainketak ezin izango du, inondik inora, I.4.3 artikuluan zehaztutako laguntzaren gehieneko zenbatekoaren % 50 gainditu. Bitarteko azken ordainketatik, koordinatzaileari aldez aurretik ordaindutako edozein aurrefinantziazioren % 50 kenduko da.

Koordinatzaileari bitarteko zenbatekoa ordainduko zaio 45 eguneko epean, Batzordeak bitarteko ordainketa-eskaerarekin batera doazen agiriak onartu ostean.

Batzordeak ordainketaren epea eteteko aukera izango du, II.6.2 artikuluan ezarritako prozedurari jarraikiz.

I.5.3.– Saldoaren ordainketa.

Saldoaren ordainketa-eskaerarekin batera, abiarazteari buruzko azken txosten teknikoa eta finantza-txostena aurkeztuko dira, onuradun bakoitzeko banakapena eta egoera-orri bateratua barne, II.15.4 artikuluan zehaztutakoari jarraikiz.

Batzordeak 45 eguneko epea izango du abiarazteari buruzko txosten teknikoa onartu edo baztertzeko edo justifikatzeko agiri osagarriak edo informazioa eskatzeko II.15.4 artikuluan ezarritako prozedurari jarraikiz, eta, kasu horretan, koordinatzaileak 30 eguneko epea izango du eskatutako informazio osagarria edo txosten berri bat aurkezteko.

Koordinatzaileari laguntzaren saldoari dagokion zenbatekoa ordainduko zaio II.17 artikuluari jarraikiz, 45 eguneko epean Batzordeak abiarazteari buruzko txosten teknikoa onartzen duen uneaz

geroztik, saldoaren ordainketa-eskaerarekin batera bidalitakoa. Koordinatzaileari aldez aurretik ordaindutako edozein aurrefinantziazioren gainerako zatia soldataren ordainketatik kenduko da.

Batzordeak ordaintzeko aldia eteteko aukera izango du, II.16.2 artikuluan deskribatutako prozedurari jarraikiz.

I.6 artikulua.– Txostenen eta beste zenbait agiriren aurkezpena.

Abiarazteari buruzko txosten teknikoen, finantzetako egoera-orrien eta I.5 artikuluan aipatutako gainerako agirien ale bakarra aurkeztuko zaio koordinatzaileari, akordio hau idatzita dagoen hizkuntzan, jarraian aipatutako egunetan:

– Abiarazteari buruzko bitarteko lehen txosten teknikoa eta finantzetako egoera-orria, egoera-orri bateratua, onuradun bakoitzaren banakapena eta ekintzaren finantzetako egoera-orriei buruzko auditoretzaren ziurtagiria barne: 45 eguneko epearen barruan, txostenari dagokion 1. hilabetetik 12. hilabetera bitarteko aldia amaitzen den egunaz geroztik;

– Abiarazteari buruzko bitarteko bigarren txosten teknikoa eta finantzetako egoera-orria, egoera-orri bateratua, onuradun bakoitzaren banakapena eta ekintzaren finantzetako egoera-orriei buruzko auditoretzaren ziurtagiria barne: 45 eguneko epearen barruan, txostenari dagokion 13. hilabetetik 24. hilabetera bitarteko aldia amaitzen den egunaz geroztik;

– Abiarazteari buruzko azken txosten teknikoa eta finantzetako egoera-orria, egoera-orri bateratu bat eta onuradun bakoitzaren banakapena barne: 45 eguneko epean, 1. hilabetetik 24. hilabetera bitarteko ekintza amaitzen den egunaz geroztik.

1.7 artikulua.– Banku kontua.

I.7.1.– Ordainketa guztiak eurotan egingo dira, koordinatzailearen banku-kontuan edo -azpikontuan dagokion kopurua sartuta.

I.7.2.– Batzordeak egindako ordainketak identifikatu beharko ditu kontu edo azpikontu horrek. Gainera, kontu edo azpikontu horri ordaindutako funtsek interesak edo bestelako mozkinak sortu beharko dituzte, kontua edo azpikontua ireki den Estatuaren legeen arabera. Interes edo mozkin horiek sortzen badira I.7.3 artikuluan ezarritako berandutzea amaitzean onuradunkideei transferitu ez zaien aurrefinantziazio-proportzioaren eraginez, saldoaren ordainketatik kenduko dira edo Batzordeak berreskuratuko ditu, II.16.4 artikuluan ezarritakoaren arabera .

I.7.3.– 30 eguneko apearen barruan kontura egindako ordainketaren egunaz geroztik, koordinatzaileak onuradunkide bakoitzari transferituko dizkio ekintzan duen partaidetzari dagozkion diru-kopuruak, gastu estimatuetan duen zati hainbanatuaren arabera, II. eranskinaren banakapenari jarraikiz, aurrefinantziazio-ordainketak gauzatzen direnean, eta benetan egindako kostu balidatuen arabera, bestelako ordainketak gauzatzen direnean.

I.8 artikulua.– Administrazio xedapen orokorrak.

I.8.1.– Batzordeari akordioaren inguruan bidali beharreko komunikazio guztiak idazki batean jasoko dira, akordioaren zenbakia adierazita, eta honako helbide hauetara bidaliko dira:

European Commission
Directorate-General Enterprise and Industry
Directorate Industrial Innovation and Mobility Industries
Unit D.2 Support for Industrial Innovation
1049 Brussels, Belgium
Helbide elektronikoa: INDUSTRIAL-INNOVATION-SUPPORT@es.europa.eu

I.8.2.– Posta bidez bidalitako komunikazioak, Batzordearen ardura duen sailak komunikazio horiek formalki erregistratzen dituen egunean jasotzen direla hartuko da aintzat. Posta elektroniko bidez bidalitako komunikazioak, jasotzen diren egunean jasotzen direla hartuko da aintzat. Nolanahi ere, onuradunak jasotako erantzunak mezu elektronikoa berriz helbideratzeko adierazten badio, mezu hori ez da jasotzat joko behar bezala berriz helbideratutako mezu elektronikoa jaso arte.

I.8.3.– Batzordeak, eta koordinatzaileak eta onuradunkideek elkarri bidali beharreko komunikazioak idatziak izango dira eta koordinatzailearen bitartez bidaliko dira, akordioan besterik zehazten ez bada behintzat. Akordioaren zenbakia adierazi beharko dute, eta honako helbide honetara bidaliko dira:

Xabier Zabalza jauna
Berrikuntzaren eta Informazio Gizartearen zuzendaria
Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila
Donostia kalea, 1
01010 Vitoria-Gasteiz
Espainia
Helbide elektronikoa: innova@ej-gv.es

I.8.4.– Onuradunak helbidez aldatzen badu, Batzordeari eman beharko dio horren berri, idazkia bidaliz.

I.9 artikulua.– Lege aplikagarria eta jurisdikzioa.

Diru-laguntza honek akordioaren baldintzak bete behar ditu, baita Batasunaren erregelamendu aplikagarria eta, subsidiarioki, Belgikan laguntzei dagokienez indarrean dauden legeak ere.

Onuradunek prozedura juridikoak jar ditzakete abian Europar Batasuneko Auzitegi Nagusian akordioaren xedapenak aplikatu eta abiarazteari loturik, eta apelazioa ere aurkez dezakete Justizia Auzitegian.

I.10 artikulua.– Finantzen gaineko erantzukizuna.

II.18 artikuluaren salbuespen gisa, onuradun bati erreklamatutako edozein diru-kopuruk ezin izango du akordioaren arabera jaso dezakeen ekarpena gainditu.

I.11 artikulua.– Datuak babestea.

Akordioan bildutako akordio pertsonal guztiak, egikaritzea barne, edota akordioarekin zerikusia duten datu guztiak prozesatzeko, Erkidegoko erakunde eta entitateen datu-pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsonak babesteari buruz eta datu horien mugimendu askeari buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak egindako 45/2001 Erregelamendua (EE) hartuko da aintzat. Datu horiek prozesatuko dira ENTR/D2-k akordioa abiarazteari eta horren jarraipena egiteari dagokienez soilik, eta datu horiek auditoretzaren barne-zerbitzuen eskura jar daitezke, baita Auditoreen Auzitegiaren, Finantzetako Irregulartasunen Panelaren eta/edo Iruzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoaren eskura ere, Batasunaren finantza-interesak babesteko xedearekin.

Eskaera idatzi bat aurkeztuta, onuradunek beren datu pertsonalak jaso ditzakete, eta edozein informazio oker edo osatugabe zuzendu. ENTR/D2-ri bidaliko dizkiote beren datu pertsonalen tratamenduarekin zerikusia duten galdera guztiak. Edozein unetan, onuradunek kexa bat aurkez diezaiokete datuak babesteko Europako gainbegiraleari, datu pertsonalen tratamenduaren aurka.

I.12 artikulua.– Beste baldintza berezi batzuk.

Akordio honi honako baldintza osagarri berezi hauek aplika dakizkioke:

I.12.1.– Monetak euro bihurtzeko aplikatu beharreko kanbio-tasa.

Koordinatzaileak ordainketa-eskaerak aurkeztuko ditu I.5 artikuluari jarraikiz, azpiko finantzetako egoera-orriak barne, eurotan adieraziak. II.16.1 artikuluan jasotakoa gorabehera, onuradunak benetako kostuak bihurtuko ditu, eurotara, Batzordeak ezarritako eta Batzordearen web-orrian argitaratutako hileko kontabilitate-tasaren arabera, gastua egin zen egunean aplikatu beharrekoa.

I.12.2.– Abiarazteko kontratuak.

Baldintza orokorrei buruzko II.9 artikuluaren xedapenei jarraikiz esleitutako eskuratze-kontratuaren balioa 60.000 eurotik gorakoa bada, II.9 artikuluan ezarritako xedapenez gain, onuradun arduradunak gutxienez bost hautagairen eskaintzak eskatuko ditu.

I.12.3.– Komunikazioak eta ekarpenak.

Ekintzaren jardueraren mozkinak maximizatzeko, ekintza Industria Sortzaileen Europako Aliantzaren esparruan kokatuko da. I.2.2 artikuluan zehaztutakoari jarraikiz, ekintza abiarazteko aldian zehar, koordinatzaileak egiaztatuko du onuradun guztiek Industria Sortzaileen Europako Aliantzaren logotipoa erabiltzen dutela beren kontratuzko betebeharrekin zerikusia duten jarduera guztietan. Gainera, ekintzaren emaitza guztietan jasoko da Europako Batzordeak laguntza-akordioaren indarraldian eta indarraldia amaitzean emandako baterako finantziazioari buruzko aipamena.

I.3.1 artikuluan ezarritakoaz gain, koordinatzaileak ziurtatuko du ekintzak maiztasun jakin batez, hilean behin gutxienez, Industria Sortzaileen Europako Aliantzari material, emaitza eta gomendio egokiak ematen dizkiola, eta azken horrek eta Europe Innova ekimenak antolatutako garrantzizko ekitaldi eta tailerretan parte hartzen duela. Ekintzaren ibilbidean garatutako garrantzizko informazio guztiek Industria Sortzaileen Europako Aliantzaren zigilua eramango dute, eta European Creative Industries Alliance Web atariaren bitartez hedatuko dira.

1.12.4.– Epe ertainera berraztertzea.

Laguntza emateko akordio honen xedeetarako, eta II.6 artikuluan ezarritakoez gain, Batzordeak epe ertainerako berraztertzea antolatuko du ekintzaren iraupenaren lehen erdia igaro ostean, epe ertainera egindako lana ebaluatzeko. Batzordeko zerbitzuek beren gain har dezakete berraztertzearen ardura, bakarka edo Batzordeak izendatutako kanpo-adituen laguntzarekin. Proiektuak aurkeztutako material idatzian (aurreikusitako emaitzak eta txostenak) bakarrik oinarri daiteke berraztertzea, edota “ahozko eta/edo berraztertzeko prozedura bat ere bil dezake, proiektuaren ordezkarien kontura. Berraztertzearen esparruan, proiektuaren emaitza-adierazleak aztertuko dira, eta proiektuaren lan-plana zenbateraino bete den ebaluatuko da. Berraztertzearen emaitzetan, besteak beste, zenbait gomendio tekniko bil daitezke, ekintzak datorren aldiko lanerako egingo duen plangintzan kontuan hartu beharrekoak. Berraztertzearen ondorioz, proiektua ezarritako helmugetatik desbideratu dela sinisteko arrazoirik bada, edo, beste edozein arrazoirengatik, helburuak lortu ezin ditzakeela argi geratzen bada, berraztertzeak Batzordearen laguntza finantziazioaren jarraipen baldintzatua ekar dezake berekin, ekintza aldatutako xedeetara bideratuz, edo bestela ekintza partzialki edo bere osotasunean eteteko gomendioa ekar dezake berekin. Halaber, Batzordeak laguntza-akordioa amaitzeko eskubidea dauka, II.11.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

1.12.5.– Diruz laguntzeko moduko kostuen baldintza espezifikoak.

II.14 artikuluan ezarritakoa alde batera utzi gabe, diruz laguntzeko moduko kostuak gehienez 100.000 euro izan daitezke, eta hirugarrenekiko –ETEekiko adibidez– saio-bonuetarako erabili behar dira. Bonuen kasuan proposameneko eta hartzaileko gehieneko kopurua 5.000 euro da. Saio-bonuetarako diruz laguntzeko moduko kostu horiek % 95eko finantza-ekarpena jasoko dute Erkidegoaren aldetik.

II.– BALDINTZA OROKORRAK

A ZATIA.– LEGE ETA ADMINISTRAZIO XEDAPENAK

II.1 artikulua.– Erantzukizuna.

II.1.1.– Onuradunek beren gain hartuko dute dagozkien lege-betebehar guztiak betetzeko erantzukizuna.

II.1.2.– Ekintzaren esparruan akordioarekin lotutako kalte-ordainak salatzeko erreklamazioak aurkezten badira, Batzordeak ez du horien gaineko erantzukizunik hartuko, ezein zirkunstantziatan eta ezein arrazoirengatik. Hortaz, Batzordeak ez du erreklamazio horiekin batera etor litekeen kalte-ordain eskaera edo itzulketa-eskaera bat ere onartuko.

II.1.3.– Ezinbesteko kasuetan izan ezik, onuradunek konpentsatu egingo dituzte ekintza egikaritzearen edo gaizki egikaritzearen ondorioz Batzordeak jaso ditzakeen kalteak.

II.1.4.– Onuradunek erantzukizun osoa izango dute hirugarrenen aurrean, ekintza gauzatu bitartean jasotako mota guztietako kalteen gaineko erantzukizuna barne.

II.2 artikulua.– Interes gatazka.

II.2.1.– Onuradunek beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte akordio hau inpartzialtasunez eta objektibotasunez betetzearen aurka joan litekeen interes-gatazka izateko arriskuak saihesteko. Interes ekonomikoen, kidetasun politiko edo nazionalen, arrazoi familiar edo emozionalen edo partekatutako beste edozein interesen ondorioz sor liteke interes-gatazka hori.

II.2.2.– Akordio hau betetzean interes-gatazka dakarren edo ekar dezakeen edozein egoera Batzordeari jakinarazi behar zaio idazki bidez, berandutu gabe. Onuradunek egoera berehala zuzentzeko beharrezko urratsak egiteko konpromisoa hatu dute.

II.2.3.– Abian jarritako neurriak egokiak ote diren egiaztatzeko eskubidea du Batzordeak, eta, egokitzat jotzen badu, onuradunei denbora-epe jakin baten barnean neurri osagarriak hartzeko eskaera egin diezaieke.

II.3 artikulua.– Emaitzen titulartasuna/erabilera.

II.3.1.– Akordioak besterik ezartzen ez badu, ekintzaren emaitzen titulartasuna, jabetza industrialaren eta intelektualaren eskubideak eta lotutako agiri eta txostenei dagozkienak barne, onuradunen esku utziko da.

II.3.2.– 1. paragrafoan xedatutakoa alde batera utzi gabe, onuradunek Batzordearen esku uzten dute ekintzaren emaitzak askatasunez eta egokitzat jotzen duen moduan erabiltzeko aukera, betiere horrela jardunez indarrean dauden jabetza industrialaren eta intelektualaren eskubideak edo konfidentzialtasun-konpromisoak urratzen ez baditu.

II.4 artikulua.– Konfidentzialtasuna.

Batzordeak eta onuradunek konfidentzialtasuna gordeko dute konfidentzial gisa sailkatutako agiri edo informazio ororen inguruan, baita, akordioaren xedearekin zuzenean lotuta egonik konfidentzialtzat jo izan den edozein materialen inguruan ere, baldin eta horren hedapena beste alderdiarentzat kaltegarri gerta badaiteke. Ekintza amaitu ondoren ere, betebehar hori loteslea izango da alderdientzat.

II.5 artikulua.– Publizitatea.

II.5.1.– Batzordeak besterik eskatzen ez badu, onuradunek, bakarka edo taldeka, ekintzaren inguruan egiten duten edozein komunikazio edo argitalpenetan, hitzaldi edo mintegietan egiten direnak barne, ekintzak Batasunaren finantziazioa jaso duela aipatuko da.

Onuradunek, bakarka edo taldeka, ekintzaren inguruan egiten duten komunikazio edo argitalpen orotan, zera aipatuko da, batetik, erantzukizun osoa egilearena dela, eta, bestetik, Batzordeak ez duela bere gain hartuko horietan jasotako informaziotik egin daitekeen erabileraren gaineko erantzukizuna.

II.5.2.– Onuradunek Batzordeari baimena ematen diote honako informazio hauek edonola eta edozein komunikabidetan argitaratzeko, internet barne:

• onuradunen izenak eta helbideak,

• laguntzaren xedea eta proposamena,

• emandako diru-kopurua eta finantziazioaren eraginpeko ekintzaren guztizko kostuetan duen proportzioa.

Koordinatzaileak arrazoizko eskaera bat egiten badu, ongi justifikatua eta argudio sendoak erabiliz; Batzordeak publizitate horri uko egin diezaioke, baldin eta aldez aurretik aipatutako informazioaren hedapena onuradunaren segurtasunaren edo merkataritza-interesen kaltetan joan badaiteke.

II.6 artikulua.– Ebaluazioa.

Batzordeak bitarteko edo azken ebaluazio bat egiten badu ekintzak Batasunaren dagokion programaren helburuetan zenbaterainoko eragina duen neurtzeko, koordinatzaileak, onuradunkideen laguntzarekin, Batzordeak eta/edo Batzordeak baimendutako pertsonen esku jarriko ditu ebaluazioa ongi bideratzea ahalbidetuko duten agiri eta informazio guztiak, formatu elektronikoan jasotako informazioa barne, eta II.20 artikuluan zehaztutako sarbide-eskubideak emango dizkie.

II.7 artikulua.– Etetea.

II.7.1.– Koordinatzaileak, onuradunkideekin ados jarrita, ekintza abiarazteko ekimena eten dezake baldin eta salbuespenezko zirkunstantziek ekintza ezinezko edo zailegi egiten badute, ezinbesteko kasuetan bereziki. Koordinatzaileak etetearen berri emango dio Batzordeari, berandutu gabe, eta beharrezko arrazoi eta xehetasun guztiak eta berriz hasteko aurreikusitako eguna adieraziz.

II.7.2.– Batzordeak akordioa amaitzen ez badu II.11.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, onuradunek berriz ere ekintza abiarazteari ekingo diote hasiera batean aurreikusitakoari jarraikiz, zirkunstantziek horretarako bide ematen dutenean, eta koordinatzaileak Batzordeari emango dio horren berri. Ekintzaren iraupena luza daiteke etenaldiak irauten duen denbora berean. II.13

artikuluarekin bat etorriz, akordio osagarri idatzi bat formalizatuko da, batetik, ekintzaren iraupena luzatzeko, eta, bestetik, ekintza abiarazte-baldintza berrietara egokitzeko beharrezkoak diren aldaketak egiteko.

II.8 artikulua.– Ezinbesteko kasuak.

11.8.1.– Ezinbesteko kasuak salbuespenezko eta ustekabeko gertakariak edo arrazoiak dira, alderdien kontrolpetik kanpo egonik alderdiei akordioan ezarritako betebeharrak betetzea galarazten dietenak, ez alderdien hutsegiteen edo zabarkeriaren ondorioz, gaindiezinak direlako baizik, ahalik eta ardurarik handienarekin jokatuta ere. Ekipoak zein materialak akatsak dituenean edo horniduran atzerapenak gertatzen direnean (ezinbestekoak ez badira), edota lan-gatazkak, grebak edo finantza-zailtasunak agertzen direnean, ez dago esaterik betetzen ez duen alderdia ezinbesteko kasu batean dagoenik.

11.8.2.– Ezinbesteko kasu bati aurre egiten dion alderdi batek beste alderdiari emango dio kasuak dauzkan ezaugarrien eta izan ditzakeen iraupenaren eta ondorioen berri, berandutu gabe gutun ziurtatua bidaliz eta hartu izanaren berri emateko eskatuz edo antzeko sistema bat erabiliz.

11.8.3.– Ezinbesteko kasuari aurre egiten dion alderdia ez da akordioaren arabera bere gain hartutako betebeharren ez-betetzailetzat hartuko baldin eta ezinbesteko kasu batek galarazten badio betebehar horiek betetzea. Alderdiek beren esku dagoen guztia egingo dute ezinbesteko arrazoiengatik gertatutako kalteak arintzeko.

II.9 artikulua.– Kontratuen esleipena.

II.9.1.– Onuradunek ekintza aurrera eramateko kontratuak formalizatu behar badituzte, eta kontratu horiek ekintzaren kostuak badira behin-behineko aurrekontuko diruz laguntzeko moduko zuzeneko kostuei buruzko epigraferen baten arabera, errentagarritasunik handiena eskaintzen duen eskaintzari esleituko diote kontratua; prozesu horretan zehar, interes-gatazkak saihesten ahaleginduko dira.

II.9.2.– 1. paragrafoan aipatutako kontratuak honako kasu hauetan baino ez dira esleituko:

a) ekintzaren zati mugatu bat egikaritzea baino ezin dute estali;

b) kontratuak esleitu egin daitezke baldin eta ekintzaren nondik norakoak eta ekintza abiarazteko beharrezkoa dena aintzat hartzen badira.

c) zereginak 1. eranskinean ezarri behar dira, eta dagozkien behin-behineko kostuak, berriz, aurrekontuan jaso behar dira zehatz-mehatz, II. eranskinean;

d) behin ekintza abian denean kontratuak esleitzen badira, hasiera bateko laguntza-eskaeran hori jasota ez bazegoen ere, Batzordeak aldez aurreko baimen idatzia eman beharko du horretarako;

e) onuradunak izango dira ekintza aurrera eramateko eta akordioan jasotako xedapenak betetzeko arduradun bakarrak. Onuradunek beharrezko gestioak egingo dituzte akordioa betez kontratistak Batzordeari dagokionez duen edozein eskubideri uko egiten diola ziurtatzeko;

f) onuradunek ziurtatu behar dute akordioaren II.1, II.2, II.3, II.4, II.5, II.6, II.10 eta II.20 artikuluei jarraikiz aplikatzen zaizkien baldintzak kontratistei ere aplikatzen zaizkiela.

II.10 artikulua.– Lagapena.

II.10.1.– Batzordeak egin beharreko ordainketa-errekerimenduak ezin izango dira transferitu.

II.10.2.– Salbuespenezko zirkunstantzietan, egoerak horretarako bermea ematen badu, Batzordeak akordio osoa edo akordioaren zati bat hirugarrenei lagatzeko eta lagapen horren ordainketen fluxua hirugarrenen esku uzteko baimena eman dezake, baldin eta koordinatzaileak, onuradunkideekin ados jarrita, horretarako eskaera idatzia egiten badu, arrazoiak azalduz. Batzordeak oniritzia ematen badu, koordinatzaileari idazki bat bidaliko dio horren berri emateko, proposatutako lagapena gertatu baino lehen. Baimenik eduki ezean, edo baimenaren baldintzak bete ezean, Batzordeak ez du nahitaez lagapena bete beharko eta beraz lagapenak ez dio Batzordeari inola eragingo.

II.10.3.– Lagapen hori gorabehera, onuradunek Batzordearekiko dituzten betebeharrak bete beharko dituzte kasu guztietan.

II.11 artikulua.– Akordioa bukatzea.

II.11.1.– Koordinatzaileak bukatzea.

Behar bezala justifikatutako kasuetan, koordinatzaileak, onuradunkideekin bat etorriz, onuradunen laguntza-eskaera bertan behera utz dezake eta akordioa edozein unetan bukatu, 60 egun lehenago idazki bat bidaliz bere arrazoien berri emateko, eta arrazoi horrengatik ezin izango zaio inolako kalte-ordainik eskatu.

Inolako arrazoirik ematen ez bada edo Batzordeak arrazoiak onartzen ez baditu, akordioari bidegabeko bukaera eman zaiola hartuko da aintzat, eta horrek 5. paragrafoaren bosgarren azpiparagrafoan ezarritako ondorioak ekarriko ditu berekin.

II.11.1.– Onuradun baten partaidetza bukatzea.

Behar bezala justifikatutako kasuetan, koordinatzaileak onuradun baten partaidetza amaitzeko eskaera egin dezake, 60 eguneko aurreabisu idatzia emanez. Koordinatzaileak, Batzordeari eskaera hori egitean, gainerako onuradunek onuradun horren zereginak berresleitzeko egindako proposamena adieraziko du, edo, hala badagokio, ordezko baten izendapena, partaidetza bukatzeko arrazoiak eta partaidetza bukatzea eskatu zaion onuradunaren iritzia ere adieraziko ditu.

Behar bezala justifikatutako kasuetan, edozein onuradunek eska dezake akordioan duen partaidetza bukatzeko. Koordinatzaileak Batzordeari eskaera aurkeztu behar dio, idazki bidez 60 eguneko aurreabisua emanez eta arrazoiak azalduz.

Inolako arrazoirik ematen ez bada edo Batzordeak arrazoiak onartzen ez baditu, partaidetzari bidegabeko bukaera eman zaiola hartuko da aintzat, eta horrek 5. paragrafoaren bosgarren azpiparagrafoan ezarritako ondorioak ekarriko ditu berekin.

Batzordeak onartzen duen egunean bukatuko da dagokion onuradunaren partaidetza. Ekintza bukatze partzialaren haritik etorritako abiarazte-baldintza berrietara egokitzeko beharrezko edozein aldaketa gauzatzeko, akordio idatzi osagarri bat formalizatuko da.

II.11.3.– Batzordeak bukatzea.

Behean adierazitako zirkunstantzietan, Batzordeak akordioa bukatzeko edo ekintzan parte hartzen duten onuradunetako baten edo batzuen partaidetza bukatzeko erabakia har dezake, kalte-ordaina ordaindu beharrik gabe:

(a) onuradunaren legezko, finantzetako, antolamenduzko edo titulartasuneko egoeran zein egoera teknikoan aldaketarik gertatzen bada, baldin eta aldaketa horrek akordioan funtsezko eragina izan badezake edota laguntza emateko erabakia zalantzan jar badezake;

(b) baldin eta onuradunak akordioari jarraikiz (eranskinak barne) bere gain hartutako funtsezko betebeharretako bat betetzen ez badu;

(c) ezinbesteko kasuan, II.8 artikuluari jarraikiz jakinarazten bada; edota ekintza eten bada II.7 artikuluari jarraikiz jakinarazitako salbuespenezko zirkunstantzien ondorioz;

(d) baldin eta onuradunak porrot- edo likidazio-aitorpena egiten badu, auzitegien esku auziren bat badu, hartzekodunekin nolabaiteko akordioa egin badu, merkataritza-jarduerak eten baditu, gai horiei dagokienez antzeko prozesuen eraginpean badago edo antzeko egoera batean badago legeriak edo erregelamendu nazionalek aintzat hartutako antzeko prozesu baten ondorioz;

(e) Batzordeak ebidentziak edo susmo sendoak baditu onuradunaren edo onuradunarekin lotutako edozein entitate edo pertsonaren jokabide profesional desegokiaren inguruan;

(f) baldin eta onuradunak bete ez baditu gizarte-segurantzarekiko kontribuzioak ordaintzearekin edo zergak ordaintzearekin zerikusia duten betebeharrak, onuraduna ezarrita dagoen herrialdeko legean ezarritakoa betez;

(g) baldin eta Batzordeak ebidentziak edo susmo sendoak baditu onuradunaren edo hari lotutako pertsona baten iruzurraren, ustelkeriaren edo erakunde kriminal batekiko edo legearen aurka doan beste edozein jarduerarekiko inplikazioaren inguruan, jarduera horiek Batasunaren finantza-interesekiko kaltegarri badira;

(h) baldin eta Batzordeak ebidentziak edo susmo sendoak baditu onuradunak edo onuradunari lotutako entitate edo pertsona batek, esleipen-prozesuan edo laguntza erabiltzean, funtsezko hutsegiteak, irregulartasunak edo iruzurra egin dituela pentsatzeko.

(i) baldin eta onuradunak gezurrezko adierazpenak egin baditu edo errealitatearekin bat ez datozen txostenak aurkezten baditu akordioan aurreikusitako laguntza lortzeko.

Aurreko (e), (g) eta (h) puntuetan aipatutako kasuetan onuradunari dagokionez, erabakitzeko edo kontrolatzeko ahalmena duen edozein pertsona fisiko izango da lotutako pertsona. Lotutako entitateak izango dira, berriz, 1983ko ekainaren 13ko 83/349/EEE Kontseiluaren zazpigarren Zuzentarauaren I. artikuluan ezarritako irizpideak betetzen dituzten entitateak.

II.11.4.– Bukatzeko prozedura.

Prozedurari hasiera emateko gutun ziurtatua bidaltzen da, jaso izanaren berri emateko eskatuz edo antzeko sistemaren bat erabiliz. Koordinatzaileak ziurtatuko du onuradun guztiek behar bezalako informazioa jasotzen dutela.

Aurreko (a), (b), (d), (e), (g) eta (h) puntuetan aipatutako kasuetan, koordinatzaileak, onuradunei kontsultatuta, 30 eguneko epea izango du, batetik, oharrak aurkezteko, eta, bestetik, akordioari jarraikiz onuradunek beren gain hartutako betebeharrak etengabe betetzen dituztela ziurtatzeko beharrezko neurriak hartzeko. Jasotzen dituen egunaz geroztik 30 eguneko apean Batzordeak ohar horiek onartzen ez baditu idazki baten bitartez, bukatzeko prozedurak bere bidea jarraituko du.

Aurreabisu bat ematen denean, aurreabisuaren aldia amaitutakoan hasiko da indarrean bukaera. Batzordeak onuradun baren partaidetza edo akordioa bukatzeko hartutako erabakiaren jakinarazpena jasotzen den egunean hasiko da aurreabisuaren aldia.

Aurreko c), (f) eta (i) puntuetan aipatutako kasuetan aurreabisurik ematen ez bada, Batzordeak onuradun baten partaidetza edo akordioa bukatzeko hartutako erabakiaren jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunean hasiko da indarrean bukaera.

II.11.5.– Bukaeraren ondorioak.

Akordioa bukatzen bada, bukaera hasten den egunera arte onuradunek de facto egindako diruz laguntzeko moduko kostuetara mugatuko dira Batzordeak egindako ordainketak, II.17 artikuluari jarraikiz. Indarrean egonik indarraldia bukaeraren ondoren amaitzen zaien konpromisoei lortutako kostuak ez dira kontuan hartuko.

Koordinatzaileak 60 eguneko epea izango du Batzordearen jakinarazpenaren arabera akordioaren bukaera indarrean hasten den egunaz geroztik, II.15.4 artikuluaren araberako azken ordainketa bat eskatzeko. Epe horren barruan ordainketa-eskaerarik jasotzen ez badu, Batzordeak ez ditu itzuliko bukaeraren egunera arte onuradunek egindako gastuak, eta Batzordeak onartutako finantzetako egoera-orriei eta abiarazte teknikoari buruzko txostenen arabera justifikatu ez diren erabilerei dagozkien zenbatekoak berreskuratuko ditu.

Bukaerak onuradun baten partaidetzari eragiten badio, II.17 artikuluari jarraikiz partaidetzaren bukaera indarrean hasten den egunera arte onuradunak egindako diruz laguntzeko moduko kostuak bakarrik joko dira diruz laguntzeko moduko kostutzat. Indarrean egonik indarraldia bukaera hasi ondoren amaitzen zaien konpromisoei lotutako ez dira kontuan hartuko. Dagokion onuradunaren partaidetzaren bukaera indarrean hasten den egunera arte egindako diruz laguntzeko moduko kostuen ordainketa-eskaera, 1.6 artikuluan ezarritako egutegiaren arabera aurreikusitako ondorengo ordainketa-eskaeran bilduko dira.

Salbuespenez, 4. paragrafoan aipatutako aurreabisuaren aldiaren amaieran, Batzordeak akordioa bukatzen badu argudiatuz koordinatzaileak azken abiarazte teknikoari buruzko txostena eta finantzetako egoera-orriak 1.5 artikuluan ezarritako apearen barruan ez dituela aurkeztu, eta koordinatzaileak oraindik betebehar hori ez duela bete Batzordeak gutun ziurtatua bidaliz eta jaso izanaren berri emateko eskatuz edo antzeko sistemaren bat erabiliz egindako abisuaren ondorengo bi hilabeteetan, Batzordeak ez ditu itzuliko ekintza amaitu zen egunera arte onuradunek egindako gastuak, eta Batzordeak onartutako finantzetako egoera-orriek eta abiarazte teknikoari buruzko txostenek justifikatu gabeko erabilerei dagozkien zenbatekoak berreskuratuko ditu.

Salbuespenez, onuradunak ekintzan duen partaidetzaren edo koordinatzailearen akordioaren bidegabeko bukaera gertatzen bada, edo Batzordearen bukaera gertatzen bada aurreko (a), (e), (g), (h) edo (i) ataletan ezarritako puntuetan oinarrituz, akordioari jarraikiz Batzordeak onartutako finantzetako egoera-orrien eta abiarazte teknikoari buruzko txostenen arabera ordaindutako diru-kopuru guztiak edo horien zati bat ordaintzeko eskaera egin dezake Batzordeak, ez-betetzeen larritasuna aintzat hartuta, eta koordinatzaileari, eta, hala badagokio, eraginpeko onuradunei, oharrak aurkezteko baimena eman ondoren.

II.12 artikulua.– Finantza zehapenak.

II.12.1.– Europako erkidegoetako aurrekontu orokorrari aplikatzekoa den finantza-erregelamenduari jarraikiz, akordioaren arabera bere gain hartutako betebeharren inguruan arau-hauste larria egiten duen onuradunari dagokion laguntzan duen partaidetzaren balioaren % 2tik % 10era bitarteko finantza-zehapenak ezartzeko aukera izango da, proportzionaltasun-printzipioa behar bezala aplikatuta.

II.12.2.– Gainera, tasa hori % 4tik % 20ra bitarte handitzeko aukera izango da, baldin eta ez-betetzea errepikatzen badu lehenaren ondoko bost urteetan.

II.12.3.– Dagokion onuradunari idazki bidez jakinaraziko zaizkio Batzordeak zehazpen horien aplikazioaren inguruan hartutako erabakiak.

II.13 artikulua.– Akordio osagarriak.

II.13.1.– Laguntzak ematerakoan aldaketarik gertatzen bada, akordio idatzi osagarria egingo da.

II.13.2.– Akordio osagarriak ezin du akordioa aldatzeko helbururik edo xederik eduki, baldin eta aldaketa horiek laguntza emateko erabakia zalantzan jartzen badute edo eskatzaileen tratamendu desberdinaren ondorio badira.

II.13.3.– Koordinatzaileak, onuradunkideekin ados jarrita, aldaketa bat eskatzen badu, Batzordeari bidaliko dio eskaera behar adinako denboraz, indarrean hasi arte, eta, edozein kasutan, ekintza ixten den eguna baino hilabete lehenago, koordinatzaileak behar bezala justifikatutako eta Batzordeak onartutako kasuetan izan ezik.

B ZATIA.– FINANTZA XEDAPENAK

II.14 artikulua.– Diruz laguntzeko moduko kostuak.

11.14.1.– Ekintzaren diruz laguntzeko moduko kostuak onuradunak gauzatutako kostuak dira, honako irizpide hauek betetzen dituztenak:

– akordioaren 1.2.2 artikulua betez ekintzak irauten duen bitartean gauzatzen dira kostu horiek, ekintzaren azpiko kontuen eta finantzetako egoera-orrien ziurtagiriekin eta behin betiko txostenekin lotutako kostuen salbuespenarekin;

– akordioaren xedearekin lotuta daude, eta ekintzaren behin-behineko aurrekontu orokorrean jaso dira;

– laguntzaren eraginpeko ekintza abiarazteko beharrezkoak dira;

– Identifikatzeko eta egiaztatzeko modukoak dira, eta zehazki onuradun baten kontabilitate-erregistroetan inskribatzen dira, eta onuraduna ezarrita dagoen herrialdean aplikatu beharreko kontabilitate-arauen arabera zehazten dira, kostu-kontabilitatearen arloan onuradunak dituen ohiko praktikei jarraikiz;

– Aplikatu beharreko lan-legeriaren eta zerga-legeriaren betekizunak betetzen dituzte;

– Arrazoizkoak dira, justifikatuta daude eta finantza-kudeaketa sendoa dute, errentagarritasunari eta eraginkortasunari dagokienez bereziki.

Onuradunaren kontabilitate- eta auditoretza-prozedurek aukera eman behar dute ekintzari dagokionez aitortutako diru-sarrerak eta kostuak dagozkien kontabilitateko egoera-orriekin eta agiri lagungarriekin zuzenean uztartzeko.

II.14.2.– II.14.1 artikuluan ezarritako diru-laguntza jasotzeko baldintzak betez, ekintza egikaritzearekin lotuta dauden zuzeneko kostu espezifikoak diren kostuak eta ondorioz kontabilitate-xedeetarako ekintzari zuzenean lotuta erregistra daitezkeenak dira ekintzaren diruz laguntzeko moduko zuzeneko kostuak. Zehazki, zuzeneko honako kostu hauek jaso ditzakete diru-laguntzak, betiere aurreko paragrafoan ezarritako irizpideak betetzen badituzte:

– ekintzari esleitutako langileen kostua, benetako soldatak gehi gizarte-segurantzarekiko kargak eta ordainsariaren barnean hartutako bestelako lege-kostuak barne, betiere ordainsariak gainditzen ez baditu onuradunaren ordainsariari buruzko ohiko politikari dagozkion batez besteko mailak.

Administrazio nazionaletako langileei dagozkien soldata-kostuek diru-laguntza jaso dezakete baldin eta zerikusia badute dagokion proiektua aurrera eramango ez balitz eskumeneko agintari publikoek gauzatuko ez lituzketen jardueren kostuarekin;

– Ekintzan parte hartzen duten langileen bidaiak eta ordezkaritza-gastuak, betiere bidaia-gastuei dagokienez onuradunak dituen ohiko praktikekin bat etortzen badira edo Batzordeak urtero-urtero onartutako mugak gainditzen ez badituzte;

– Ekipamendu berria edo bigarren eskukoa erosteko kostua, betiere amortizatu bada onuradunari aplikatzekoak diren eta antzeko partidetarako oro har onartuta dauden zerga- eta kontabilitate-erregelamenduei jarraikiz. Batzordeak ekintzaren iraupenari dagokion ekipoaren amortizazio zatia eta ekintza-xedeetarako benetako erabilera-tasa baino ez du kontuan hartuko, erabileraren testuinguruak eta/edo ezaugarriek Batzordearen beste tratamendu bat justifikatzen duten kasuetan izan ezik.

– Kontsumigarri eta horniduren kostuak, betiere identifikatzeko modukoak badira eta ekintzari esleitzeko aukera badago;

– Ekintza aurrera eramateko asmoarekin onuradunak esleitutako beste kontratu batzuei lotutako kostuak, betiere II.9 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badira;

– Akordioak ezarritako betekizunetatik (informazio-hedapena, ekintzaren ebaluazio espezifikoak, auditoretzak, itzulpenak, erreprodukzioa eta abar) zuzenean eratorritako kostuak, finantza-zerbitzuetako kostuak barne, finantza-bermeetako kostua bereziki. Ekintzaren kudeaketa orokorraren eta onuradunen koordinazioaren organo arduraduna den heinean bere erantzukizunak betetzeko helburuarekin koordinatzaileak gauzatutako kostu espezifikoak ere bil daitezke kostu horietara.

II.14.3.– II.14.1 artikuluan deskribatutako hautaketa-baldintzak betez ekintza egikaritzearekin zuzeneko loturarik ez badute ere eta kontabilitate-xedeetarako ekintzaz aparte egonda ere, koordinatzaile edo onuradunkide batek bere kontabilitate-sistema erabiliz ekintzarako diruz laguntzeko moduko kostuei loturik gauzatutako kostu gisa identifikatu eta justifika ditzakeenak dira ekintzarako diruz laguntzeko moduko zeharkako kostuak. Horien artean ez dago diruz laguntzeko moduko inolako kostu zuzenik sartzea.

II.14.1 artikuluan ezarritakoa gorabehera, ekintza aurrera eramatean gauzatutako zeharkako kostuek diru-laguntza jaso dezakete oroharreko prezioaren finantziazioarekin, eta finantziazio hori, gehienez, diruz laguntzeko moduko zuzeneko kostu guztien % 7 izan daiteke. 1.4.2 artikuluan oroharreko prezioaren araberako finantziazioa aintzat hartzen bada zeharkako kostuei dagokienez, kostu horiek ez dira justifikatu beharko kontabilitate-agirien bitartez.

II.14.4.– Honako kostu hauek ez dira diruz laguntzeko modukoak izango:

• Kapitalaren gaineko errendimendua;

• Zorra eta zorraren zerbitzuko kargak;

• Galeretarako edo etorkizunean etor litezkeen zorretarako hornidurak;

• Ordaindu beharreko interesak;

• Zalantzazko zordunak;

• Trukeagatiko galerak;

• BEZa, onuradunak frogatzen ez badu aplikatu beharreko legeria nazionalaren arabera berreskuratu ezin dezakeela. Erakunde publikoek ordaindutako BEZa ez da diruz laguntzeko moduko kostua;

• Onuradun batek aitortutako eta Batasunaren laguntza jasotzen duen beste lan-programa edo ekintza batek estalitako kostuak;

• Gehiegizko edo neurriz kanpoko gastuak.

II.14.5.– Gauzazko kontribuzioak ez dira kostu subentzionagarriak izango. Hala eta guztiz ere, Batzordearen esku dago onartzea, beharrezkotzat edo egokitzat jotzen badu, 1.4.3 artikuluan aipatutako ekintzaren baterako finantziazio osoa edo finantziazioaren zati bat espezietan egindako ekarpenen bitartez egitea. Kasu horretan, ekarpen horietarako kalkulatutako balioak ezin ditu honako hauek gainditu:

• dagozkien kostuak beren gain hartuta inolako kosturik gabe onuradunari ekarpenak egin dizkioten hirugarrenen kontabilitate-agirien bitartez behar bezala jasotako eta justifikatutako benetako kostuak;

• dagokion ekarpenerako dagokion merkatuan oro har onartuta dauden kostuak, baldin eta inolako gasturik egin ez bada.

Eraikinekin zerikusia duten ekarpenak ezin izango dira kasu honetan sartu.

Baterako finantziazioa espezietan gauzatzen bada, ekarpenei finantza-balio bat esleituko zaie, eta kopuru berbera ekintzaren kostuetara bilduko da diruz laguntzeko modukoa ez den kostu gisa; ekintzaren diru-sarreretan, berriz, espezietan batera finantzatu beharrezkotzat joko da. Onuradunek ekarpen horiek lortuko dituzte akordioan aurreikusitakoaren arabera.

II.14.6.– 3. paragrafoan jasotakoa gorabehera, zeharkako kostuak ez dira diruz laguntzeko modukoak izango, dagokion aldian Batzordearen diru-laguntza bat jasotzen ari den onuradunari emandako ekintzarako laguntza bati jarraikiz.

II.15 artikulua.– Ordainketa eskaerak.

Baldintza bereziei buruzko 1.5 artikuluari jarraikiz egingo dira ordainketak.

II.15.1.– Aurrefinantziazioa.

Finantziazioaren bitartez onuradunei funts-aurrerakina eman nahi zaie.

Aurrefinantziazioari buruzko 1.5 artikuluko xedapenek horrelakorik eskatzen badute, Batasuneko estatu kide batean ezarritako banku edo finantza-erakunde baimendu baten finantza-bermea emango du koordinatzaileak.

Bermatzailea izango da berme nagusia, eta Batzordeari ez dio eskatuko zordun nagusiaren aurka errekurtsoa jartzeko eskubidea edukitzea.

Finantza-bermeak indarrean jarraituko du Batzordeak egindako azken ordainketek aurrefinantziazioarekin bat datorren laguntza osoaren proportzioa lortu arte. Batzordeak 60 eguneko epean askatuko du bermea, egun horretatik zenbatzen hasita.

II.15.2.– Ondoko aurrefinantziazio ordainketak.

Aurrefinantziazioa zenbait epetan banatzen bada, koordinatzaileak ondoko aurrefinantziazio-ordainketak eska ditzake behin ondoko finantziazioari buruzko 1.5 artikuluko xedapenetan

zehaztutako aurreko ordainketen ehunekoa agortu ondoren. Eskaerarekin batera honako agiri hauek aurkeztuko dira:

• benetan egindako gastu guztiei buruzko azalpen xehatua, onuradun bakoitzeko banakapena eta egoera-orri bateratua barne;

• 1. paragrafoaren araberako finantza-bermea, 1.5 artikuluan aldez aurretik aipatutako xedapenek horrelakorik eskatzen badute;

• 1.5 artikuluan aldez aurretik aipatutako xedapenek horrelakorik eskatzen badute, ekintzaren azpiko kontuen eta finantzetako egoera-orrien ziurtagiria, auditore baimendun batek emana, edo, erakunde publikoen kasuan, zeregin horretarako gaitutako funtzionario publiko batek emana, onuradun bakoitzarentzat 1.5 artikuluan zehaztutakoaren arabera. Ziurtagiriak egiaztatuko du, Batzordeak onartutako metodologia bati jarraikiz, onuradunek finantzetako egoera-orrietan aitortutako kostuak, ordainketa-eskaerek oinarritzat hartu dituztenak, benetakoak direla, zehaztasunez jaso direla eta diruz laguntzeko modukoak direla, eta diru-sarrera guztiak aitortu direla, akordioarekin bat etorriz.

Ordainketa-eskaerarekin bat datozen agiriak 1.6 artikuluko eta eranskinetako xedapenak betez idatzi behar dira.

II.15.3.– Bitarteko ordainketak.

Bitarteko ordainketen xedea onuradunei gastu jakin batzuk itzultzea da, hain zuzen ere gauzatutako kostuen azalpen xehatu baten bidez justifikatutako gastuak, behin ekintza gauzatze-maila jakin batera iritsi ondoren. Aurrefinantziazio osoa edo horren zati bat likidatzeko aukera dago.

1.6 artikuluan jasotako aurreikusitako epemugarako, koordinatzaileak bitarteko ordainketarako eskaera bat aurkeztuko du honako agiri hauekin batera:

• ekintza abiarazteari buruzko bitarteko txostena;

• benetan gauzatutako diruz laguntzeko moduko kostuen bitarteko finantzetako egoera-orria behin-behineko aurrekontuaren egiturari jarraikiz, onuradun bakoitzeko banakapena eta egoera-orri bateratua barne;

• bitarteko ordainketei buruzko 1.5 artikuluan jasotako xedapenek horrelakorik eskatzen badute, ekintzaren azpiko kontuen eta finantzetako egoera-orrien ziurtagiria, auditore baimendun batek emana, edo, erakunde publikoen kasuan, zeregin horretarako gaitutako funtzionario publiko batek emana, onuradun bakoitzarentzat 1.5 artikuluan zehaztutakoaren arabera. Ziurtagiriak egiaztatuko du, Batzordeak onartutako metodologia bati jarraikiz, onuradunek finantzetako egoera-orrietan aitortutako kostuak, ordainketa-eskaerek oinarritzat hartu dituztenak, benetakoak direla, zehaztasunez jaso direla eta diruz laguntzeko modukoak direla, eta diru-sarrera guztiak aitortu direla, akordioarekin bat etorriz.

Ordainketa-eskaerarekin bat datozen agiriak 1.6 artikuluko eta eranskinetako xedapenak betez idatzi behar dira. Koordinatzaileak ziurtatuko du bere ordainketa-eskaeran emandako informazioa osoa, fidagarria eta benetakoa dela. Ziurtatuko du, halaber, gauzatutako kostuak diruz laguntzeko modukotzat jo daitezkeela akordioarekin bat etorriz, baita diru-sarrera guztiak aitortu direla eta ordaintzeko eskaera justifikatu dela ere, azken hori egiazta daitezkeen agiri lagungarri egokien bitartez.

Agiri horiek jasotzean, Batzordeak honako hauek gauzatu beharko ditu 1.5 artikuluan zehaztutako aldian:

• ekintza abiarazteari buruzko bitarteko txostena onartzea;

• koordinatzaileari agiri lagungarriak edo txostena onartzeko beharrezkotzat jotzen duen edozein informazio osagarri eskatzea;

• txostena baztertzea eta txosten berri baten aurkezpena eskatzea.

Batzordeak idazki bidez erantzuten ez badu azterketarako aldez aurretik adierazitako epearen barruan, txostena onartutzat joko da. Ordainketa-eskaerarekin batera doan txostenaren onarpenak ez du berekin ekarriko txostenean jasotako informazio eta aitorpenen erregulartasuna, egiazkotasuna, osotasuna edo zehaztasuna onartzea.

Informazio osagarriarekin edo txosten berriekin zerikusia duten eskaerak onuradunari jakinaraziko zaizkio idazki baten bitartez.

Informazio osagarria edo txosten berri bat eskatzen bada, azterketarako gehieneko denbora luzatu egingo da informazio hori lortzeak eskatzen duen denborarekin bat etorriz. Koordinatzaileari emango zaio eskaera horren eta azterketarako luzatutako denboraren berri, agiri formal baten bitartez. Koordinatzaileak 1.5 artikuluan zehaztutako aldia izango du informazioa edo eskatutako agiri berriak aurkezteko.

Txostena onartzeko epea luzatzen bada, ordainketa epe berean atzera daiteke.

Txosten bat baztertu eta txosten berri bat eskatzen bada, artikulu honetan deskribatutako onarpen-prozedura aplikatuko da.

Txosten berria ere baztertzen bada, Batzordeak akordioa bukatzeko eskubidea izango du, II.11.3 (b) artikuluari jarraikiz.

II.15.4.– Likidazioaren ordainketa.

Likidazioaren ordainketa, errepikatu ezin daitekeena, ekintza amaitu ondoren egiten da, ekintza aurrera eramatean benetan gauzatutako kostuak oinarritzat hartuta. Berreskuratzeko agindu bihur daiteke, baldin eta aurreko ordainketen guztizko zenbatekoak zehaztutako azken laguntzaren zenbatekoa gainditzen badu, II.17 artikuluarekin bat etorriz.

1.6 artikuluan aurreikusitako epemugarako, koordinatzaileak likidazioa ordaintzeko eskaera bat aurkeztuko du honako agiri hauekin batera:

• ekintza abiarazteari buruzko azken txostena;

• benetan gauzatutako diruz laguntzeko moduko kostuen finantzetako azken egoera-orria behin-behineko aurrekontuaren egiturari jarraikiz, onuradun bakoitzeko banakapena eta egoera-orri bateratua barne;

• ekintzaren gastu eta diru-sarrera guztien laburpen osoa, onuradun bakoitzeko banakapena eta egoera-orri bateratua barne;

• likidazio-ordainketei buruz 1.5 artikuluan jasotako xedapenek horrelakorik eskatzen badute, ekintzaren azpiko kontuen eta finantzetako egoera-orrien ziurtagiria, auditore baimendun batek emana, edo, erakunde publikoen kasuan, zeregin horretarako gaitutako funtzionario publiko batek emana, onuradun bakoitzarentzat 1.5 artikuluan zehaztutakoaren arabera. Ziurtagiriak

egiaztatuko du, Batzordeak onartutako metodologia bati jarraikiz, onuradunek finantzetako egoera-orrietan aitortutako kostuak, ordainketa-eskaerek oinarritzat hartu dituztenak, benetakoak direla, zehaztasunez jaso direla eta diruz laguntzeko modukoak direla, eta diru-sarrera guztiak aitortu direla, akordioarekin bat etorriz.

Ordainketa-eskaerarekin bat datozen agiriak 1.6 artikuluko eta eranskinetako xedapenak betez idatzi behar dira. Koordinatzaileak ziurtatuko du bere ordainketa-eskaeran emandako informazioa osoa, fidagarria eta benetakoa dela. Ziurtatuko du, halaber, gauzatutako kostuak diruz laguntzeko modukotzat jo daitezkeela akordioarekin bat etorriz, baita diru-sarrera guztiak aitortu direla eta ordaintzeko eskaera justifikatu dela ere, azken hori egiazta daitezkeen agiri lagungarri egokien bitartez.

Agiri horiek jasotzean, Batzordeak honako hauek gauzatu beharko ditu 1.5 artikuluan zehaztutako aldian:

• ekintza abiarazteari buruzko azken txostena onartzea;

• koordinatzaileari agiri lagungarriak edo txostena onartzeko beharrezkotzat jotzen duen edozein informazio osagarri eskatzea;

• txostena baztertzea eta txosten berri baten aurkezpena eskatzea.

Batzordeak idazki bidez erantzuten ez badu azterketarako aldez aurretik adierazitako epearen barruan, txostena onartutzat joko da. Ordainketa-eskaerarekin batera doan txostenaren onarpenak ez du berekin ekarriko txostenean jasotako informazio eta aitorpenen erregulartasuna, egiazkotasuna, osotasuna edo zehaztasuna onartzea.

Informazio osagarriarekin edo txosten berriekin zerikusia duten eskaerak onuradunari jakinaraziko zaizkio idazki baten bitartez.

Informazio osagarria edo txosten berri bat eskatzen bada, azterketarako gehieneko denbora luzatu egingo da informazio hori lortzeak eskatzen duen denborarekin bat etorriz. Koordinatzaileari emango zaio eskaera horren eta azterketarako luzatutako denboraren berri, agiri formal baten bitartez. Koordinatzaileak 1.5 artikuluan zehaztutako aldia izango du informazioa edo eskatutako agiri berriak aurkezteko.

Txostena onartzeko epea luzatzen bada, ordainketa epe berean atzera daiteke.

Txosten bat baztertu eta txosten berri bat eskatzen bada, artikulu honetan deskribatutako onarpen-prozedura aplikatuko da.

Txosten berria ere baztertzen bada, Batzordeak akordioa bukatzeko eskubidea izango du, II.11.3 (b) artikuluari jarraikiz.

II.16 artikulua.– Ordainketetarako xedapen orokorrak.

II.16.1.– Batzordeak eurotan ordainduko du. Benetako kostuak eurotara bihurtzeko ekimen guztiak Europar Batasuneko Egunkari Ofizialaren arabera egingo dira, edo bestela, Batzordeak ezarritako hileko kontabilitate-tasaren arabera, Batzordeak ezarritakoa, eta, haren web-orrian argitaraturik, Batzordearen ordainketa-agindua ematen den egunean aplikatu beharrekoa, akordioaren baldintza bereziek xedapen espezifikoak ezartzen ez badituzte.

II.16.2.– Batzordeak edozein unetan eten dezake, kontrol osagarriak egiteko, I.5 artikuluan ezarritako ordainketa-epea, eta horretarako koordinatzaileari jakinaraziko dio haren ordainketa-eskaera gauzatu ezin daitekeela, dela akordioaren xedapenak betetzen ez dituelako, dela agiri

lagungarri egokiak aurkeztu ez dituelako, dela finantzetako egoera-orrietako gastuetako batzuk diruz laguntzeko modukoak ez direlako susmoa duelako.

Batzordeak edozein unetan eten ditzake ordainketak, baldin eta ohartzen bada edo susmatzen badu onuradun batek akordioaren xedapenak hautsi dituela, bereziki II.20 artikuluan ezarritakoari jarraikiz egindako kontrol edo auditoretzen arabera.

Halaber, Batzordeak ordainketak eten ditzake:

– Baldin eta susmatzen badu onuradunen batek irregulartasunen bat egin duela laguntza-akordioa abiaraztean;

Baldin eta susmatzen badu edo ebazten badu onuradunen batek irregulartasunen bat egin duela Batasunaren aurrekontu orokorrak edo Batasunak kudeatutako beste aurrekontu batek finantzatutako beste laguntza-akordio edo laguntza-erabaki bat abiaraztean. Horrelakoetan, ustezko edo ezarritako irregulartasunak egungo laguntza-akordioa abiaraztean eraginik izan badezake bakarrik etengo dira ordainketak.

Batzordeak berehala emango dio koordinatzaileari etete horren berri, gutun ziurtatua bidaliz eta hartu izanaren berri emateko eskatuz edo antzeko sistema bat erabiliz, etetearen arrazoien berri ere emango duela.

Batzordeak jakinarazpena bidaltzen duen egunean hasiko da indarrean etetea. Ordaintzeko falta den denbora berriz ere hasiko da ongi formalizatutako ordainketa-eskaera erregistratzen den egunaz geroztik, eskatutako agiri lagungarriak jasotzean edo Batzordeak jakinarazitako etenaldiaren amaieran.

II.16.3.– I.5 artikuluan zehaztutako ordainketa-epea amaitzean, eta artikulu honen 2. paragrafoan ezarritakoa alde batera utzi gabe, onuradunek atzeratutako ordainketaren gaineko interesak jasotzeko eskubidea dute Europako Banku Zentralak eurotan egin beharreko birfinantziazio-eragiketetarako aplikatutako tasaren arabera, eta hiru puntu eta erdi erantsita; azken ordainketa-egunaren hilabeteko lehen egunean indarrean dagoen tasa izango da erreferentziazko tasa, Europar Batasuneko Egunkari Ofizialaren C atalean argitaratutakoari jarraikiz. Laguntzaren hartzaileei ez zaie xedapen hori aplikatuko baldin eta Batasuneko Estatu kideetako agintari publikoak badira.

Ordainketa berantiarren gaineko interesak azken ordainketa-egunetik (egun gori kanpo utzita) 1. paragrafoan zehaztutako ordainketa-egunera (egun hori barne) doan aldia estaliko du. Interesa ez da ekintzaren diru-sarreratzat hartuko azken laguntza ezartzean, II.17.4 artikuluan ezarritakoaren arabera. Batzordearen ordainketa-etetea ezin izango da ordainketa berankortzat hartu.

Salbuespenez, lehen eta bigarren azpiparagrafoetako xedapenen arabera kalkulatutako interesa 200 euro edo txikiagoa bada, koordinatzaileari ordainduko zaio, baina bakarrik eskaera aurkezten badu atzeratutako ordainketa jaso ondoko bi hilabeteen barruan.

II.16.4.– I.5 artikuluak ezarritakoaren arabera, Batzordeak 50.000 eurotik gorako aurrefinantziazioak sortutako interesa kenduko du onuradunei zor zaien zenbatekoaren likidazio-ordainketatik. Interesa ez da ekintzaren diru-sarreratzat joko II.17.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Aurrefinantziazio-ordainketak 75.000 eurotik gorakoak badira akordio bakoitzeko zerga-urte bakoitzaren amaieran, interesa txostenaren aldi bakoitzetik berreskuratuko da. Finantzatutako ekintzen ezaugarriekin eta ingurumen-kudeaketarekin elkartutako arriskuak kontuan hartuta, 75.000 eurotik beherako aurrefinantziazioak sortutako interesa berreskura dezake Batzordeak, urtean behin gutxienez.

Sortutako interesak onuradunei zor zaien zenbatekoaren likidazioa gainditzen badu II.15.4 artikuluan jasotakoari jarraikiz, edo aurreko azpiparagrafoan aipatutako aurrefinantziazioaren ondorioz sortzen bada, Batzordeak interes hori berreskuratuko du II.19 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Batzordeari ez zaizkio ordaindu behar Estatu kideek ordaindutako aurrefinantziazioaren ondorioz sortutako interesak.

II.16.5.– Koordinatzaileak bi hilabete izango ditu, II.17 artikuluari jarraikiz Batzordeak berreskuratzeko agindua edo likidazioa ordaintzeko zenbatekoa zehazteko laguntzaren azken zenbatekoa jakinarazten dion egunetik zenbatzen hasita, edo bestela likidazioaren ordainketa jasotzen duen egunetik zenbatzen hasita, azken laguntzaren erabakiaren gaineko informazio idatzia eskatzeko, gerta litezkeen desadostasunetarako arrazoiak emanez. Behin denboraldi hori amaiturik eskaera horiek ez dira aintzat hartuko. Batzordeak erantzun idatzia emango du informazio-eskaera jasotzen duen egunaren ondoko bi hilabeteetan, erantzuna arrazoituz.

Prozedura hori aurrera eramaten da, baina onuradunek Batzordearen erabakiaren aurkako errekurtsoa aurkezteko eskubidea dute, I.9 artikuluari jarraikiz. Batasunean gai horren inguruan indarrean dagoen legeriaren arabera, eskatzaileari erabakiaren berri ematen zaion egunaren ondoko bi hilabeteetan aurkeztu behar dira errekurtso horiek, edo bestela eskatzaileak erabakiaren berri izan zuen egunaren ondoko bi hilabeteetan.

II.17 artikulua.– Azken laguntza ebaztea.

II.17.1.– II.20 artikuluari jarraikiz ondoren lortutako informazioa alde batera utzi gabe, Batzordeak onuradunei eman beharreko azken ordainketaren zenbatekoa ebatziko du II.15.4 artikuluan aipatutako eta Batzordeak onartutako agiriak oinarritzat hartuta.

II.17.2.– Batzordeak guztira ordaindutako zenbatekoak ezin izango du gainditu, inondik inora, 1.4.3 artikuluan laguntzetarako ezarritako gehieneko zenbatekoa, ezta benetako diruz laguntzeko moduko kostuek diruz laguntzeko moduko guztizko kostu estimatuak gainditzen badituzte ere, I.4.2 artikuluan zehaztu direnak.

II.17.3.– Ekintzaren amaieran, diruz laguntzeko moduko benetako kostuak txikiagoak badira diruz laguntzeko moduko guztizko kostu estimatuak baino, Batzordeak Batasunaren laguntza-ehunekoa aplikatuko die, I.4.3 artikuluan zehaztutakoaren arabera, Batzordeak onartutako benetako diruz laguntzeko moduko kostuei, eta zenbateko hori izango da Batzordearen ekarpen bakarra.

II.17.4.– Honen bitartez onuradunek zera adostu dute, ekintzaren gastuak eta diru-sarrerak likidatzeko beharrezko zenbatekora mugatuko dela laguntza, eta hortaz hortik etekinik ateratzeko inolako aukerarik ez dela izango.

Eta etekina diogunean zera esan nahi dugu, ekintzari badagozkio ere, ekintzaren benetako guztizko kostuak gainditzen dituzten benetako diru-sarrera guztiak. Koordinatzaileak Batasunaren laguntzarekin zerikusirik ez duen finantziaziorako likidazioaren ordainketa-eskaera egiten duen egunean ezarritako, sortutako edo egiaztatutako diru-sarrerak dira kontuan hartu beharreko benetako diru-sarrerak, eta horri erantsiko zaio artikulu honen 2. eta 3. paragrafoetan ezarritako printzipioak aplikatuz ebatzitako laguntza zatia. Artikulu honen xedeetarako, behin-behineko aurrekontuan ezarritako kategoriei dagozkien benetako kostuak bakarrik hartuko dira aintzat. I.4.1 artikuluan aipatzen dira kategoria horiek, eta II. eranskinean jasota daude;

Horrela ebatzitako edozein soberakinen ondorioz, laguntzaren zenbatekoa murriztuko da.

II.17.5.– II.11 artikuluari jarraikiz akordioa bukatzeko eskubidea gauza daitekeela eta Batzordeak II.12 artikuluan aipatutako zehapenak aplikatzeko eskubidea gauza dezakeela aintzat hartuta, ekintza abiarazten ez bada edo gaizki partzialki edo berandu abiarazten bada, Batzordeak aurreikusitako laguntza murrizteko aukera dauka, ekintza benetan zenbateraino abiarazi den aintzat hartuta, akordioan ezarritako epeen eta baldintzen arabera.

II.17.6.– Horrela ebatzitako azken ordainketaren zenbatekoa eta akordio honi jarraikiz dagoeneko egindako ordainketetan metatutako zenbatekoa oinarritzat hartuta, Batzordeak likidazioa ordaintzeko zenbatekoa ebatziko du onuradunei zor zaien zenbateko gisa. Dagoeneko egindako ordainketetan metatutako zenbatekoak azken laguntzaren zenbatekoa gainditzen badu, Batzordeak soberakinerako berreskuratze-agindua emango du.

II.18 artikulua.– Finantza erantzukizuna.

II.18.1.– Onuradunek zera adostu dute, elkartasunez eta baldintzarik eta atzera botatzeko inolako aukerarik gabe, onuradun batek Batzordeari zor dion eta ordaindu ezin diezaiokeen edozein kopururen erantzukizuna hartuko dutela. Batzordeari zor zaion kopuruak ezin dezake I.4.3 artikuluaren arabera onuradunei eman dakiekeen ekarpenaren gehieneko balioa gainditu, berandutzearen gaineko interesa erantsita aplikatzekoa denean.

II.18.2.– II. 12 artikuluarekin bat etorriz onuradun berankor bati finantza-zehapenak ezartzen bazaizkio, onuradunek ez dute zehapen horien gaineko baterako erantzukizuna hartuko.

II.19 artikulua.– Berreskuratzea.

II.19.1.– Batzordeak koordinatzaileari, ordainketa guztien hartzailea den heinean, ordaindutako zenbateko bat berreskuratu behar badu akordioaren termino eta baldintzei jarraikiz, koordinatzaileak bere gain hartuko du kopuru hori Batzordeari itzultzea, zehaztutako terminoetan eta egunerako, baita ordaindutako zenbatekoaren azken hartzailea izan ez bada ere. Azken kasu horretan, ordainketa ezarritako egunerako egiten ez bada, Batzordeak zuzenean berreskura dezake azken hartzailearen eskutik zordundutako zenbatekoa.

Batzordeak onuradunari zuzenean ordaintzen badio akordioaren termino eta baldintzen arabera berreskuratu beharreko zenbatekoa, edo berreskuratzea justifikatzen bada akordioaren II.12 artikuluarekin bat etorriz, inplikatutako onuradunak Batzordeari dagokion kopurua ordainduko dio Batzordeak ezarritako termino eta epeetan.

II.19.2.– Diru-kopurua ordaintzeko betebeharrari Batzordeak ezarritako egunerako erantzuten bazaio, zenbatekoak interes bat sorraraziko du II.16.3 artikuluan adierazitako tasari jarraikiz. Berandutze-interesak ordainketarako ezarritako egunetik (egun hori aparte utzita) Batzordeak zor zaion kopuruaren guztizko ordainketa jasotzen duen egunera (egun hori barne) doan aldia estaliko du.

II.19.3.– Ezarritako egunerako ordainketarik egin ez bada, Batzordeari zor zaizkion zenbatekoak berreskuratzeko aukera dago, inplikatutako onuradunari zor zaion beste edozein kopuruz konpentsatuz, Batzordeari behar bezala informatu ondoren gutun ziurtatua bidaliz eta hartu izanaren berri emateko eskatuz edo antzeko sistema bat erabiliz, edo, baldintza berezien arabera, finantza-bermea eskatuz II.15.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Batasunaren finantza-interesak babestu beharrak eragindako salbuespenezko egoeretan, Batzordeak ordainketaren epemugaren aurretik berreskura dezake zor zaion zenbatekoa, kopuruak konpentsatuz. Onuradunaren aldez aurreko baimena ez da beharrezkoa izango. Berreskuratzea gauzatzen ez bada aurreko xedapenei jarraikiz, Batzordeak aintzat hartuko du onuradun guztiak zenbatekoaren erantzule solidario direla, II.18 artikuluari jarraikiz.

II.19.4.– Dagokion onuradunak bere gain hartuko ditu Batzordeari zor zaizkion zenbatekoak berreskuratzearen haritik eratorritako banku-gastuak.

II.19.5.– Onuradunek zera uste dute, Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 299. artikuluari jarraikiz, Batzordeak nahitaez bete beharreko erabakia har dezakeela, eta, horren arabera, formalki kopuru bat ezar dezakeela Estatuak ez diren pertsonek kobratu beharreko kontu gisa. Erabaki horren aurkako erreklamazioa aurkez daiteke Europar Batasuneko Auzitegi Nagusian.

II.20 artikulua.– Kontrolak eta auditoretzak.

II.20.1.– Koordinatzaileak mota guztietako informazio xehatuak jarriko ditu, formatu elektronikoan jasotako informazioa barne, Batzordearen edo Batzordeak baimendutako beste edozein kanpo-erakunderen esku, baldin eta horiek horrelakorik eskatzen badiote ekintza eta akordioaren xedapenak behar bezala abiarazten ari direla egiaztatzeko. Batzordeak hala nahi badu, informazio hori zuzenean onuradunkide baten eskutik jasotzeko eskaera egin dezake.

II.20.2.– Onuradunek Batzordearen esku jarriko dituzte jatorrizko agiri guztiak, kontabilitateko eta zergetako erregistro guztiak bereziki, edo, behar bezala justifikatutako salbuespenetan, akordioarekin zerikusia duten jatorrizko agirien kopia ziurtatuak, euskarri egokietan biltegiratuak kalterik ez eragiteko moduan, aplikatzekoa den legeria nazionalaren arabera, bost urteko epean. I.5 artikuluan likidazioa ordaintzeko zehaztutako egunetik aurrera. I.5.

II.20.3.– Onuradunek zera adostu dute, Batzordeak auditoretza bat egin dezakeela laguntza nola erabili den ikusteko, Batzordeko langileen edo Batzordeak horretarako baimendutako beste kanpo-erakunde baten eskutik. Akordioa abiarazteko aldian eta likidazioa ordaindu arte egin daitezke auditoretza horiek, eta bost urteko apean likidazioa ordaintzen den egunaz geroztik . Hala badagokio, Batzordeak berreskuratzeko aginduak eman ditzake auditoretzaren emaitzak oinarritzat hartuta.

II.20.4.– Onuradunek Batzordeko langileei eta Batzordeak baimendutako kanpo-langileei baimena emango diete ekintza gauzatu behar den instalazio eta eraikinetan sartzeko eta auditoretzak egiteko beharrezko informazio guztia eskuratzeko, euskarri elektronikoan jasotako informazioa barne.

II.20.5.– Kontseiluaren 2185/96 Erregelamendua (Euratom, EB) eta Europako Parlamentuaren eta Iruzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoaren (OLAF, ingelesezko siglei jarraikiz) 1073/1999 (EB) Erregelamendua betez, kontrol zehatzak eta ikuskapenak ere egin ditzake, Batasunaren legeriak Batasunaren finantza-interesak iruzurretik eta beste irregulartasun batzuetatik babesteko ezarritako prozedurei jarraikiz. Hala badagokio, Batzordeak berreskuratzeko aginduak eman ditzake auditoretzaren emaitzak oinarritzat hartuta.

II.20.6.– Auditoreen Auzitegiak Batzordearen eskubide berberak edukiko ditu kontrolei eta auditoretzei dagokienez, eskuratzeko eskubideari dagokionez batik bat.

SINADURAK

Koordinatzailearen aldetik, Xabier Sabalza jauna
Berrikuntzaren eta Informazio Gizartearen zuzendaria (SINADURA IRAKURGAITZA)
(Eskuz) egindakoa, Vitoria-Gasteiz 2011-12-05

Batzordearen aldetik, Heinz Zourek,
Zuzendari nagusia
Bruselan egindakoa 2011-12-12

VII. ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN MAIATZAREN 18KO 34/2012 EBAZPENARENA

ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK, ZIENTZIA ETA BERRIKUNTZA MINISTERIOAREN ETA CARLOS III OSASUN INSTITUTUAREN BITARTEZ, ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAK, OSASUN ETA KONTSUMO SAILAREN BITARTEZ, ZAHARTZEARI BURUZKO IKERKETA ETA BERRIKUNTZARAKO PLATAFORMA BAT SORTZEKO ETA GARATZEKO SINATUTAKO LANKIDETZA-HITZARMENA

Madril, 2011ko azaroaren 17a.

BILDU DIRA

Alde batetik, Cristina Garmendia Mendizábal andrea, Zientzia eta Berrikuntzako ministroa (aurrerantzean MICINN), 2008ko apirilaren 12ko 436/2008 Errege Dekretuaren bitartez izendatua (apirilaren 14ko BOE, 90. zk.), zeinak Estatuko Administrazio Orokorraren antolakuntza eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 14ko 6/1997 Legearen 13.3 artikulutik jasotzen baitu jarduteko eskumena, eta jakinarazpenak egiteko helbide hau baitu: Albacete kalea, 5, 28027 Madril.

Bestetik, José Jerónimo Navas Palacios jauna, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren mendeko Carlos III Osasun Institutuko zuzendaria (aurrerantzean ISCIII), abuztuaren 29ko 1458/2008 Errege Dekretuaren bidez izendatua, aipaturiko Carlos III Osasun Institutuaren izenean eta ordezkari –helbidea, Sinesio Delgado kalea, 6 (Madril)–, 375/2001 Errege Dekretuak, Carlos III Osasun Institutuaren estatutua onartzen duenak, emandako eskumenak baliatuz (errege-dekretu hori aldatu egin zuten maiatzaren 20ko 590/2005, otsailaren 27ko 246/2009 eta azaroaren 6ko 1672/2009 errege-dekretuek).

Bestetik, Rafael Bengoa Rentería jauna, Osasun eta Kontsumoko sailburua, Lehendakariaren maiatzaren 8ko 12/2009 Dekretuaren bidez izendatua eta azaroaren 3ko 579/2009 Dekretuaren 6. artikuluak emandako eskumenak baliatuz, hark ezartzen baititu, batetik, Osasun eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzak 2011ko azaroaren 15eko batzarrean lankidetza-hitzarmen hau sinatzeko espresuki emandako baimena.

Alderdiek gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna aitortzen diote elkarri agiri honen bitartez obligazioz lotzeko, eta honako hau

ADIERAZTEN DUTE:

Lehenengoa.– 1986ko apirilaren 14ko 13/1986 Legeak, ikerketa zientifiko eta teknikoaren sustapen eta koordinazio orokorrari buruzkoak, arau-esparru bat ezarri zuen administrazio publikoen arteko lankidetza eta elkarlana sustatzeko.

1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, 6. artikuluan, aukera ematen die administrazio orokorrari eta hari loturiko edo haren mendeko erakunde publikoei lankidetza-hitzarmenak egiteko beren eskumeneko autonomia-erkidegotako administrazioetan dagozkien organoekin.

Bigarrena.– 2008-2011rako Ikerketa Zientifikoaren eta Garapen eta Berrikuntza Teknologikoaren Plan Nazionalak, osasunari dagokion ekintza estrategikoan, 2. estrategia-ildoan, giza osasunaren ikerketa traslazionalari buruzkoan, zahartzea lehentasunezko ikergaia dela jasotzen du.

Hirugarrena.– Zahartzearen arloa du ardatzetako bat Euskal Autonomia Erkidegoko 2015erako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planak (ZTbP 2015), eta, hala, I+G+B arloan, lehentasunez garatzeko da. Espainian jada abian dira zenbait ekimen aitzindari, hainbat esparrutan: ezagutza sortzeari eta garapen teknologikoan aplikatzeri dagokionetik hasi eta berrikuntza eta haren ustiapen industrialeraino.

Laugarrena.– Gizarteko erronka handien esparruan, ikerketa eta berrikuntza sustatzeko, koordinatzeko eta haien alde elkarlanean aritzeko Europar Batasunak (EB) abiarazitako ekimenetan ikusi denez, zahartzea Europako I+G+B arloaren lehentasunezko gaietako bat da.

Bosgarrena.– EBren ekimenek, bai baterako programazioaren bitartez (Joint Programming; More years, better lives) eta Europako partenariotza berritzaileen bitartez (European Innovation Partnership, Active and Health Ageing), bai «Inguruak lagundutako eguneroko bizitza» programaren bitartez (Ambient Assisted Living, AAL), EBko estatuetan lankidetzarako plataformak sortzea sustatzen dute, Europako Ikerketa Esparruan (European Research Area; ERA) errealitate bat gauzatzeko helburuarekin, eta, orobat, 2020rako Europako Estrategiaren barruan, Berrikuntzaren Batasuna (Innovation Union) lortzeko helburuarekin.

Seigarrena.– Alderdien ustez egokia da, zahartzearen arloko ezagutzaren balio-kate osoan aurrera egiteko, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemaren ahalmenak integratzeko gai den ekimen bat bultzatzea. Asmo horrekin, elkarrekin lanean aritu dira azken hilabeteotan, ekimen horren edukiak eta garapen-ildoak zehazten dituen lankidetzarako protokolo bat lantzen, hain zuzen.

Zazpigarrena.– 2011ko uztailaren 28an, Estatuko Administrazio Orokorrak, Zientzia eta Berrikuntzako ministroak ordezkatuta, eta Eusko Jaurlaritzak, Osasun eta Kontsumoko sailburuak ordezkatuta, lankidetzarako protokolo bat formalizatu zuten, zahartzeari buruzko ikerketarako eta berrikuntzarako partzuergo-eredu bat zehazteko helburuarekin. Partzuergo horren eginkizuna zahartzeari buruzko Ikerketa eta Berrikuntza Programa Integral bat sustatzea, koordinatzea eta gauzatzea da, barruan berariazko lau programa hartzen dituena:

1.– Zahartzeari buruzko Oinarrizko Ikerketa Programa. Programa hori Zahartzeari buruzko Ikerketa Zentro Nazionalean (CNIE) garatuko da.

2.– Zahartzeari buruzko Ikerketa Klinikorako Programa. Programa horren ardatza Carlos III Osasun Institutuaren (ISCIII) Zahartzeari buruzko Lankidetzako Ikerketarako Sare Tematikoa (RETICEF) izango da, eta intereseko beste talde, zentro eta entitate batzuk hartuko ditu barnean.

3.– Osasun eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Ikerketa Programa. Programa horren ardatza Osasun Zerbitzuen Lankidetzako Ikerketarako Sare Tematikoa (osasun-zerbitzuena) izango da. Sarea Carlos III Osasun Institutuak (ISCIII) jarriko du martxan, eta intereseko beste talde, zentro eta entitate batzuk antolatuko ditu.

4.– Zahartzeari buruzko Garapen eta Berrikuntza Programa. Programa hori arestiko programekiko horizontala da eta helburutzat du ikerketa aplikatzea eta hala adinekoentzako mundu mailako irismeneko merkatu soziosanitario batean ezar daitezkeen teknologia, produktu eta zerbitzuak sortzea.

Azaldutakoagatik guztiagatik, alderdiek lankidetza-hitzarmen hau sinatzea adostu dute, eta hauek izango dira lankidetza-hitzarmena arautuko duten

KLAUSULAK:

Lehenengoa.– Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen xedea da Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren, ISCIII institutuaren eta Eusko Jaurlaritzaren –Osasun eta Kontsumo Sailaren bitartez– arteko lankidetza zehaztea, Zahartzeari buruzko Ikerketa eta Berrikuntza Plataforma (ZIBP) sortzeko eta garatzeko.

Zahartzeari buruzko Ikerketa eta Berrikuntza Plataforma (ZIBP) Zahartzeari buruzko Ikerketa eta Berrikuntza Programa Integrala sortzeko eta sustatzeko helburua duen egitura funtzional gisa sortu da. Programa horren helburuak eta antolaketa aurrerago zehazten dira, hitzarmen honen beste atal batean.

Hitzarmen honetan zehazten den lankidetzaren izena, aurrerantzean, «Zahartzeari buruzko Ikerketa eta Berrikuntza Plataforma» (ZIBP) izango da, esparru horretan elkarlanean eta lankidetzan aritzeko interesa duten kideen multzo (ikerketa- eta berrikuntza-eragile) gisa. Hasieran, berezko lege-nortasunik gabe eratu da, eta hauek dira partaideak: Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa, ISCIII institutuaren bitartez, eta Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE), Osasun eta Kontsumo Sailaren bitartez, zeinek elkarrekin antolatuko baitituzte Zahartzeari buruzko Ikerketa eta Berrikuntza Programa Integralean parte hartuko duten zentro eta erakundeen arteko harremanak.

Plataformak helburu hauek ditu:

● Zahartzeari buruzko Ikerketa eta Berrikuntza Programa Integralaren eta haren lehentasunezko ildoen garapena sustatzea, ikerketa-zentro eta -taldeen arteko lankidetza eta elkarlana bultzatuz.

● Oinarrizko ikerketa eta ikerketa klinikoa, teknologikoa, epidemiologikoa eta zerbitzuen ikerketa bultzatzea osasun-arloan eta arlo soziosanitarioan.

● Ikerketa-programak eta -proiektuak edo ikertzaileak trebatzeko programak eta proiektuak laguntzea eta garatzea.

● Ikerketaren kalitatea, etika eta printzipio deontologikoak zaintzea.

● Lankidetzako eta nazioarteko ikerketa-egituretan parte hartzea sustatzea.

● Osasunaren ikerketan bikaintasunaren kultura sustatzea, ildo eta interes komunak dituzten taldeen eta zentroen arteko harremanak eta lankidetzak erraztuz.

● Programa integralean parte hartzen duten zentroen eta erakundeen baliabideen eta azpiegituren erabilera eraginkorra sustatzea.

● Espainian, Zahartzeari buruzko I+G+B jarduera orientatzea eta biltzea, haren ahalmena eta gaitasuna handituz eta, eragile nagusi gisa, mundu mailako ezagutza-sareekin lotuz.

● Ezagutza bikaina sortzeari heltzea, balio-katearen maila guztiak hartuz, ikerketa oinarrizkoenetik hasi eta berrikuntzaraino.

● Sustatutako eta babestutako jardueretan ikertzailerik eta ikerketa-talderik onenek parte har dezaten lortzea.

● Enpresak eta erakunde sozialak partaide egitea zahartzearekiko arreta-eskakizunei hobeto erantzungo dieten eta merkatuari eta garapen ekonomikoari begira aukerak ireki ditzaketen produktu eta zerbitzu berriak lantzeko jardueretan.

● Zahartzeari buruzko I+G+B arloan administrazioak egiten ari diren ahaleginak batzea.

Helburu horiek betetzeko, berariazko lau programatan zatituta garatuko da Zahartzeari buruzko Ikerketa eta Berrikuntza Programa Integrala.

Bigarrena.– Ikerketa-programak.

Lankidetza honen xedea da Zahartzeari buruzko Ikerketa eta Berrikuntza Programa Integrala sustatzea, koordinatzea eta gauzatzea. Horretarako:

● Ezagutza sortzearen balio-kate osoa hartzen du, ikerketa oinarrizkoenetik hasi eta berrikuntzaraino.

● Espainian egindako ikerketak eta garapen teknologikoak eta nazioarte mailan –batez ere ERA esparruan– arlo berean egindako jarduera lotzea ahalbidetuko duten ahalmen bikainak garatu nahi ditu.

● Programaren aplikazio potentzialen onuradun izan daitezkeen enpresak eta eragile sozialak partaide izan daitezen saiatzen da. Hori da, hain zuzen, lankidetza hau bereizten duten helburuetako bat.

● Modu berezian konprometitzen da I+G+B Plan Nazionalaren eta Estatu mailako Berrikuntzarako Estrategiaren ikerketa- eta berrikuntza-ekimenekin, eta, orobat, EAEko 2015erako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren merkatua ardazteko asmoarekin, ikerketa-agendak koordinatuz eta enpresei eta izaera sozialeko beste erakunde batzuei eskualdatzeak eginez.

Eginkizun hori betetzeko, Programa Integrala alderdiek sustatu beharko dituzten berariazko lau programatan antolatzen da. Lau programa horietan, zahartzea ikerketaren eta berrikuntzaren bitartez lantzeko dimentsio guztiak sartzen dira.

1.– Zahartzeari buruzko Oinarrizko Ikerketa Programak oinarrizko ezagutza zientifiko/biologikoa sortzea du helburu. Hauek dira oinarrizko ikerketa-programa horrek sustatuko dituen ikerketa-ildo nagusiak:

a) Zahartzearen genomika: determinatzaile genetikoak.

b) Zahartzearen epigenomika, ingurunearen eta genomaren arteko elkarrekintza.

c) Elikadura eta zahartzea: dieta eta kaloriak.

d) Zahartzearen fisiopatologia. Energia eta mitokondrioak; hormonak eta zahartzea.

e) Zahartzearen biologia zelularra: homeostasi zelularra eta zelula amak.

Zahartzearen Oinarrizko Ikerketa Programa hori Donostian kokatuko den Zahartzeari buruzko Ikerketa Zentro Nazionalean (CNIE) garatuko da. Zientzia-azpiegitura berri horren helburua da ikerketa-talde bikainenen jarduera biltzea eta Espainian zahartzeari buruzko ikerketan abangoardia bihurtzea, nazioarte mailan erreferente gisa posizionatuz eta, zahartzeari buruzko oinarrizko ikerketen nazioarteko deialdietan, proiektuen lehiakortasuna modu erabakigarrian handitzen lagunduz.

Hauek izango dira nazioarte mailako eta ikerkuntza-bikaintasuneko zentro horren konfigurazioaren oinarriak: batetik, ikertzaileak erakartzeko politikak abiaraztea (ikertzaile sendotuak eta gazteak), eta, bestetik, inguruan dagoen eskaintza zabala osatuko duten Plataforma Teknologikoak ezartzea. Halaber, CNIEren jasangarritasuna bermatzeko helburuarekin, finantzaketa lortzeko eta mezenasgoa sustatzeko politika aktiboak ezarriko dira. Politika horiek ekimen pribatuaren partaidetza bilatzeko ere balio behar dute, oinarrizko ezagutza sortzeko lehenengo etapetatik hasita.

Sortuko den zentroak autonomia handia eta autogestio-ahalmen handia izan behar du. Helburu horiek lortzeko, berezko lege-nortasuna eman beharra ikusten da. Ezaugarri horri esker, zentroak tarte bat izango du bere helburuen alde nola jokatu erabakitzeko, eta zentro oso lehiakorra eta nazioartekoa izango da.

CNIE eratzeko eta berezko lege-nortasuna sortzeko oinarriak aurrerago garatuko dira, berariazko hitzarmen batean.

2.– Zahartzeari buruzko Ikerketa Klinikorako Programaren helburua ezagutza zientifiko klinikoa sortzea da. Horretarako, honako alderdi hauei loturik daude haren lehentasunezko ikerketa-ildoak:

a) Zahartzea eta hauskortasuna.

b) Adinari loturiko endekatze-prozesuak.

c) Jokabideari loturiko faktoreak (portaera) eta zahartzea.

d) Zainketari buruzko ikerketa.

e) Zahartzeari buruzko saiakuntza klinikoak.

Carlos III Osasun Institutuaren (ISCIII) Zahartzeari buruzko Lankidetzako Osasun Ikerketarako Sare Tematikoa (RETICEF) izango da Zahartzeari buruzko Ikerketa Klinikorako Programaren ardatza, eta intereseko beste talde, zentro eta entitate batzuk bilduko ditu.

Zahartzeari buruzko Ikerketa Klinikorako Programaren garapenak ongi zehaztutako erronka batzuk ditu: kalitatezko ikerketa-proiektuak eta ikertzaileak trebatzeko proiektuak bultzatzea, programarekiko ildo eta interes komunak dituzten talde eta zentroen arteko harremanak eta lankidetzak sustatzea, eta sortutako ezagutza praktika klinikoan eta adinekoei zuzendutako laguntzan aplikatzera bideratzea.

Programa hori bereziki aktiboa izango da osasun-sistemarekiko lankidetzak garatzen, eta ikerketa klinikoko taldeekiko elkarrekintza erraztuko du. Azken helburuaren ikuspuntutik, Espainian zahartzeari buruz egiten den ikerketa klinikoko jarduera orientatuko eta bilduko du, haren ahalmena eta gaitasuna handituz eta, eragile nagusi gisa, mundu mailako ezagutza-sareekin lotuz.

3.– Osasun eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Ikerketa Programaren helburua da esparru epidemiologikoan, osasun publikoaren esparruan eta osasun- eta gizarte-zerbitzuen esparruan ezagutza zientifikoa sortzea. Hauek dira ikerketa-programa horrek sustatuko dituen ikerketa-ildo nagusiak:

a) Azterlan demografikoak.

b) Adinduen multzoei buruzko azterlanak.

c) Zahartzeari buruzko eredu sozio-ekonomikoak.

d) Zerbitzu soziosanitarioen hornidura-ereduak, arreta berezia eskainiz zahartzearen eta honako hauen arteko elkarrekintzari: kronikotasuna, gaixo pluripatologikoa, teknologia berriak sartzea arreta-eredua eraldatzeko elementu gisa, laguntza-mailak sartzea, etxebizitza zainketa-gune gisa, osasunaren prebentzioa eta zainketa laguntza-ereduaren oinarrizko ardatz gisa, rol profesional berriak eta sortzen ari diren lanbideak, eta zahartze-prozesuan diren pertsonen ahalduntzea.

Osasun eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Ikerketa Programaren ardatza Osasun Zerbitzuen Lankidetzako Osasun Ikerketarako Sare Tematikoa (osasun-zerbitzuen RETIC deritzona) izango

da. Sarea ISCIII institutuak jarriko du martxan, eta intereseko beste talde, zentro eta entitate batzuk bilduko ditu.

Kronikotasunaren esparruan ezagutza eta ebidentzia zientifikoak sortzen nazioarteko erreferente izatea da Programa horren helburua. Era berean, horri esker, metatutako esperientzia beste herrialde batzuetan metatutakoarekin konektatzeko gaitasuna duten nazioarteko goi-mailako ikertzaileak erakarriko dira; modu horretan, nazioarte mailan, kronikotasuna tratatzeko eta zaintzeko ebidentzia zientifiko osoagoen sare bat sortuko da.

Programari esker, praktika berritzaileak identifikatuko dira nazioarte mailan, eta gaixotasun kronikoak tratatzeko modu berrietan ebidentzia zientifikoa modu egituratuan sortuko da, ikerketa hori orokortzeko modukoa izatea ahalbidetuko duen nazioarteko eragile-sare baten bitartez (hainbat testuingurutan egindakoak izanik, errazago orokortuko dira). Ikerketa-jardueraren maila eta kalitatea handitzeaz eta nazioartean duen hedadura handitzeaz gain (lankidetza hori sustatu nahi duten gainerako programek ere erronka bera dute), hau izango da, hein handi batean, Osasun eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Ikerketa Programa modu arrakastatsuan ezartzeko oinarria: haren emaitza potentzialen manatzaile eta erabiltzaile gisa diharduten erakundeen eskakizunei kasu egiteko eta haiekin konektatzeko gaitasuna izatea.

Zentzu horretan, programaren kudeatzaileentzat lehentasunezko helburu izan behar du jada badiren egiturekin lankidetzan aritzea, hala nola ALINNS arekin (osasun-ikerketa eta -berrikuntzarako aliantza), Kronikgune-rekin, Berrikuntza Soziosanitariorako Euskal Fundazioarekin, eta, orobat, arreta soziosanitarioaren arloan diharduten estatuko eta nazioarteko beste erakunde batzuekin.

4.– Zahartzeari buruzko Garapen eta Berrikuntza Programa arestiko programekiko horizontala da, eta helburutzat dauka ikerketa aplikatzea, eta hala adinekoentzako mundu mailako irismeneko esparru soziosanitario batean ezar daitezkeen teknologia, produktu eta zerbitzuak sortzea. Horretarako, aurreko programen ikerketen emaitzak garatzen eta berriztatzen saiatzen da, honako hauek lortzeko helburuarekin:

a) Zahartzearen beharrei erantzuteko ahalmen eta kalitate handiagoko sistema soziosanitario bat; horretarako, hauek bultzatuko ditu:

i) Estrategia diagnostikoak.

ii) Estrategia terapeutikoak.

iii) Zainketetarako estrategiak.

iv) Zerbitzu soziosanitarioak emateko eredu berriak.

b) Teknologia, produktu eta zerbitzu berriak, honako hauek lortzeko:

i) Arreta soziosanitariorako eredu berrien garapen jasangarria eta estrategia diagnostiko, terapeutiko eta zainketetarako estrategia berrien inplikazioa.

ii) Desgaitasunen bat duten edo mendekotasun-egoeran dauden pertsonei laguntza ematea.

iii) Zahartzearen esparruan IKTak aplikatzea.

c) Honako hauek modu naturalean integratuko diren prozesu bat garatzea:

i) Estrategia, teknologia, produktu eta zerbitzu berrien kostu-eraginkortasunaren ebidentziak sortzea, zerbitzu soziosanitarioek haiek ezartzeko berariazko gidekin.

ii) Diseinu globaleko teknologiak, produktuak eta zerbitzuak sortzea, tokian tokiko ezaugarrietara egokitzeko elementuekin.

Alderdiek, berariazko programen emaitzetan eta hitzarmen honetan zehaztutako kontsulta-organoen aholkularitzan oinarrituta, lankidetzaren ikerketaren emaitzei etekina ateratzen saiatuko diren jarduerak bultzatzea sustatuko dute, horretarako egokienak diren laguntza-baliabideen bitartez. Horretarako:

● Lankidetza honen ikerketen emaitzetan oinarritutako produktuen eta zerbitzuen erabilera eta merkaturatzea arrakastaz bideratzeko aukera gehien duten enpresa- eta gizarte-eragileengana hurbiltzea lagunduko dute, ALINNSAren eta antzeko beste erakunde batzuen bitartez.

● Interes handiena izan dezaketen enpresa-sektoreekiko harremana erraztuko dute (osasun-teknologia, osasun-materiala, robotika, osasun-IKTak, telemedikuntza, telelaguntza eta abar).

● Lortu nahi den helburuaren arabera, eta produktuek eta zerbitzuek zabaldu eta merkaturatu nahi den merkatuarekiko duten distantziaren arabera, lankidetza-bide desberdinak sustatuko dituzte, hala nola erosketa publiko berritzailea, I+G+B proiektuak eta erakuspen-proiektuak.

● Osasun-sistemen laguntzari esker eta haien beharrak betetzeko helburuarekin garatutako osasun-teknologiak ebaluatzeko sare bat sortzea erraztuko duten nazioarteko beste osasun-sistemetera hurbiltzea eta konektatzea sustatuko dute, hartara, nazioarteko ebidentziak lortu nahi dira diseinatutako osasun-prestazioen eta prestazio soziosanitarioen eredu berrien jasangarritasunaz eta haiek ahalbidetzen dituzten teknologien, produktuen eta zerbitzuen jasangarritasunaz.

Programa horren arduradunak Euskal Autonomia Erkidegotik lan egingo du, eginkizun horiek behar bezala betetzeko moduko gutxieneko egitura bat eta jada badiren egiturak koordinatuz.

Lankidetza honen ikerketa-programak beharrezkoak diren berariazko koordinazio-hitzarmenak sortuz antolatuko dira.

Hirugarrena.– Antolaketa.

Honako hauen bitartez antolatuko da lankidetza:

● Jarraipen-batzordea. Batzorde iraunkor bat ere osatu ahalko du.

● Batzorde zientifiko aholkularia eta batzorde aholkulari enpresariala.

● Jarraipen-batzordeak I+G+B Programa Integralaren zuzendaritza bat eta Berariazko Programen zuzendaritzak ezarri ahalko ditu, eta, orobat, koordinaziorako eta kudeaketarako elementuak, hala nola programa-batzorde bat eta idazkaritza tekniko bat.

Laugarrena.– Jarraipen-batzordea.

1.– Kide hauek osatuko dute jarraipen-batzordea:

a) Lehendakaria: jarraipen-batzordearen lehendakaritza txandakakoa izango da, eta urtez urte aldatuko da. Hasieran, MICINNen titularra edo hark izendatutako pertsona bat izango da lehendakaria; ondoren, Eusko Jaurlaritzako osasun-eskumenak dituen saileko titularrak edo hark izendatutako pertsona bat.

b) Lehendakariordea: jarraipen-batzordearen lehendakariordetza txandakakoa izango da, eta urtez urte aldatuko da. Hasieran Eusko Jaurlaritzako osasun-gaietarako Sail eskuduneko titularra edo hark izendatutako pertsona bat izango da lehendakaria; Ondoren, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren titularrak edo hark izendatutako pertsona bat.

c) Batzordekideak: zortzi kide izango ditu jarraipen-batzordeak. Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak lau ordezkari izango ditu, MICINNen titularrak izendatuak; haietariko bat ISCIIIren zuzendaria izango da. Beste lau kideak Euskal Autonomia Erkidegoaren ordezkariak izango dira, eta EAEko Gobernu Kontseiluak izendatuko ditu.

Idazkaria jarraipen-batzordeak izendatuko du, eta hitza bai baina botorik ez du izango. Idazkariak, hala dagokionean, batzorde iraunkorrean ere parte hartuko du, hitzarekin baina botorik gabe.

Jarraipen-batzordean parte har dezakete, haiek hala deritzotenean, MICINNen titularrak eta Eusko Jaurlaritzako osasun-eskumenak dituen saileko titularrak, edo haiek izendatutako pertsonek, ohorezko lehendakari eta lehendakariorde gisa, hurrenez hurren, hitzarekin baina botorik gabe, eta haien presentzia quorum ondorioetarako kontuan hartu gabe.

Jarraipen-batzordeko kideak lau urterako hautatuko dira, eta beste lau urte ere egin ahalko dituzte, duten karguaren ondorioz izendatzen direnean izan ezik. Hala ere, izendatu dituen erakundeak noiznahi eta libreki kendu dezake ordezkaria, eta beste bat izendatu. Ordezkatuari zegokion denboraldia amaitu arte izango da ordezkoa jarraipen-batzordeko kide. Duten karguaren ondorioz izendatutako jarraipen-batzordeko kideek, aipatutako kargua uzten dutenean, kide izateari utziko diote, eta kargu horretarako izendatzen den hurrengoa izango da kide berria.

Jarraipen-batzordeko kideek ez dute ordainsaririk jasoko karguagatik.

2.– Hauek dira jarraipen-batzordearen eskumenak:

a) Hala badagokio, zein bere arduradunek aurkeztutako Programa Integrala eta Berariazko Programa onartzea.

b) Batzorde zientifiko aholkulariko, barne-batzorde zientifikoko eta batzorde aholkulari enpresarialeko kideak izendatzea eta kentzea. Lankidetza ikuskatzea, izaera orokorreko arauak ezartzea eta lankidetzaren planifikazio estrategikoa egitea.

c) Plan Estrategikoa eta programa eraginkorrak, eta, orobat, proiektuak eta emaitzak onartzea.

d) Lankidetza honen jarduerak eta emaitzak ikuskatzea.

e) Prestakuntza-politikak eta ezagutza partekatuko politikak ezartzea.

f) Hitzarmen honen erabakia adostea.

g) Alderdiek guztien adostasunarekin ezar dezaketen beste edozein eskumen.

3.– Jarraipen-batzordearen deialdien eta bilkuren araubidea.

Jarraipen-batzordeak bi ohiko bilera izango ditu urtean; ezohiko bilkurak ere egin daitezke, presidenteak edo alderdietako batek hala eskatzen duenean. Bilerak aurrez aurrekoak izan daitezke, edo bideokonferentzia bidezkoak. Idazkariak egingo ditu bilera-deiak, lehendakariak berariaz hala eskatuta, gai-zerrenda aldez aurretik jakinaraziz. Bilera-eguna baino zazpi egun natural lehenago egingo du hori, gutxienez.

Halaber, eta lehendakariaren edo ordezkatutako alderdiren baten ekimenez, gai-zerrendako gaien arabera bileran parte hartzea egokitzat jotzen den beste edozein pertsona ere deitu ahalko da.

Bilerak egiteko, gutxienez lehendakariak edo lehendakariordeak eta alderdi bakoitzeko beste ordezkari batek bildu beharko dute.

Erabakiak adostasunez hartuko dira. Dena den, administrazio publiko parte-hartzaileen beren aurrekontuei, baliabideei edo eskumenei eragiten dieten akordioek eta erabakiek zuzenean dagozkienen aldeko bozka izan beharko dute.

Jarraipen-batzordeak idatzizko prozedura bitartez hartu ahalko ditu erabakiak.

4.– Jarraipen-batzordeko lehendakariaren eskumenak.

Jarraipen-batzordeko lehendakariak jarraipen-batzordearen bileretarako deiak egingo ditu, bileren buru izango da eta berak amaituko ditu; horrez gainera, bilerako eztabaidak zuzendu ere egingo ditu.

Lehendakaria ez dagoenean, lehendakariordeak beteko ditu eginkizun horiek.

Bosgarrena.– Batzorde iraunkorra.

1.– Jardueren segimendua egiteko eta jarduerak betearazteko, batzorde iraunkor bat eratu daiteke. Batzorde iraunkor horretako kideak jarraipen-batzordeak izendatuko ditu, honela:

a) MICINNen bi ordezkari; haietariko bat, ISCIIIren zuzendaria. Bietako edozeinek jardun ahalko du batzordeko lehendakari edo lehendakariorde gisa, MICINNi kargu horiek betetzea dagokionean.

b) EAEko bi ordezkari; haietako bat, gutxienez, jarraipen-batzordeko kide izango da. Bietako edozeinek jardun ahalko du batzordeko lehendakari edo lehendakariorde gisa, MICINNi kargu horiek betetzea dagokionean.

Batzorde iraunkorreko lehendakaritza eta lehendakariordetza txandakakoak izango dira, jarraipen-batzorderako aurreikusitako aldizkatze berarekin, kontuan hartuz bi organo horietako lehendakaritza ezin duela aldi berean bete administrazio berak.

Klausula honetan aurreikusten ez denari dagokionez, hitzarmen honetan jarraipen-batzordeko kideentzako ezarritako araubide bera aplikatuko zaie batzorde iraunkorreko kideei.

Batzorde iraunkorrak hitzarmen honetan ezarritako batzorde zientifiko aholkulariaren aholkua jaso ahalko du, eta orobat beste espezialista batzuena, aztertu beharreko gaiaren arabera.

2.– Batzorde iraunkorraren deialdien eta bilkuren eskumenak eta araubidea jarraipen-batzordeak zehaztuko ditu.

Seigarrena.– Batzorde zientifiko aholkularia.

1.– Batzorde zientifiko aholkularia organo aholku-emaile bat da, eta egiten dituen txostenak jarraipen-batzordeari eman beharko zaizkio. Haren eginkizuna da, batetik, jarduera, programa eta plan zientifikoei eta teknologikoei buruzko aholkua ematea, eta, bestetik, lanen kalitatea eta irismena hobetu dezaketen etorkizuneko ekintzak proposatzea.

2.– Hitzarmen honen helburuei eta jarduerei loturiko arloetan nazioarteko prestigio aitortua duten zortzi pertsonak, gehienez, osatuko dute batzordea. Jarraipen-batzordeak izendatuko eta kargugabetuko ditu kideak; lau urtez izango dira batzorde horretako kide, eta berriz hautatu ahalko dira, denbora bererako. Jarraipen-batzordeak zehaztuko ditu, halaber, haien eginkizunak eta barne-araubidea.

3.– Batzorde zientifiko aholkulariak, urtean behin, zentroaren egokierei, aukerei eta etorkizuneko ahalmenei buruzko txosten bat egingo du, kontsultarakoa. Txosten hori jarraipen-batzordeari aurkeztuko zaio, hitzarmen honen orientazio estrategikoan laguntzeko.

Zazpigarrena.– Batzorde aholkulari enpresariala.

1.– Batzorde aholkulari enpresariala enpresekin eta beste eragile sozial batzuekin iritziak erkatzeko gunea da, xedetzat berariazko programetan garatutako ikerketa eta garapen teknologikoaren inguruko merkatu-aukerak identifikatzea duena.

2.– Jarraian adierazten direnen arteko ezaugarri bat edo gehiago betetzen dituzten hamabost enpresak edo erakundek, gutxienez, parte hartuko dute; batzorde aholkulari enpresarialeko kide izango dira, halaber, programen zuzendariak eta koordinatzaileak, zeinek I+G+B jardueretan ematen ari diren aurrerapausoei eta dituzten aukerei buruzko informazioa emango baitute.

a) Enpresa edo erakunde horiek aribideko ikerketak aplikatu edo erabil ditzakete.

b) Badituzte finantza-baliabideak arlo honetako jarduerak laguntzeko, edo lankidetza honi loturiko jarduerak finantzatzen ari dira jada.

c) Haien arduradunek badute ezagutza eta ikuspegia lankidetza honetako jarduerak gidatzeko.

d) Haien prestigioa eta jarduera lagungarri izan daiteke hitzarmen honen xedeetarako.

Enpresek edo beste erakunde batzuek batzorde aholkulari enpresarialean parte hartzeari utziko diote haiek hala eskatzen dutenean edo hautatu zireneko baldintzak betetzeari uzten diotenean. Jarraipen-batzordeak izango du enpresen edo beste erakundeen sarrera-irteerak kudeatzeko ardura, eta hark egingo ditu alta- eta baja-proposamenak.

3.– Batzorde aholkulari enpresarial osoa urtean behin bilduko da, gutxienez, eta behar adinako aurrerapenarekin egingo da deialdia, kide diren enpresen eta erakundeetako ordezkarien parte-hartzea bermatzeko. Sistematikoki, jarraipen-batzordeko kide guztiei jakinaraziko zaie batzorde aholkulari enpresarialaren deialdia, eta batzorde horren osoko bilkuratik ateratako informazioaren eta ondorioen berri izango dute.

4.– Batzorde aholkulari enpresarialaren deliberamenduen oinarria identifikatutako zaintza eta prospektiba teknologikoari buruzko eta merkatuari buruzko txostenak izango dira, eta, orobat, berariazko programetan (bereziki Garapen eta Berrikuntza Programan) aribidean den ikerketari eta berrikuntzari buruz batzorde zientifiko aholkulariak sortutako urteko txostena.

5.– Bereziki, ustiapen komertzialeko proiektuen eta ekimenen bideragarritasuna aztertzeko beharrezkotzat jotzen diren lantaldeak sortuko dira batzorde aholkulari enpresarialaren inguruan.

6.– Batzorde aholkulari enpresarialaren eta haren lantaldeen deliberamenduen emaitza gisa, urteko irizpen bat emango da, berariazko programen aribideko ikerketa- eta berrikuntza-jarduera merkaturatzeko ahalmenari buruzkoa, merkaturatzeko beharrezkotzat jotzen diren gomendioekin.

Zortzigarrena.– I+G+B programa integralaren zuzendaritza.

Jarraipen-batzordeak zehaztuko ditu I+G+B zuzendaritzaren ezaugarriak eta eskumenak.

Bederatzigarrena.– Idazkaritza teknikoa.

Hitzarmen hau sinatzen duten alderdiek, jarraipen-batzordearen bitartez, idazkaritza teknikoa izendatuko dute. Idazkaritza teknikoa da hitzarmen hau kudeatzeko eta eusteko oinarrizko egitura.

Hauek izango dira idazkaritza teknikoaren eginkizunak:

a) Gobernu-organoak (jarraipen-batzordea eta batzorde-iraunkorra) kudeatzeko eta eusteko bitarteko izatea.

b) Kontsulta-organoak (batzorde zientifiko aholkularia eta batzorde aholkulari enpresariala) kudeatzeko eta haiei eusteko bitarteko izatea.

c) I+G+B Programaren zuzendaritza kudeatzeko eta hari eusteko bitarteko izatea.

d) Jarraipen-batzordeak eta batzorde iraunkorrak onartutako komunikazio- eta harreman-politika gauzatzea.

e) Prometan parte hartzen duten erakunde eta zentro guztiei programa horietarako baliabideak lortzeko aukerak jakinarazteko jarduerak egitea.

f) Proiektuak garatzeko aholkularitza tekniko-administratiboa ematea.

Hamargarrena.– Berariazko programen zuzendaritza.

Zahartzeari buruzko Oinarrizko Ikerketa Programaren zuzendaritza CNIEren zuzendaritza izango da. Horretarako, beharrezkoak diren berariazko hitzarmenak egingo dira. Horrez gainera, CNIEren plataforma teknologikoen osagarri, inguruko beste plataforma teknologiko batzuk ere izango ditu Programak, eta toki, erkidego, estatu eta nazioarte mailan jada badiren nazioarteko garrantziko beste oinarrizko ikerketa-zentro batzuekiko sinergiak erabiliko ditu, betiere Programarako zehaztutako helburuak betetzeko.

Oro har, beste hiru programak koordinatzeko egitura programaren koordinatzaile batek garatuko du.

Hamaikagarrena.– Zahartzeari buruzko ikerketa klinikoko programaren eta osasun eta gizarte zerbitzuei buruzko ikerketa programaren koordinatzaileak.

Zahartzeari buruzko Ikerketa Klinikoko Programaren koordinatzailea RETICEFeko koordinatzailea izango da, eta ISCIII institutuak izango du hura izendatzeko eta kargugabetzeko eskumena.

Osasun eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Ikerketa Programaren koordinatzaileak ISCIII institutuak abiaraziko dituen osasun-zerbitzuen RETICen jarduerak ere koordinatuko ditu, eta ISCIII institutuak izango du hura izendatzeko eta kargugabetzeko eskumena.

RETICen koordinatzaile gisa dagozkien eginkizunez gainera, hauek izango dira Zahartzeari buruzko Ikerketa Klinikoko Programaren eta Osasun eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Ikerketa Programaren arduradun gisa dagozkien eginkizunak:

a) Zahartzeari buruzko kalitatezko ikerketa sustatzea.

b) Programaren helburu estrategikoak eta haren jarduera-plana diseinatzea.

c) Programaren berezko jarduerak koordinatzea.

d) Ikerketa-azpiegiturei buruzko proposamenak egitea.

e) Prestakuntzako eta ikerketa sustatzeko proposamenak egitea.

f) Beste programa batzuekiko eta Programaren jarduera-eremuan jarduerak garatzen dituzten estatu eta nazioarte mailako beste egitura batzuekiko konexio- eta lankidetza-ekimenak eta -trukeak sustatzea.

g) Emaitzak jendarteratzea sustatzea, lankidetzan, batez ere Garapen eta Berrikuntza Programarekin, ekimen berritzaileak identifikatzeko eta haiek merkaturatzeko, gizarteratzeko eta osasun-sisteman aplikatzeko.

h) Programan parte hartzen duten eragileek, izan litezkeen sinergiak aprobetxatzeko eta ikerketa klinikoaren eta gizarte-zerbitzuen ikerketaren arloan, baterako programak/proiektuak –hurrenez hurren– garatzeko beharrezko koordinazio-mekanismoak ezartzea.

i) Programa bakoitzeko parte-hartzaileei organoek hartutako erabakiak helaraztea.

j) Programan garatutako jardueren urteko memoria egitea.

k) I+G+B Programaren zuzendaritzak ematen dizkion eginkizunak.

Programa horien koordinatzaileak, eginkizun horiek burutzeko, batzorde zientifiko aholkulariaren aholkuetan (alderdi zientifikoan) eta batzorde aholkulari enpresarialaren aholkuetan (enpresa-sektoreari lotutako jarduera-eremuan) oinarrituko dira. Halaber, eman zaizkien eginkizunak ezin dituztenean bete, Programa horien koordinatzaileek egoki deritzeten pertsonei eskuordetu ahalko dizkiete eginkizunok, Programarako emaitza onuragarriak lortzeko izango bada.

Programa horien koordinazio-arduradunek egokiak direla erabakitzen den CNIEko zuzendaritza- eta aholkularitza-organoetan parte hartuko dute. Era berean, bilerak egingo ditu Programan parte hartzen duten ikerketa-taldeen eta erakundeen buruekin, hiru hilez behin, gutxienez.

Hamabigarrena.– Zahartzeari buruzko garapen eta berrikuntza programaren koordinatzailea.

Jarraipen-batzordeak izendatuko eta kargugabetuko du Garapen eta Berrikuntza Programaren koordinatzailea, eta jarraipen-batzordeak zehaztuko du, orobat, zer iraupen izango duen kargualdiak; denboraldi hori, aurrerantzean, berritu ahal izango da, beste denboraldi berdin edo laburrago bat ezarriz. Eginkizun hauek dagozkio Garapen eta Berrikuntza Programaren koordinatzaileari:

a) Ikerketa-programek sortutako ezagutzaren kapitalizazioa sustatzea, ikerketen emaitzak aplikatzeko helburuarekin, hartara adinekoentzako mundu mailako irismeneko esparru soziosanitario batean ezar daitezkeen teknologia, produktu eta zerbitzuak sortuz.

b) Programaren helburu estrategikoak eta haren jarduera-plana diseinatzea.

c) Programaren berezko jarduerak koordinatzea.

d) Ikerketa-azpiegiturei buruzko proposamenak egitea.

e) Prestakuntzarako proposamenak egitea.

f) Behar diren koordinazio-mekanismoak ezartzea hiru ikerketa-programetan parte hartzen duten eragileek izan litezkeen sinergiak aprobetxatzeko eta oinarrizko ikerketaren, ikerketa klinikoaren eta gizarte-zerbitzuen ikerketaren arloan programak/proiektuak garatzeko, esparru horretan interesa duten enpresa-sektoreekin.

g) Nazioarteko beste osasun-sistema batzuekin harremanak eta aliantzak egitea, osasun-teknologiak ebaluatzeko sareak sortzeko.

h) Programan garatutako jardueren urteko memoria egitea.

i) I+G+B Programaren zuzendaritzak ematen dizkion eginkizunak.

1.– Programaren koordinatzailea, eginkizun horiek burutzeko, batzorde zientifiko aholkulariaren aholkuetan (alderdi zientifikoan) eta batzorde aholkulari enpresarialaren aholkuetan (enpresa-sektoreari lotutako jarduera-eremuan) oinarrituko da. Halaber, eman zaizkion eginkizunak ezin dituenean bete, Programaren koordinatzaileak egokiak iruditzen zaizkion pertsonei eskuordetu ahalko dizkie eginkizunok, Programarako emaitza onuragarriak lortzeko izango bada.

2.– Programaren koordinatzaileak parte hartuko du egoki iritzitako CNIEko zuzendaritza- eta aholkularitza-organoetan. Era berean, bilerak egingo ditu hiru ikerketa-programen koordinatzaileekin, hiru hilez behin, gutxienez.

Hamahirugarrena.– Programa-batzordea.

1.– Jarraipen-batzordeak programa-batzorde bat osatu ahalko du, I+G+B Programa Integralaren eta berariazko lau ikerketa-programen jarduerak koordinatzeko organo gisa. Zeregin nagusi horretaz gainera, eginkizun hauek ere izango ditu programa-batzordeak:

a) Zuzendaritzari eta koordinatzaile guztiei programa bakoitzaren aurrerapausoen eta egoeraren berri ematea.

b) Programa Integrala garatzeko ikerketa-azpiegiturei buruzko proposamenak egitea. Proposamen horiek, ondoren, azpiegitura horiek jasoko dituzten Programako erakunde eta zentro parte-hartzaileekin adostu beharko dira.

c) Prestakuntzako eta ikerketa sustatzeko proposamenak egitea.

d) Haietatik sor daitezkeen sinergiak identifikatzea eta aprobetxatzea.

e) Helburu diren interes-taldeekin komunikazioa bideratzea, haien zeregina garatzeko.

f) Ikerketaren kalitatea kontrolatzea.

2.– Programa-batzordea osatzea.

Programa-batzordearen kideak Programa Integralaren zuzendaria eta programen lau koordinatzaileak izango dira (CNIEren zuzendaria, RETICEFen koordinatzailea, Ikerketa Sozio-sanitariorako Sarearen koordinatzailea eta Garapen eta Berrikuntza Programaren koordinatzailea).

3.– Jarraipen-batzordeak izango du programa-batzordearen kideak izendatzeko eta, hala dagokionean, kargugabetzeko eskumena. Programetan garatutako jardueren egokierei, aukerei eta ahalmenei buruzko urteko txosten bat egiteko ardura izango du programa-batzordeak. Txosten hori jarraipen-batzordeari aurkeztuko zaio, eguneroko lana ezagutzen laguntzeko eta aribideko ikerketa- eta berrikuntza-jardueren egoeraren berri emateko. Batzorde aholkulari enpresarialaren lanerako dokumentu gisa erabiltzeko ere baliatuko da txostena, merkaturatzeko aukerak identifikatzeko.

Hamalaugarrena.– Araubide juridikoa eta gatazken konponbidea.

Hitzarmen honek Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 4.1.c) artikuluan ezarritako izaera du, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 6.1 artikuluan ezarritakoaren babesean egiten da.

Hitzarmenaren interpretazioak, aldaketak, ondorioek edo ebazpenak sor litzaketen auziak alderdien arteko adostasunez ebatzi beharko dira, jarraipen-batzordearen bitartez. Akordiorik lortuko ez balitz, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa aplikatuko zaie, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 8.3 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Hamabosgarrena.– Iraunaldia eta berritzea.

Hitzarmen hau bi alderdiek sinatzen dutenean jarriko da indarrean, eta aurreikusitako jarduerak amaitu arteko iraunaldia izango du, hitzarmenean ezarritakoaren arabera alderdien obligazioek dirauten bitartean.

Hitzarmen hau, bi alderdiek espresuki hala adostuz gero, aldatu egin daiteke, edo luzatu, bost urteko edo gutxiagoko denboraldirako, haren izapidetzean jasotako izapide formalak eta prozedura-izapideak errespetatuz, betiere.

Sinatu eta biharamunean jarriko da indarrean hitzarmen hau.

Hamaseigarrena.– Ebazpena.

Indarraldia amaitzeaz gainera, hauek izango dira lankidetza-hitzarmena desegiteko arrazoiak:

a) Alderdi guztien arteko adostasuna.

b) Alderdiren batek hitzarmenaren klausuletan ezarritakoa ez betetzea.

c) Hitzarmena berariaz denuntziatzea, gutxienez urtebete lehenago jakinarazita.

Hamazazpigarrena.– Hitzarmena argitaratzea.

Hitzarmen hau Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Eta adostasunaren adierazgarri, alderdiek, bi kopiatan eta ondorio bakarrerako, hitzarmen hau sinatzen dute, goian adierazitako tokian eta egunean.

Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren izenean,
CRISTINA GARMENDIA MENDIZÁBAL.

Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailaren izenean,
JAVIER RAFAEL BENGOA RENTERÍA.

Carlos III Osasun Institutuaren Izenean,
JOSÉ JERÓNIMO NAVAS PALACIOS.

VIII. ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN MAIATZAREN 18KO 34/2012 EBAZPENARENA

LANKIDETZA-HITZARMENA, SUSTAPEN MINISTERIOAREN ETA EUSKO JAURLARITZAREN ARTEKOA, HIRI-INFORMAZIORAKO SISTEMA GARATZEKO

Madril, 2012ko apirilaren 10a.

BILDU DIRA:

Alde batetik, Ana María Pastor Julián andrea, Sustapeneko ministro gisa, haren izendapena ezartzen duen abenduaren 21eko 1826/2011 Errege Dekretuaren arabera, eta Estatuko Administrazio Orokorraren Antolamenduari eta Funtzionamenduari buruzko apirilaren 14ko 6/1997 Legearen 13.3 artikuluak eta azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 6. artikuluak, testu bereko hamahirugarren xedapen gehigarriari dagokionez, ematen dizkion eskuduntzak erabiliz.

Bestetik, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburu María del Pilar Unzalu Pérez de Eulate andrea, Eusko Jaurlaritzaren izenean, hura izendatzeko den 13/2009 Dekretuari (Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariarena, maiatzaren 8koa) jarraikiz eta Eusko Jaurlaritzaren izenean eta haren ordezkari gisa jardunda, organo honek hartutako erabakiaren arabera.

Bi alderdiek lankidetza-hitzarmen hau izenpetzeko gaitasuna onartu diote elkarri, eta beraz, honako hau.

ADIERAZTEN DUTE:

Lehenengoa.– Sustapen Ministerioak, Azpiegituretarako eta Plangintzarako Estatuko Idazkaritzaren mendeko den Arkitektura, Etxebizitza eta Lurzoruaren Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, hainbat eskumen egikaritzen ditu, Konstituzioaren 149.1.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, etxebizitzaren eta lurzoruaren arloan Estatuko Administrazio Orokorrari dagozkion eskumenak, hain zuzen ere; betiere Ministerioko sailen oinarrizko egitura organikoa ezartzen duen abenduaren 30eko 1887/2011 Errege Dekretuan, zehazki, Sustapen Ministerioari buruz diharduen 6. artikuluan, aurreikusitakoari jarraikiz.

Abenduaren 30eko 1887/2011 Errege Dekretuaren arabera, Plangintzako eta Azpiegituretako Estatuko Idazkaritzak, Arkitektura, Etxebizitza eta Lurzoruaren Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, ordura arte Etxebizitza eta Hiri Jardunetako Estatuko Idazkaritzak egikaritzen zituen eskumenak hartu ditu bere gain; horregatik, urtarrilaren 14ko 30/2011 Errege Dekretuaren arabera, Arkitektura, Etxebizitza eta Lurzoruaren Zuzendaritza Nagusiak honako eginkizun hauek betetzen ditu, besteak beste, betiere errege-dekretu horretako 14.1 artikuluaren d), g) eta f) letren arabera:

● Autonomia-erkidegoei eta udalerriei laguntzea eta haiekin lankidetzan jardutea hirigintza-tekniken berri izateko eta hedatzeko, baita arlo horren inguruko jardunbide egokiak hedatzeko ere.

● Ekainaren 20ko 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Lurzoruaren Legeari buruzko Testu Bateginaren lehenengo xedapen gehigarrian aipatzen den hiri-informaziorako sistema diseinatzea, mantentzea eta eguneratzea, hirigintzari eta lurzoruari buruzko estatistika-datuak biltzeko eta tratatzeko, arlo horretan eskumena duten gainerako administrazio eskudunekin koordinaturik.

● Hirigintza- eta lurzoru-politikei buruzko azterlanak eta ikerlanak sustatzea eta egitea, baita politika horiei buruzko informazioa biltzea eta hedatzea ere.

Etxebizitzari eta lurzoruari buruzko ardatz estrategikoen artean, administrazio publikoen, sektoreko agenteen eta kolektibo sozialen arteko adostasuna eta koordinazioa daude. Izan ere, lurzoruari buruzko testu bategina onartzen duen ekainaren 20ko 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarrian bildutako Hiri-informaziorako Sistema (HIS) aurkeztu die Sustapen Ministerioak autonomia-erkidegoei. Sistema horren helburua, batez ere, gardentasuna sustatzea da lurzoruari eta hirigintzari buruzko informazioa argitaratuz eta hedatuz Espainian. Sistema kooperatiboa da, administrazio eskudunen informazio-sistemekin koordinatuta egongo dena, eta helburu nagusi hauek dituena:

● Gardentasuna txertatzea lurzoruari eta hirigintzari buruz, kudeaketa publikoko eta pribatuko tresna gisa eta herritarrei informazioa emateko baliabide gisa.

● Indarrean dagoen plangintzaren berri izatea.

● Lurzoruaren eskuragarritasunaren eta lurzoru horren bilakaeraren berri izatea.

● Etxebizitzen eskaintzari eta eskaerari nahiz bestelako erabilerei buruzko informazioa txertatzea.

● Estatuko eta Europako beste sistema batzuekiko bateragarritasuna.

Bigarrena.– Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretuaren (Eusko Jaurlaritzarena) 1. artikuluaren f), g) eta i) idatzi-zatietan Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari honako eginkizun hauek esleitzen zaizkio, besteak beste:

● Lurralde, hidrologia eta itsasertzaren plangintza.

● Hirigintza-plangintza lurralde-plangintzara egokitzen dela kontrolatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldea Antolatzeko Batzordeari esleitutako eskumenak betez.

● Lurraldeko informazioaren sistema.

Eskumen horiei jarraikiz, eta lurraldea antolatzen laguntzeko tresna gisa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, 1993az geroztik, Informazio Geografikoko Sistema bat eta EAEko lurzoru guztiari buruzko lurraldeen datu-bankua, «Udalplan» deiturikoa, dauzka. Tresna horrek udalerri bakoitzean indarrean dagoen plangintzari buruzko informazioa biltzen du urtero, eta, zehazki, Lurzoruaren Egitura Orokorra eta Organikoa eta Kalifikazioa, baita Lurzoruaren Kalifikazioa ere. Horrez gain, alfazenbakizko datu-base bat dauka, plangintzan definitutako arlo bakoitzaren betetze-maila zein den erakusten duena udalerri bakoitzean. Base hori hainbat laburpen-koadrorekin osatzen da, eta koadro horietan Arlo Funtzional, Probintzia edo Lurralde Historikoen eta Autonomia Erkidegoaren araberako informazioa biltzen da.

Hirugarrena.– Hiri-informaziorako Sistemaren Lantaldea (aurrerantzean, HISL) 2008ko ekainaren 26an sortu zen eta Sustapen Ministerioko ordezkariek, autonomia-erkidegoek eta lurralde-informazioarekin lotutako bestelako erakundeek osatzen dute; lantalde horren xedea tartean sartutako erakunde guztien arteko lankidetza eta koordinazioa ahalbidetzea eta teknologia estandarizatuaren bitartez eskura daitezkeen guztien gaikako edukiak adostea da.

Laugarrena.– Horregatik, bi alderdiek hartu nahi dute parte lankidetza-hitzarmen honetan, behar den koordinazioa eta osagarritasuna ezartzera bideratutako ekintzak ezartzeko, hirigintza-informazioa benetan eskuragarria eta ahalik eta publikoena izan dadin.

Bosgarrena.– Aurretik aipatutakoa oinarri hartuta, Sustapen Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak adierazten dute lankidetza-hitzarmen hau formalizatu nahi dutela, honako klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Xedea.

Hitzarmen honen helburu orokorra erakunde-arloko lankidetza da hirigintza-plangintzarekin lotutako informazioa trukatzeko, betiere Hiri-informaziorako Sistemaren Lantaldeak emandako gomendioak kontuan hartuta, eta aipatutako informazioa Hiri-informaziorako Sisteman txertatzeko.

Bigarrena.– Garatu beharreko jardunak.

Lankidetza-hitzarmen honen helburua betetzen dela bermatzeko, honako jardun hauek egingo dira:

● Autonomia-erkidegoak Hiri-informaziorako Sistemaren Lantaldean parte hartuko du eta lagunduko du.

● Hitzarmena sinatu dutenek:

○ Udaleko hirigintza-plangintzari buruz eskuragarri dagoen informazioa partekatuko dute eta parte hartu duten erakundeek garatutako informazio-sistemetan erabiliko dute, jatorrizko iturria aipatuz.

○ Elkarri informazioa emango diote, programatzen diren eta bientzat interesgarriak izan daitezkeen topaketei, hitzaldiei, biltzarrei edo antzeko jarduerei buruzko lankidetza-neurriak hartzeko, hala badagokie.

○ Egokitzat hartzen duten moduan hedatu ahal izango dituzte lankidetza-hitzarmen honetan ezarritako proiektuetatik sortzen diren ekintzak eta esperientziak.

Hirugarrena.– Sustapen Ministerioaren betebeharrak.

Lankidetza-hitzarmen honen xedea betetzeko, Sustapen Ministerioak, Arkitektura, Etxebizitza eta Lurzoruaren Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, honako konpromiso hau hartzen du:

● Hiri-informaziorako Sistemaren Lantaldearen jarduerak koordinatzea, bilerak deituz eta bilera horien ondorioak Hiri-informaziorako Sistemaren Atariaren bidez argitaratuz.

● Hiri-informaziorako Sisteman txertatzea, urtebeteko gehieneko epean, hitzarmen honen bitartez lortutako informazioa. Jatorrizko datu multzoen eraldaketa-prozesuak gauzatu ahal izango dira Hiri-informaziorako Sistemaren datuen ereduetara egokitzeko. Nolanahi ere, jatorrizko iturria aipatuko da.

● Hiri-informaziorako Sistematik eratortzen diren emaitza guztiak partekatzea. Horretarako, HISL lantaldean aipatutako mekanismo teknologikoak erabiliko dira eta zehaztasunak egingo dira.

Laugarrena.– Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren betebeharrak.

Lankidetza-hitzarmen honen helburua betetzeko, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak honako konpromiso hau hartzen du:

● HISL lantaldean parte hartuko du, bere informazio-sistemak garatzeko egiten diren bileretara bertaratuz, eta gomendioak egiten lagunduz.

● Bermatuko du, kostu gehigarririk eragiten ez duen neurrian, Euskadiko datu-ereduak Hiri-informaziorako Sistemaren datuen ereduko gutxieneko elementu kopurua elikatzeko aukera emango duela.

● Sustapen Ministerioaren eskura jartzea hitzarmen hau sinatzen denetik zenbatzen hasita urtebeteko epean, seigarren klausulan aurreikusitako jarraipen-batzordean adostutako bitarteko telematikoen bitartez, Informazio Geografikoko Sistema eta EAEko lurzoru guztiari buruzko lurraldeetako datu-bankua, «Udalplan» deiturikoa, eta hitzarmen honetako azalpen-zatiaren bigarren idatzi-zatian bilduta dagoena.

● Aipatutako «Udalplan» tresnan bildutako informazioa gutxienez urtean behin eguneratzea EAEko udalerri guztietan.

Bosgarrena.– Finantziazioa.

Hitzarmen honek ez dakar inolako gasturik. Hitzarmen hau garatzean aurreikusi gabeko jardunak sortzen badira, eta jardun horiek egikaritzeko gasturen bat egin behar bada, alderdiak ados jarri ondoren, eranskin baten formalizazioa izapidetu ahal izango da, eta eranskin horrek balio juridiko bera eta ondorio lotesle berak izango ditu.

Eranskin horretan zehaztuta azalduko dira laguntzaren dimentsioa eta irismena, baita alderdiek hartzen dituzten edozein motatako konpromisoak ere, eta, sinatzen denetik aurrera, lankidetza-hitzarmen honen zatitzat hatuko da; horregatik, hitzarmen honetan bildutako araubidea eta arauak aplikatuko dira.

Seigarrena.– Jarraipen-batzordea.

Lankidetza-hitzarmen honen aplikazioaren jarraipena egiteko, jarraipen-batzorde bat eratzen da, eta honako osaera, eginkizun eta funtzionamendu-araubide hauek izango ditu:

1.– Osaera:

● Sustapen Ministerioaren aldetik, departamentuko titularrak zuzenean izendatutako bi pertsona; haietako bat organoaren presidentea izango da.

● Gobernuaren Euskal Autonomia Erkidegoko Ordezkaritzaren aldetik, gobernuaren ordezkariak izendatutako pertsona bat.

● Eusko Jaurlaritzaren aldetik, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak izendatutako hiru pertsona; haietako bat organoaren idazkaria izango da.

Edo eskuordetzen dituzten ordezkariak.

Hitzarmen hau sinatzen denetik gehienez ere hilabeteko epean alderdiek beren ordezkariak izendatuko dituzte.

2.– Eginkizunak:

○ Egindako lanen eta jardunen jarraipena, bigarren klausulan aurreikusitako jarduerak garatzeko.

○ Hartutako konpromisoen gainean egin litezkeen berrikuspenen azterketa eta proposamena, hala badagokie.

○ Hitzarmena betetzeari dagokionez, sor daitezkeen interpretazio- eta betetze-arazoak ebaztea.

○ Interesgarritzat hartzen diren neurriak eta jardun osagarriak proposatzea eta diseinatzea.

3.– Funtzionamendu-araubidea:

Jarraipen-batzordea gutxienez urtean behin bilduko da, eta batzordekideetako batek eskatuz gero.

Lankidetza-hitzarmen honetan esanbidez aurreikusi ez den orori dagokionez, Jarraipen Batzordea Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. kapituluaren II. tituluan kide anitzeko organoei buruz ezarritako arauen bidez arautuko da.

Zazpigarrena.– Aldaketa eta suntsiarazpena.

Lankidetza-hitzarmen hau alderdien adostasunez aldatu ahal izango da.

Hitzarmen hau suntsiarazteko arrazoiak honako hauek izango dira: bi alderdien adostasuna eta alderdi batek hartarako erabaki arrazoitua aurkeztea, betiere beste alderdiak hitzarmenaren klausuletako bat bete ez duelako modu larrian edo behin baino gehiagotan bete ez duelako. Kasu horretan, ez-betetze horren berri eman beharko da, aldez aurretik abisatuz, kontratua suntsiarazteko eguna baino hilabete lehenago gutxienez.

Zortzigarrena.– Iraupena.

Lankidetza-hitzarmen honek hiru urteko iraupena izango du sinatzen den egunetik zenbatzen hasita, eta bi alderdien esanbidezko akordio baten bidez luzatu ahal izango da, betiere iraupen-epea amaitu aurretik erabakitzen bada luzatzea.

Bederatzigarrena.– Hitzarmenaren izaera eta aplika daitekeen Jurisdikzioa.

Hitzarmen hau azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua onartu zuen Sektore Publikoko Kontratuen testu bateginaren 4.1.c) artikuluaren babesean egin da, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 6. artikuluaren arabera. Halaber, arau espezifikorik ez badago, legezko testu horien printzipioak aplikatuko zaizkio, sor daitezkeen zalantzak eta hutsuneak ebazteko.

Hitzarmen honen edukiaren interpretazioak, aldaketak, ondorioek eta suntsiarazpena sor ditzaketen auzigaiak, eta seigarren klausulan aurreikusitako jarraipen-batzordearen bitartez ebatzi ez direnak, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitakoaren arabera ebatziko dira, betiere aurretiazko administrazio-bidea agortu ondoren.

Eta, ados daudela erakusteko eta hitzartu den oro behar bezala jasota gera dadin, alderdi sinatzaileek dokumentu honen bi ale sinatu dituzte goian adierazitako lekuan eta egunean.

Sustapeneko ministroa,
ANA MARÍA PASTOR JULIÁN.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

IX. ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN MAIATZAREN 18KO 34/2012 EBAZPENARENA

AKORDIOA, URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN KUDEAKETARI ETA GARAPEN JASANGARRIARI LAGUNTZEKO INGURUMEN, LANDA INGURUNE ETA ITSAS INGURUNE MINISTERIOAK, EUSKO JAURLARITZAK, ETA GAUTEGIZ ARTEAGA, KORTEZUBI, SUKARRIETA, IBARRANGELU ETA GERNIKA-LUMOKO UDALEK DUTEN HITZARMENA ALDATU ETA LUZATZEKOA

Madril, 2011ko abenduaren 20a.

BILDU DIRA:

Alde batetik, Josep Puxeu Rocamora jauna, Ingurumen, Landa Ingurune eta Itsas Ingurune Ministerioko Landa-inguruneko eta Uretako estatu-idazkaria. Apirilaren 21eko 574/2008 Errege Dekretu bidez izendatu zen kargu horretarako Puxeu Rocamora. Estatuko Administrazio Orokorraren Departamentu horren izenean dator Puxeu Rocamora jauna, eta hura ordezkatuko du, horretarako ahalmena baitu eskumenak eskuordetzeari buruzko apirilaren 13ko ARM 939/2011 Aginduko I. kapituluko 1. paragrafoko c) idatzi-zatian ezarritakoaren arabera.

Bestetik, María Pilar Unzalu Pérez de Eulate andrea, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburu eta Urdaibai Biosfera Erreserbako patronatuko presidente dena. Eusko Jaurlaritzako Administrazio Orokorraren ordez eta haren izenean dator Unzalu Pérez de Eulate andrea, horretarako baimena eman baitio Gobernu Kontseiluak.

Eta bestetik, Juan Félix Naberan Ozamiz jauna, Gautegiz Arteagako alkatea; Txomin Bilbao Etxebarria jauna, Kortezubiko alkatea; Pedro Sainz Vizcaya jauna, Sukarrietako alkatea; Jesus M.ª Ziluaga Acebo jauna, Ibarrangeluko alkatea; eta Jose M.ª Gorroño Etxebarrieta jauna, Gernika-Lumoko alkatea, ekintza hau gauzatzeko eskumena dutelarik, euren karguak direla eta hauxe

ADIERAZTEN DUTE:

Lehenengoa.– 2010eko abenduaren 16an sinatu zen Ingurumen, Landa Ingurune eta Itsas Ingurune Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren, eta Gautegiz Arteaga, Kortezubi, Sukarrieta, Ibarrangelu eta Gernika-Lumoko udalen arteko hitzarmena: Urdaibako Biosfera Erreserbaren kudeaketari eta garapen jasangarriari laguntzekoa.

Bigarrena.– 2011ko azaroaren 3ko idazkian, Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako zuzendariak hitzarmen horren luzamendua eskatu zuen, ezin baitziren epean amaitu finantzatutako jardute-lerro batzuk; izan ere, jarduketak hasteko baimenak atzeratu egin dira, eta jarduketok atzeratu dituen eguraldi petrala izan da.

Hitzarmenaren bederatzigarren klausulan xedatu legez: indarraldia 2012ko martxoaren 31 artekoa da, jarduketak 2011ko abenduaren 31 baino lehen amaitu behar dira, eta 2012ko otsailaren 28a baino lehen ziurtatu eta justifikatu behar dira. Jarduketak amaitzeko ezinbestekoa den gutxieneko denbora batez luza daitezke epeak.

Goian azaldutako guztiagatik, 2010eko abenduaren 16ko lankidetza-hitzarmena luzatzeko akordio hau izenpetzea erabaki dute alderdiek. Klausula hauek izango ditu:

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Xedea.

Akordio honen xedea abenduaren 16an sinatu zen lankidetza-hitzarmena aldatzea eta luzatzea da; Ingurumen, Landa Ingurune eta Itsas Ingurune Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren, eta Gautegiz Arteaga, Kortezubi, Sukarrieta, Ibarrangelu eta Gernika-Lumoko udalen artean sinatu zen, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren kudeaketari eta garapen jasangarriari laguntzeko.

Bigarrena.– Seigarren klausularen aldaketa.

Hitzarmeneko seigarren klausulako bigarren eta hirugarren paragrafoak aldatu egin dira, eta honela idatzita geratu dira:

● 2012ko urtarrilaren 31, gauzatze-txostena egiteko eta gastuen zati bat egiaztatu nahiz justifikatzeko.

● 2012ko apirilaren 30a baino lehen, txostena, gauzatzearen ziurtagiria eta gastuen azken justifikazioa aurkezteko.

Hirugarrena.– Luzapena.

2012ko apirilaren 30era arte luzatzen da 2010eko abenduaren 16an Ingurumen, Landa Ingurune eta Itsas Ingurune Ministerioak, Eusko Jaurlaritzak eta Gautegiz Arteaga, Kortezubi, Sukarrieta, Ibarrangelu eta Gernika-Lumoko udalek Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren kudeaketari eta garapen jasangarriari laguntzeko sinatu zuten hitzarmenaren indarraldia. Halaber, 2012ko apirilaren 30era arte luzatzen da jarduketak amaitzeko, egiaztatzeko eta justifikatzeko epea.

Gainerako klausulak dauden moduan geratuko dira.

Eta ados daudela erakusteko, lankidetza-hitzarmena aldatzeko eta luzatzeko akordio honen zortzi ale izenpetu dituzte alderdiek, hasieran adierazitako lekuan eta egunean, akordioaren orri bakoitzean sinatuz.

Ingurumen, Landa Ingurune eta Itsas Ingurune ministroa,

H.O.: Landa-inguruneko eta Uretako estatu-idazkaria (apirilaren 13ko ARM/939/2011 Aginduaren I. kapituluko 1.c artikulua) (EBO: 2011/04/16),

JOSEP PUXEU ROCAMORA,

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

Gautegiz Arteagako alkatea,
JUAN FELIX NABERAN OZAMIZ.

Kortezubiko alkatea,
TXOMIN BILBAO ETXEBARRIA.

Sukarrietako alkatea,
PEDRO SAINZ VIZCAYA.

Ibarrangeluko alkatea,
JESÚS MARÍA ZILUAGA ACEBO.

Gernika-Lumoko alkatea,
JOSÉ MARÍA GORROÑO ETXEBARRIETA

X. ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN MAIATZAREN 18KO 34/2012 EBAZPENARENA

EUSKAL ESTATISTIKA ERAKUNDEAREN ETA KANARIETAKO ESTATISTIKA ERAKUNDEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, ERREGISTROAK BAT EGITEKO ASMOZ ELKARLANEAN ARITZEKO

Bildu dira: batetik, Francisco Javier Forcada Sainz jaunak, Euskal Estatistika Erakundearen (aurrerantzean Eustat) zuzendari nagusiak, parte hartu du; Forcada jaunak erakunde horren izenean eta bere ordezkari gisa jardun du, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legeak eta Euskal Estatistika Erakundearen egitura organikoa ezarri duen urtarrilaren 25eko 12/2000 Dekretuak eman dizkioten eskumenak erabilita eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2012ko martxoaren 6an egindako bilkuran emandako baimenaren arabera.

Eta bestetik, Javier González Ortiz jauna, Kanarietako Gobernuaren Ekonomia, Ogasun eta Segurtasuneko kontseilari jaunak parte hartu du, presidentearen uztailaren 8ko 88/2011 Dekretuaren bidez izendatua izan ostean (BOC, 135. zk., 2011-07-11); González jaunak Kanarietako Estatistika Erakundearen Batzorde Betearazleko (aurrerantzean ISTAC) presidentea da eta aipatu erakunde autonomoaren izenean eta bere ordezkari gisa jardun du, Erakundeko Batzorde Betearazle horrek baimenduta eta honakoek emandako eskumenez baliatuta: Kanarietako Estatistika Erakundearen Araudi Organikoa onartu duen apirilaren 23ko 48/1992 Dekretuaren 7. artikuluko 2.c) idatzi-zatia, Batzorde Betearazleak 1996ko martxoaren 7an hartutako erabakia betez (1996-11-04ko BOC, 139. zk.), eta apirilaren 23ko 48/1992 Dekretu horren 7. artikuluko 4. e) idatzi-zatia.

ADIERAZTEN DUTE:

Eustat eta ISTAC estatistika ofizialen ekoizleak diren heinean, datu ugari bildu, erabili, ustiatu eta aztertzen dute. Ondorioz, estatistika erakunde biek dute helburu bera: erregistroak bat egiteko azterlanean sakontzea, hau da, artxibo bi edo gehiagotan dauden erakunde bateko erregistroak identifikatzea identifikatzaile bakarrak ez daudenean.

Euskal Autonomia Erkidegoak bakarrik du bere helburu eta eskumenetarako estatistikak egiteko eskumena, Euskal Autonomia Estatutuaren 30.23 artikuluaren arabera; bestalde, Kanarietako Autonomia Erkidegoak ere berak bakarrik du interesekotzat jotzen dituen estatistikak egiteko eskumena, Kanarietako Autonomia Estatutuaren 30.23 artikuluan ezarritakoa betez.

Bi alderdiek planteamendu, xede eta interes batzuetan bat datozela kontuan hartuta, lankidetza hitzarmen honen bidez erregistroak bat egiteko zereginean elkarlanean aritu nahi dute. Horrela, egungo fitxategietan biltzen den informazioa ahalik eta modu egokienean aprobetxatuko da eta informatzaileen zama murriztu egingo da.

Hori guztia dela bide, lankidetza hitzarmen hau sinatzea erabaki dute hurrengo klausulen arabera:

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Lankidetza hitzarmenaren helburua

Hitzarmen honen helburua EUSTATen eta ISTACen arteko lankidetza formalizatzea da bien artean erregistroak bat egin ditzaten.

Bigarrena.– Alderdiek egin beharreko jardunak.

Eustatek ISTACi lagako dio «Bateratzeko Modulua»; hau da, teknika algoritmikoak erabiliz bi fitxategitatik ateratako erregistro-pareak identifikatzen dituen aplikazio informazioa lagako dio, zuzeneko bateratzea egin dezaketen identifikatzaile bakarrak ez daudenean.

Nolanahi ere, ISTACek ezin izango dio inoiz «Bateratzeko Modulua» beste hirugarren bati laga.

Aplikazioak 24 programa exekutagarri ditu, VisualBasic.Net 2003 delakoan garatu direnak (framework 2.0).

Datu-baseak 190 taula eta 35 pakete ditu pl/sql, gutxi gorabehera. Oracle 10g Service Pack 2 izenekoa erabili da, gainera, honek duen ahalmena eta aldakortasuna kontuan hartuta.

Eustatek honakoak emango dizkio ISTACi:

Métrica v3 oinarritzat hartzen duen Besaide v2 estandarrak betez idatzitako dokumentazioa.
Datu-baseak sortzeko Scripts pl/sql.
VB.Net iturburu-kodea
VB.Net exekutagarriak

Eustatek ez du erantzukizunik izango «Bateratzeko Modulua» instalatzean ISTACen ekipamenduetan gertatu ahal izan diren kalteen gainean.

Horrez gain, ISTACek era berean Eustati lagako dio arlo honetan egiten dituen gauzapen, egokitzapen edo garapen berrien erabilera.

Hirugarrena.– Beste konpromiso batzuk.

Behean sinatzen duten alderdiek konpromisotzat hartu dute erregistroen bat egiteari buruzko gai metodologikoen emaitza eta agiri guztiak arin eta modu eraginkorrean trukatzea.

Horrez gain, eragiketa estatistiko zehatzetan erregistroak bateratzeko metodoak aplikatzeari buruz dituzten esperientziak gutxienez urtean behin bat egiteko konpromisoa hartu dute, baita «Bateratzeko Moduluan» egiten diren hobekuntzak elkar trukatzeko ere.

Laugarrena.– Emaitzen hedapena

Alderdiek nahitaez aipatu beharko dute beste alderdiak egin duen ekarpena, hitzarmen honetan jasotako konpromisoen ondoriozko lanak eta emaitzak oinarritzat hartuta egiten diren argitalpenetan edo hedapenerako beste edozein produktutan.

Bosgarrena.– Finantzaketa.

Hitzarmen honetan aurreikusten diren ekintzek ez dute kosturik sortuko, eta ez dute ekarriko alderdien arteko kontraprestazio finantzariorik.

Seigarrena.– Jarraipen Batzordea.

a) Osaketa.

Hitzarmenaren Jarraipen Batzorde bat sortu da. Hona hemen batzordea osatzen duten ordezkariak:

Eustaten ordezkariak:

– Koordinazio Teknikoko eta Zabalkundeko Zuzendariordetzako arduraduna.
– Ekoizpeneko eta Azterketa Estatistikoen arduraduna.
– Estatistika Soziodemografikoen arduraduna.
– Administrazio eta Zerbitzuetako arduraduna.

ISTACen ordezkariak:

– Zuzendaria
– Estatistika Ekonomikoen Zerbitzuko burua.
– Estatistika Demografikoen eta Sozialen Zerbitzuko burua.
– Informatika Estatistikoko eta Datu-bankuko Zerbitzuko burua.

Berariaz izendatzen diren ordezkariek Jarraipen Batzordeko idazkari-lanetan arituko dira.

Halaber, eta arlo honen edukia kontuan izanda, alderdi biek egokitzat jotzen dituzten teknikariek ere osatu ahal izango dute Batzordea; hauek hitza izango dute baina ezin izango dute botorik eman.

b) Eginkizunak:

– Bi alderdiek garapen informatikoen trukean bidezkotzat jotzen dituzten jarduketak aztertzea eta elkarlanean aritzea erregistroak bat egiteko gai metodologikoetan.

– Lankidetza hitzarmen hau betetze aldera gerta daitezkeen auzipeko gaiak interpretatzea.

– Lankidetza hitzarmen hau zein mailatan bete den eta eraginkortasunez bete den ebaluatzea.

Zazpigarrena.– Indarraldia.

Lankidetza hitzarmen honek sinatzen den egunetik hiru urtera arteko indarraldia izango du; nolanahi ere, epe bereko luzapena egin ahal izango da, alderdietako batek aldi bakoitza amaitu baino gutxienez hiru hilabete lehenago hitzarmenaren amaiera iragartzen ez badu.

Zortzigarrena.– Izaera eta aplika daitezkeen araubide juridikoa eta jurisdikzioa

Lankidetza hitzarmen hau administratiboa da eta, 4.1.c artikuluaren arabera, ez zaio aplikatuko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea. Era berean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 6 eta 8 artikuluek arautuko dute.

Bestalde, seigarren klausulan ezarritakoa aintzat hartuta eta aipatu 30/1992 Legeko 8.3. artikuluan xedatutakoaren arabera, hitzarmena indarrean dagoen bitartean sor daitezkeen auzi eztabaidagarriak Jarraipen Batzordeak berak ebatzi ezin baditu administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren pean jarriko dira, bera arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearekin bat etorriz.

Eta horrekin guztiarekin ados daudela agertzeko, alderdiek lankidetza hitzarmenaren lau ale sinatu dituzte 2012ko martxoaren 14an.

Eustaten zuzendari nagusia,
FCO. JAVIER FORCADA SAINZ.

ISTAC-eko Batzorde Betearazleko presidentea,
JAVIER GONZÁLEZ ORTIZ.